

MENDATAKO HIZTEGIA

A

ABARKISTEN/abarkístena: Izen arrunta. Abarketak egiteko erabiltzen den tresna, zintak pasatzeko zuloak ere egiten dira beronekin. (Azk. Abarkezten).

*Mendatakoa: "gure etzien **abarkistenik** euki be esteku oiñ!"*

*Forma landua: gure etxean **abarkistenik** euki be ez daukagu orain!*

ABASUSI/abasusiyé: Adberbioa. Presaka, korrika. (Azk. Abazuzi, 2ª).

*Mend.: "geur arratzaldien **abasusiyen** etor de ori gero!"*

*Form. land.: gaur arratsaldean **abasusiyen** etorri da hori gero!*

ABENTADA/abentadié: 1ª Izen arrunta. Edozein objektu, pertsona, zein animalia abiada handiz ateratzen denean.(Azk.-). 2ª Abenteu.

Aditza. Abiada handia. (Azk. Abentau).

*Mend.: "tamañuko **abentadan** urtensu eberdiyen!"*

*Form. land.: tamainuko **abentadan** urten dozu eguerdian!*

ABA/ábie: Izen arrunta. Erleak ezitia egiten duen orrazea. (Azk. Aba, 3ª).

*Mend.: "biyer erletokittik ata bieus **abak** ba!"*

*Form. land.: bihar erletokitik atara behar doguz **abak** ba!*

ABIEU/abíeu: Aditza. Entzun. (Azk.-).

*Mend.: "estot umie gabas estulke **abieu!**"*

*Form. land.: ez dot umea gauean estulka **abieu!***

ABREBIYO/abrebíyoa: 1ª Adejtiboa. Pertsona batek izan dezakeen bizitasuna edo nerbioa. (Azk.-). 2ª Aditza. Esate baterako edozein sutondotan egon daitekeen su motela bizitu. (Azk.-).

*Mend.: "**abrebiyeu** xu apur bet bekosuko sue!"*

*Form. land.: **abrebiyeu** eizu apur bat beheko sua!*

ABUEN/ábuen egon: Aditza. Ondo finkatu gabekoa, hari batetik zintzilikatuta dagoena. (Azk. Abuen-abuen).

*Mend.: "kontus arbolias **abu abuen** dau te!"*

*Form. land.: kontuz arboleagaz **abu** abuen dago eta!*

ADAKI/adákiye: Izen arrunta. Edozein zuhaitzetik atera daitekeen adar mehe eta hosto gabea. (Azk. Adaki 1ª/ 2ª).

*Mend.: "bekosue eitteko itzela ixeten da **adakiye!**"*

*Form. land.: beheko sua eiteko itzela izaten da **adakiye!***

ADAPO/adapoá: Izen arrunta. Derdama baten oinarria, zuhaitzei enborretik derdama jaiotzen zaien tokiari deitzen zaio honela, normalean oso gogorra izaten da. (Azk. Adapo).

*Mend.: "onek erramiek **adapo** gogorra deko da esiñ lei ebai!"*

*Form. land.: honek erramak **adapo** gogorra dauka eta ezin leike ebagi!*

ADATIÑ/adatiñ egon: Adberbioa. Lurrean zein ohean ahoz gora etzanda hartzen den posturari deitzen zaio. (Azk.-).

*Mend.: "bart **adatiñ** eiñ yot lo!"*

*Form. land.: bart **adatiñ** egin dot lo!*

AFRUNTU/afrúntue: Izen arrunta. Euriak eta haize fuerteak, biak bat eginik, zerbaiten edo norbaiten kontra bizitasunez jotzen dutenean. (Azk.-).

*Mend.: "ixen dan **afruntuegas** orma gustiye busti deu!"*

*Form. land.: izan dan **afruntuegas** orma guztia buzti dau!*

AGA/agié: Izen arrunta. Etxeetan, batez ere lehenagoko baserrietan jartzen ziren egurrezko gapirio luze eta sendoak. (Azk. Age, 1^a).

*Mend.: "ongo etzietan **agarik** ipini be esta eitten!"*

*Form. land.: oraingo etxeetan **agarik** ipini be ez da eiten!*

AIDE/aíde: 1^a Interjekzioa. Idi edo behiei aurrerantz egin dezaten oihukatzen zaiena. (Azk. Aida). 2^a Aditza. Alde egin. (Azk.-).

*Mend.: "geur esta emen iñor geldittu, danak eiñ yabe **aide!**"*

*Form. land.: gaur ez da hemen inor gelditu, danak egin dabe **aide!***

AITTETU/aítettú: Aditza. Aipatu. (Azk. Aitatu, 1^a).

*Mend.: "len beragas egon nas da estost eser **aítettú!**"*

*Form. land.: lehen beragaz egon naz eta ez daust ezer **aítettú!***

AITTU/aíttú: Aditza. Ulertu. (Azk. Aitu, 2^a).

*Mend.: "**aíttu** su nik ser esantzuten?"*

*Form. land.: **aíttu** dozu nik zer esan deusudan?*

AIXARTO/aixártoa: Izen arrunta. *Morokila* (ikus. Morokilla) eta taloa egiteko erabiltzen den arto uruna. Normalean soroan batu eta ganbaran lehortzen den artoa da berau. (Azk. Aize+Arto).

*Mend.: "biyerko eiñ bieu **aixartoas** morokille!"*

*Form. land.: biharko ein behar dogu **aixartoas** morokila!*

AI/aiyé: Izen arrunta. Behi esnez, urun eta azukrez edo kanelaz, tostadak edo xigurkiak egiteko erabiltzen den masa. Masa guztiz hotzitu arte uzten da eta norberak nahi dituen neurriko zatiak eginez, azkenik arraultzetan pasatu eta oliotan frijitzen dira (lehenagoko denboretan koipetan). (Azk. Ai, 1^a).

*Mend.: "untxe enbi ot **aiye** biyer karnabal da ta!"*

*Form. land.: oraintxe ein behar dot **aiye** bihar karnabal da eta!*

AIYEN/aiyená: Izen arrunta. Esate baterako patatak izaten duen zurtoinari deitzen zaio honela. (Azk. Aien, 1^a).

*Mend.: "patatieri **aiyena** ebai biyako atara eurretik!"*

*Form. land.: patateari **aiyena** ebagi behar jako atera aurretik!*

AKEN/akená: Adjetiboa. Asko jaten duenez esaten da. Jatuna. (Azk.).

Mend.: "akenak baño geiyau jatesu ta esara loditzen!"
Form. land.: akenak baino gehiago jaten dozu eta ez zara loditzen!

AKILLEN BUSTEN/akillén bustén: Izen arrunta. Boltereta. (Azk.-).

Mend.: "akillen busten ibil de or landan da buruen artu deu golpie!"
Form. land.: akillen busten ibili da hor landan eta buruan hartu dau golpea!

ALATU/alatú: Aditza. Eguraldi hotzean, adibidez isotza egiten duenan, hotzaren hotzez atzamarrak zein oinak ia sentidu ere egiten ez direnean, hau da, hotzaren eraginez gorputz atalen mugimendua

oztopatu, moteldu edo sortu egiten denean. (Azk. Alatu, 3^a).

Mend.: "atzamarrak alatu yates uras ibil nasenien!"
Form. land.: atzamarrak alatu jataz uragaz ibili nazenean!

ALBANDORRATZ/albandórratz: Izen arrunta. Orratz sendoa, lehenagoko denboretan txalmak, artilezko koltxoiak josteko erabiltzen zena, gaur egun ere gauza gogorak eta josteko erabiltzen da eta baita piper kordak egiteko. (Azk. Albandorratz)

Mend.: "albandorratza ekarri biko da hor dausen piperrak kordatzeko!"
Form. land.: albandorratza ekarri beharko da hor dagozan piperrak kordatzeko!

ALBATE/albatié: Izen arrunta. Baserri batzuk alboetatik izaten duten ate txikitxoak. Normalean ate printzipala aurreko aldean egoten da eta handiagoa izaten da. Oraindik albate hau kontserbatzen da baserri etxe askotan. (Azk. Albate, 1^a).

Mend.: "biyer edo konpondu biko da albatie be!"
Form. land.: bihar edo konpondu beharko da albatie be!

ALBATXE/albatxié: Izen arrunta. Errotak funtzionatzeko errekatik andaparara ura joateko irekitzen den atea. (Azk. Albate).

Mend.: "albatxie edeixu urune eitten hasi biot eta!"
Form. land.: albatxie edegi eizu uruna eiten hasi behar dot eta!

ALBOKA/albokié: Izen arrunta. Esate baterako txahalen bat erosi zein saltzen denean hartzen den hamaietakotxoak. (Azk. Alboke).

Mend.: "geur saldu geu txala ta eñ biko da albokie edo seuser!"
Form. land.: gaur saldu dogu txahala eta ein beharko da albokie edo zerbait!

ALDEMAKERA/aldemakérie: Aditza. Pertsona batek gorputz okertua edo zuhaitzen batek enborra bihurrituta duenean esaten da. (Azk.-).

Mend.: "ori gixonori ondo aldemakeratute dau gero!"
Form. land.: hori gizon hori ondo aldemakeratute dago gero!

ALDOKER/aldókerra: 1^a Izen arrunta. Soroetan egoten den intsektu mota bat. (Azk.-). 2^a Adjetiboa. Gorputz konkortua edo okertua duen pertsona, zuhaitz okerra edo makurra. (Azk.-).

Mend.: "gure ortuen be ainbet aldoker egoten da!"
Form. land.: gure ortuan be hainbat aldoker egoten da!

ALDRAPA/aldrapié: Izen arrunta. Aldapa. (Azk. Aldapa).

Mend.: "or daben aldrapias esin lei bedarrik ebail!"

*Form. land.: hor dagoen **aldrapias** ezin leike bedarrik ebagi!*

ALKATIÑA/alkatiñie: Izen arrunta. Esate baterako zapatilak zein zapatak lotzeko ematen den lazada edo korapiloa. (Azk. Alkatiña).

*Mend.: "sapatille kordela solte dekosu te emon **alkatiñie** ostantzien jeusiko sara ta!"*

*Form. land.: zapatila kordela solte daukazu eta emon **alkatiñie** osterantzean jausiko zara eta!*

ALKOTZ/alkotzá: Izen arrunta. Esate baterako kipula zein gari hazia gordetzen dituen azalari deitzen zaio honela. (Azk. Alkotz).

*Mend.: "kipule asiye ereitten basu franku bota orrek **alkotza** deko ugeri tte!"*

*Form. land.: kipula hazia ereitten badozu franko bota horrek **alkotza** dauka ugari eta!*

ALLO/alloá: Izen arrunta. Edozein frutari, esate baterako sagarrari bere muskiletik atera eta zuhaitzera lotzen duen palutxo. *Alle* izena ere askotan erabiltzen da gauza bera esateko. (Azk.-).

*Mend.: "sagarrari kendu eitzesu **alloa** jan aurretik!"*

*Form. land.: sagarrari kendu eiozu **alloa** jan aurretik!*

ALLURBE/allúrbie: Izen arrunta. Ganaduari, berdetan zein lehortuta ematen zaion zuhaina edo forrajea. (Azk. Aillurbe).

*Mend.: "beiyeri be **allurbe** apur bet emon biko yakie!"*

*Form. land.: behiei ere **allurbe** apur bat emon beharko jakie!*

ALOBERIEN/aloberién: Izen arrunta. Nonbaiten jornalari moduan lan egitea. (Azk. Aloger, 1^a).

*Mend.: "**aloberien** da danetara mañatxubet bier eiñikoak bagara geure denporan!"*

*Form. land.: **aloberien** eta danetara makinatxu bat behar einikoak bagara geure denporan!*

ALPER-ARRI/alpér-árriyé: Izen arrunta. Astoak aurretik tiratuta, soroan egoten diren *sokilak* (Ikus. Sokill) apurtzeko erabiltzen zen, luzeran metro bat ingurukoa eta hogeita hamabost bat zentimetroko diametroa duen harri zilindrikoa. Orain nahiz eta baserri askotan erabili ez, kontserbatu egiten da. (Azk. Alper, 2^a).

*Mend.: "oiñ be batzuten soloan pasetan geu **alper arriye!**"*

*Form. land.: orain be batzuetan soloan pasatzen dogu **alper arriye!***

ALTARAKO/altarakoá: Izen arrunta. Meza hastear dagoela adierazteko jotzen diren hiru kanpaots. (Azk.-).

*Mend.: "**altarakoa** jo deu te elixan sartu bieu!"*

*Form. land.: **altarakoa** jo dau eta eleizan sartu behar dogu!*

ALTZIKETU/altzíketu: 1^a Aditza. Etxea edo beste zerbait txukundu eta garbitu. (Azk.-). 2^a Aditza. Eguraldi txarra hobeagotzen doanean. (Azk.-).

*Mend.: "biyerko denporie **altziketu** bidabela esan lei!"*

*Form. land.: biharko denporea **altziketu** behar dabela esan leike!*

AMISTIKUN/amistíkun: Izen arrunta. Doministikuna. Birikietan airea kontrolatu ezinik aho eta sudur zuloetatik indarrez botatzea. (Azk.-).

*Mend.: "selako **amistikune** eiñ yosun!"*

*Form. land.: zelako **amistikune** ein dozun!*

AMUKU/amúkue: Adjetiboa. Aputza. (Azk.-)

Mend.: "eiñ dausen eguraldiyekin amukutute dekeus lurrek be!"

Form. land.: ein dabezan eguraldiakaz amukutute daukaguz lurak be!

ANDARI/andariyé: Izen arrunta. Gorpua eleizara sartzen eta ateratzen laguntzen duena, normalean hildakoaren senitartekoa edo lagun minak izaten dira hauek. (Azk. Andari).

Mend.: "Pedron andariyek bere iru semiek eta loba biyek ixen die!"

Form. land.: Pedron andariyek bere hiru semeak eta loba biak izan dira!

ANDRAGIÑ/andragiñé: Izen arrunta. Lareetan ateratzen den lore mota bat. (Azk. Andrabedar)

Mend.: "ainbet andragiñ dau ortxe gure ortuen be!"

Form. land.: hainbat andragiñ dago hortxe gure ortuan be!

ANKOSKA/ankóska: Adberbioa. Oin baten gainean ibiltzea. (Azk. Ankakoskoka).

Mend.: "ibil xais ankoskan neuk ikusteko!"

Form. land.: ibil zaitez ankoskan neuk ikusteko!

ANKURKULU/ankurkúlu: Adberbioa. Pertsona batek beste bat lepo edo bizkar gainean eramatea, zein zaldi gainera igotzerakoan hartzen den postura. (Azk. Ankarkulo, 1^a-2^a).

Mend.: "maña bat bider eroan saittut ankurkulu!"

Form. land.: makina bat bidar eroan zaitut ankurkulu!

ANPOLI/anpóliye: Izen arrunta. Anpulo antzerako gerezi mota. (Azk. Anpolai).

Mend.: "anpoliyek be eltzen asten dienerako txoriyek danak eroatettue!"

Form. land.: anpoliyek be heltzen hasten diranerako txoriak danak eroaten dabez!

ANTZAR/antzarrá: Izen arrunta. Ahatearen antza duen hegaztia, udazkenerantza, negua urreratzen hasten denean ikus genitzake toki epelagoen bila doazela, horregatik esaten da antzarrak ihesi doazenean eguraldi txarra datorrela. (Azk. Antzar).

Mend.: "geur antzarrak paseu die ta bator denporalien bat!"

Form. land.: gaur antzarrak pasau dira eta badator denporaleren bat!

ANTZU/antzué: 1^a Adjetiboa. Umerik izan ezin duena, normalean animalietaz esaten da. (Azk. Antzu, 1^a). 2^a Adjetiboa. Animaliak, esate baterako behiak, txahala egin aurretik hiru lau hilabete lehenago esnea emateari uzten diotenean antzutu egin direla esaten dugu. (Azk.-).

Mend.: "askenengo ekarriniko bejye be antzutu de ta esteu emoten esnerik!"

Form. land.: azkenengo ekarritako behia be antzutu da eta ez dau emoten esnerik!

AÑASEKA/añasékie: Izen arrunta. Lehenagoko denboretan aura izan eta laisterrera beraien haurrak etxean utzi eta beste batzuen umeak hasten eta jabetzen joaten ziren emakumeak. (Azk. Aiña, 3^a).

Mend.: "oiñ estau olakorik baya antziñe semat andra añaseka moduen joaten san birrien!"

Form. land.: orain ez dago holakorik baina aintzina zenbat andra añaseka moduan joaten zan beharrean!

AÑELA/añélie: Izen arrunta. Mezatan abadeak hildakoaren oroimenez egiten duen otoitza. Normalean Gure aita bat errezatzen zen, eta beronegatik ordaindu beharra egoten zen. (Azk.-).

Mend.: "Don Jose abadiak ainbet añela erreseu ban Mendatan egon san denporan!"
Form. land.: Don Jose abadeak hainbat añela errezau eban Mendatan egon zan denporan!

APAREU/apáreu: Aditza. Gauza edo ekintzaren batekin bete betean eman. (Azk. Aparau).

Mend.: "ongoan apareu dot baloye!"
Form. land.: oraingoan apareu dot baloia!

APERDER/apérder: Adberbioa. Adibidez banketeen batera edo joan eta abundante, denetarik eta guraina dagoenean. (Azk.-).

Mend.: "atzo beutixoa euki gendun da an bai aperder emon ben jaten!"
Form. land.: atzo bautizoa euki genduan da han bai aperder emon eben jaten!

APORRAPOS/aporrapós: Adberbioa. Brometan, txantxetan ibili. (Azk.-).

Mend.: "estakitt aporrapos ibilli bada baya eskondu eitten dala esaste!"
Form. land.: ez dakit aporrapos ibili bada baina ezkondu eiten dala esan deust!

APURRI/apurriyé: Izen arrunta. Zerbait jan edo erabili ondoren gelditzen diren hondakinak edo hondarrak. Baserri giroan, belarra ebaki eta batu ondorengo hondakinei honela deitzen die. (Azk. Apur 1^a/2^a).

Mend.: "orrek bedar apurriyek batuxus ariñ ariñ euriye dator da!"
Form. land.: horrek bedar apurriyek batu eizuz arin arin euria dator eta!

APUTZ/aputzé: Adjetiboa. Esate baterako arraultzopila zein pastela astin astin eginda daudenean. Baserritarrek, lur aputzak edo astinak onak direla esaten dute. Emankorrek, lur solteak direlako. (Azk. Aputz).

Mend.: "orrek lurrok ondo aputzek die ta artuko sues or piperrak!"
Form. land.: horrek lurrok ondo aputzek dira eta hartuko dozuez hor piperrak!

ARABA-SOSO/arabá-sósoa: Izen arrunta. Izatez Gaztela Mendiko txori moeta bat da, Euskal Herrira Araba aldetik sartzen da eta hortik datorkio bere izena. Normalean, neguan azaltzen da hemendik talde handiak osatuz. Paseko txoria da. (Azk. Zozo, 1^a).

Mend.: "geur goixien ainbet araba-soso ibilltte emendik!"
Form. land.: gaur goizean hainbat araba-soso ibili da hemendik!

ARAKATX/arakatxá: Izen arrunta. Basoetan eta egoten den arbusto antzerakoak ematen duen fruta. (Azk. Arakatz).

Mend.: "geuk be ortxe etzatzien dekeu arakatxa da eurton asko emon deu!"
Form. land.: geuk be hortxe etxe atzean daukagu arakatxa eta aurton asko emon dau!

ARATU/áratu: 1^a Aditza. *Ariekin* (Ikus. Ariek) lan egiteari deitzen zaio honela (Azk. Aratu, 2^a). 2^a Aditza. Zerbait aurkitzen gabiltzanean behin eta berriz toki bera hainbat alditan berrikustatzen dugunean. (Azk. Aratu, 1^a).

Mend.: "aratu dot etze gustiye da estotaz topeu papelak!"
Form. land.: aratu dot etxe guztia eta ez dodaz topau papelak!

ARESUBILL/arésubillek: Izen arrunta. Burdinazko hortzak sartzeko egur sendo batzuekin egiten den lauki luze itxurako tresna bat. Egur hauei burdinazko hortzak jarriaz areak eginda daude. (Ikusi. Ariek). (Azk. Are-subil).

Mend.: "ariek eiñ gure badie prepareu biko da aresubille aretx egurraz edo!"

Form. land.: areak ein gura badira preparau beharko da aresubille haritz egurragaz edo!

ARIEK/ariek: Izen arrunta. Soroak labratutakoan gelditzen diren bedarrak eta galondoak kentzeko erabiltzen zen tresna. Aurrekaldetik behiek edo idiek tiratuta, atzekaldetik pertsonen bat joaten zen egurraz egindako arku bati oratuta. Tresna egurrez eginda zegoen eta burdinazko hogeitaz zituen. (Azk. Are, 2^a).

Mend.: "oiñ be baserri askotan euko dabet ariek gordeta!"

Form. land.: orain be baserri askotan eukiko dabet ariek gordeta!

ARIMAITTEKO/arimaittekoa: Izen arrunta. Aintzinako denboretan ilunabarraldean jotzen ziren kanpaotsak, eguna bukatzeaz zegoela eta baserriarrei etxeratzeko sasoiak zela adierazteko. (Azk.-).

Mend.: "beñ arimaittekoa entzuten gendunien sasoiak ixeten san etzera joateko!"

Form. land.: behin arimaittekoa entzuten genduanen sasoiak izaten zan etzera joateko!

ARIMOLLIE/arimólliek: Izen arrunta. Soroan sotasala (Ikus. Sotasal) ateratzeko erabiltzen zen, normalean behiak edo idiak tiratuta. Burdinaz egina zegoen. (Azk.-).

Mend.: "soloan ainbet bider paseu biko die arimolliek eurton!"

Form. land.: soloan hainbat bider pasatu beharko dira arimolliek aurton!

ARKANTZU/arkantzue: Izen arrunta. Pertsona zein animalien batek izan dezakeen indarra, sendotasuna. (Azk.-).

Mend.: "orrek mutillek deko arkantzue!"

Form. land.: horrek mutilak dauka arkantzue!

ARKASI/arkásiye: Izen arrunta. Basoan aurki dezakegun zuhaitz mota bat, bertatik atera daitekeen egur sendoaz baserriarrek normalean gurdientzako taketak egiten dituzte. (Azk. Arkesi).

Mend.: "gupe inos ein geus taketak arkásiyegas burdiyentzako!"

Form. land.: guk be inoiz ein doguz taketak arkásiyegas burdiarentzako!

ARKELA/arkelié: Izen arrunta. Txerri emea. (Azk. Arkela).

Mend.: "baserriyen inos euki geu arkelie baya gitxitten!"

Form. land.: baserrian inoiz euki dogu arkelie baina gitxitan!

ARMALLE/armállie: Izen arrunta. Harriz egindako eskailerak. (Azk. Armilla).

Mend.: "kontus armállias musturres eurrera jeusi barik!"

Form. land.: kontuz armállias musturrez aurrera jausi barik!

ARMARA/armarié: Izen arrunta. Behiak eta izaten duten adarkeraren posizioa. *Armakera* izenez ere ezagutzen da. (Azk. Armera, 1^a).

Mend.: "orrek beiyek dekon armarias esta ixengo erresa buzterriye ipinttie!"

Form. land.: horrek behiak daukan armarias ez da izango erreza uztarria ipintea!

ARMEU/armeú: Aditza. Eginen sinonimotzat erabiltzen da. Jaiak, urtebetetzea ospatu...etab. (Azk.-).

Mend.: "saratarik es armeu ni ogera joan da gero!"

Form. land.: zaratarik ez armeu ni ohera joan da gero!

ARO/ároa: 1^a Izen arrunta. Landatzeko zein ereiteko aldi egokia. (Azk. Aro, 1^a). 2^a Atzizkia. Urtaroa, gaztaroa... (Azk. Aro, 2^a).

Mend.: "geur aro ona dau patatie ereiteko!"

Form. land.: gaur aro ona dau patatea ereiteko!

AROLA/arólie: Izen arrunta. Lurra lantzeko une egokia. (Azk. Arol, 4^a).

Mend.: "untxe dau arola esiñ obie ta kipulie ereiñ bide euriye asi orduko!"

Form. land.: oraintxe dau arola ezin hobea eta kipulea erein behar da euria hasi orduko!

ARRANPALO/arranpáloa: Izen arrunta. Zarata eta algara ugari ateratzen denean. (Azk. Arranbalo).

Mend.: "baya, suek ser daixue horremeste arranpalogas!"

Form. land.: baina, zuek zer darabilzue horrenbeste arranpalogas!

ARRANTZIYO/arrantziyoá: Izen arrunta. Edozein janari zein edarik egoera txarrean dagoenean jateko orduan ematen duen garraztasuna edo erretasun zentzazioa. (Azk.-).

Mend.: "ori gastaye esiñ lei jan arrantziyotute dau te!"

Form. land.: hori gaztaia ezin leike jan arrantziyotute dago eta!

ARRASTADA/arrastadié: Izen arrunta. Norbere gorputz azalean zein zerbaiten gainazalean tresna zorrotz batekin urratu. (Azk. Arrasmarraski).

Mend.: "arratzaldien sasiyas arrastadie eiñyot eskuen!"

Form. land.: arratsaldean sasiagaz arrastadie egin dot eskuan!

ARRAUKA/arraukié: Izen arrunta. Edozein ontzitan, esneak zein beste likidoen bat denbora luzez egon ondoren, ontzian uzten duen lohia. (Azk. Arrauka 1^a/4^a).

Mend.: "orrek ontziyek dekon arraukie ondo garbittu bide!"

Form. land.: horrek ontziak daukan arraukie ondo garbitu behar da!

ARREN/arrená: Izen arrunta. Ardiak, behiak zein zaldiak samatik dindilizka erabiltzen duten zintzarria. Normalean mendian dabiltzanean eta eramaten dute. (Azk.-).

Mend.: "beiyeri arrenak ipin biyakies mendire eroan orduko!"

Form. land.: behiei arrenak ipini behar jakez mendira eroan orduko!

ARRI-BURRITXIKO/arrí burritxíko: Adberbioa. Pertsona batek besteren bat lepoan edo bizkarrean daramanean arri burritxiko daramala esaten dugu. (Azk.-).

Mend.: "ankan min badekosu neuk eroango saittut arri burritxiko gero!"

Form. land.: hankan min badaukazu neuk eroango zaitut arri burritxiko gero!

ARRIYO/arriyoá: Izen arrunta. Sagarrak zein urrak, harrak eginda izaten duten zulotxoak. (Azk. Arrio, 3^a).

Mend.: "orrek urrutxek arriyoa dekie ta estabe baliyo!"

Form. land.: horrek urritzak arriyoa daukie eta ez dabe baliyo!

ARROI/arroié: Izen arrunta. Errotan garia zein artoa eihotzeko harriak moztuta daudenean zorrozteko erabiltzen den mailua. (Azk.-).

Mend.: "arroiye paseu biko yako arriyeri apur bet mostute daue te!"

Form. land.: arroiye pasau beharko jako harriari apur bat moztuta dago eta!

ARTAJORRAI/artajorráie: Izen arrunta. Soloko laboreak egiteko lanabesa. (Azk. Artajorrai).

Mend.: "laster paseu biko da artajorraiye han arto artien daben bedarras!"

Form. land.: laister pasau beharko da artajorraiye han arto artean dagoen bedarragaz!

ARTEGOSO/artegosó egon: Aditza. Urduri eta kezkatu, egon ezinik dagoen pertsonaz esaten da. (Azk. Artega).

Mend.: "neure semie be aspaldiyan artegoso dau esamiñek diela eta estiela!"

Form. land.: nire semea be aspaldian artegoso dago esaminak direla eta ez direla!

ARTEKADU/artekadú egon: Aditza. Urduri. (Azk. Artekadu).

Mend.: "ori umie be artekadu dau te igual euko deu kalenturie be!"

Form. land.: hori umea be artekadu dago eta igoal eukiko kalenturea be!

ARTESA/artésie: Izen arrunta. Ogiaren masa preparatzeko erabiltzen zuten lauki luze baten itxurako egurrezko kaxa bat. (Azk.-).

Mend.: "gure kamaran artesie oniño antxe egongo da!"

Form. land.: gure kamaran artesie oraindik hantxe egongo da!

ARTZA/artzá: Izen arrunta. Indabak garandu eta gero, garbitzeko erabiltzen den zumetzezko kaxa. (Azk. Artza, 1^a).

Mend.: "oiñ be artza erabillten da inñabak garbitzeko!"

Form. land.: orain be artza erabilten da indabak garbitzeko!

ASAPO/asapoá: Adjetiboa. Potoloa eta garaiera baxuko pertsonaz esaten da. (Azk.-).

Mend.: "selako asapotxue sausen baya oniño hasiko sara ta argaldu be bai!"

Form. land.: zelako asapotxue zagozen baina oraindik hasiko zara eta argaldu be bai!

ASARO/asaroá: 1^a Izen arrunta. Soroan ereiteko une egokia. (Azk. Azaro, 1^a). 2^a Izen arrunta. Azaroa. (Azk. Azaro, 2^a).

Mend.: "geur asaro edarra dau naboá ereitteko!"

Form. land.: gaur asaro edarra dago naboá ereitteko!

ASASKEU/asáskeu: Aditza. Asaskatu, hustu, lasaitu. (Azk. Azazkau).

Mend.: "lorik be eiñ esiñik egon nas da asaskeu nas apur bet esatekoak esanda!"

Form. land.: lorik be ein ezinik egon naz da asaskeu naz apur bat esatekoak esanda!

ASATZA/asatzá: Izen arrunta. Esate baterako nabo hazia ereiten gaudenean, soloan nondik nora erein den jakiteko jartzen diren seinaleak, askotan edozein zuhaitzaren derdamak izaten dira. (Azk. Azatz, 3^a).

Mend.: "naboá ereitten goas eta ereiñ ala asatzak ipin biko dies!"

Form. land.: naboá ereiten goaz eta erein ahala asatzak ipini beharko dira!

ASAU/ásau: Izen arrunta. Garia heldu eta batu ondoren gelditzen den uztondoaz eta galtzuaz eginiko pilatxoak. Normalean ganaduari emateko erabiltzen dira. (Azk. Azao).

Mend.: "emen oiñ garirik ereiñ be esta eitten da asaurik be esiñ eiñ!"

Form. land.: hemen orain garirik erein be ez da eiten eta asaurik be ezin ein!

ASKEURRE/askeúrre: Izen arrunta. Baserrietan ate printzipaletik sartuta, eskatzaren ondoan dagoen estantzia, bertatik ikusten ziren ikuiluko behien askak, eta hortik datorkio izena. Gaur

egun ere izen horrekin jarraitzen du, baina baserri gehienetan berriztuta dago. (Azk. Aska+aurre).

Mend.: "len askeurrien bedarra ta eukitten gendun beiyeri askatara emoteko!"

Form. land.: lehen askeurrien bedarra eta eukiten genduan behiei asketara emoteko!

ASKONAR/askónarra: Izen arrunta. Arto soloetan eta lorrinaldiak egiten ibiltzen den piztia. Mutur luze eta larru zuri beltzeko animalia. (Azk. Azkonar, 1^a).

Mend.: "bart be sartu yakun askonarra arto soloan da ainbet kalte eiñ deu!"

Form. land.: bart be sartu jaku askonarra arto soloan eta hainbat kalte ein dau!

ASORIYO/asóriyoo: Izen arrunta. Aza egosiari berakatz erreaz olio botaz egiten den potajea. Antzina gabon gaueko jaki tipikoa zen. (Azk. Aza+olioa).

Mend.: "eurton gabon gaberako asoriyoo prepareu biot!"

Form. land.: aurton gabon gaberako asoriyoo preparau behar dot!

ASPEL/áspela: Izen arrunta. Esate baterako belarrarekin zein iraz egiten diren multzoak. (Azk. Aspel).

Mend.: "bedarra ebaitte aspel batzuk ekar bikojakies beiyeri askara!"

Form. land.: bedarra ebagi eta aspel batzuk ekarri beharko jakez behiei askara!

ASPERTA/aspertá: Adjetiboa. Bizitasun eta bizkortasun handiko pertsonaz esaten da. (Azk.-).

Mend.: "ori neskie benetan asperta da gero!"

Form. land.: hori neskea benetan asperta da gero!

ASPIGARRI/aspigariyé: Izen arrunta. Basoan edo landan ebaki daitekeen bedar zaharra, lehortu ondoren ganaduari jartzen zaio etxanda egon daiten. (Azk. Azpigai).

Mend.: "beiyentzako negureko aspigariye ebaten be laster asi bikeu!"

Form. land.: behientzako negurako aspigariye ebakitzen be laster hasi beharko dogu!

ASPILTTU/aspilttú: Aditza. Arropa, gona zein prakei barrena hartu, laburtu aurretik. (Azk. Aspildura, 2^a).

Mend.: biyerko gonie aspillttu biko da laburtzen eroateko!"

Form. land.: biharko gona aspillttu beharko da laburtzen eroateko!

ASPIRA/aspírie: Izen arrunta. Ogiaren masa preparatzeko erabiltzen zuten lauki luze baten itxurako egurrezko kaxa. Artesa izenez ere ezagutzen da (Azk. Azpira, 2^a).

Mend.: "gurien oniño aspirie barri barriye dau kamaran gordeta!"

Form. land.: gurean oraindik aspirie barri barria dau kamaran gordeta!

ASTINTTUE/astinttué eman: 1^a Aditza. Paliza bat eman, astindua. Batzuetan haserraldia adierazteko ere esaten da. (Azk. Astinaldi, 1^a/2^a). 2^a Astinttu. Aditza. Multzoan edo pilatuta dagoen zerbait sakabanatu. (Azk. Astindu, 2^a).

Mend.: "gustis asarratute tamañuko astiñyuas joan sara len gero!"

Form. land.: gustiz haserretuta tamainuko astiñyuas joan zara lehen gero!

ASTO/astóa: 1^a Izen arrunta. Animalia. (Azk. Asto, 1^a). 2^a Izen arrunta. Egurrek errezago txikitze edo ebakitzeko erabiltzen den egurrez eginiko tresna bat. (Azk.-).

Mend.: "astoan ipiñitte asko be erresau ebaten die egurrek!"

Form. land.: astoan ipinita askoz be errazago ebaten dira egurrak!

ASTONSUNDA/astonsúndie: Izen arrunta. Jatekoan bat alperrik galtzen denean botatzen duen kiratsa. (Azk. Astun 4^a, astonsunda).

Mend.: "orrek okeliurrek astonsundie deko eta esiñ lei jan!"

Form. land.: horrek okela horrek astonsundie dauka eta ezin leike jan!

ASTRAPALA/astrapálie: Izen arrunta. Zarata eta algara. (Azk. Astrapala).

Mend.: "or barruen dan astrapalias billur nas sartzeko be!"

Form. land.: hor barruan dan astrapalias beldur naz sartzeko be!

ASUNBERDI/asúnberdiye: Izen arrunta. Asunbra erdi, edo berdin dena, litro bat. (Azk.-).

Mend.: "asunberdi esne be esteu euki geur beiyek!"

Form. land.: asunberdi esne be ez dau euki gaur behiak!

ATAKA/atakié: Izen arrunta. Larreetan eta behiak izateko hesiak egiten dira, hesi horietan, gurdia zein beraiek animaliak pasatzeko egiten den egurrezko atea da. (Azk. Ataka, 3^a).

Mend.: "ez itxi atakarik edeitte ostantzien urtengo die beiyek!"

Form. land.: ez itxi atakarik irekita ostantzean urtengo dira behiak!

ATOAN/átoan: Adberbioa. Segituan, jarraian, berehala. (Azk.-).

Mend.: "neuk ekarkotas tomatiek atoan ortutik!"

Form. land.: nik ekarriko dodaz tomateak atoan ortutik!

ATXURKULA/atxurkúlie: Izen arrunta. Ortuko laboreak egiteko erabiltzen den hortz biko aitzurra. (Azk. Atsurkula).

Mend.: "atxurkulieri be eiñ biko yako asta barriye apurtute deko ta!"

Form. land.: atxurkulieri be ein beharko jako asta barria apurtute dauka eta!

ATXUR/atxurré: Izen arrunta. Ortuko zein soloko laboreak egiteko lanabesa. (Azk. Atsur 1^a).

Mend.: "mañabat bedar kendu biko da an soloan atxurregas be!"

Form. land.: makina bat bedar kendu beharko da han soloan atxurregas ere!

ATZAPUTZ/atzáputze: 1^a Izen arrunta. Lora mota batzuk lehortzerakoan izaten duten hautsa. Artoak izaten dituen bibote antzerakoak ere honela deitzen dira. (Azk.-). 2^a Atzaputze izan. Aditza. Edozergaitik beti haserretuta eta muxekin (Ikus. Muxek) dagoenaz esaten da, normalean emakumeetaz esan ohi da. (Azk. Astaputz, 2^a).

Mend.: "selako atzaputze dan ori, beti beti asarratute egoten da!"

Form. land.: zelako atzaputze dan hori, beti beti hasarretuta egoten da!

ATZBIXER/atzbixerrá: Izen arrunta. Atzazalen ondoko azaltxoan egiten diren zauritxoak. Oso minberak izaten dira. (Azk. Atzbizar).

Mend.: "onek atzbixerrak miñ itzela emoteste!"

Form. land.: honek atzbixerrak min itzela emoten daust!

ATZESKU/atzeskú: Izen arrunta. Jokoko erregela bat da. Jokaldi batetan denak jokatu ondoren, azkenengo jokatzan duenak, atzesku egiten du. (Azk. Atzesku).

Mend.: "botaixu seuk gusun kartie neu nas atzesku te!"

Form. land.: bota eizu zuk gura dozun karta ni naz atzesku eta!

AUMENTEU/auménteu: Aditza. Esan, aipatu. (Azk. Aumenta).

*Mend.: "eser **amenteutzu** nora joan bidaben edo ala!"*

*Form. land.: ezer **amenteu** dautsu nora joan behar daben edo ala!*

AURPIELAKO/aurpiélako: Adberbioa. Haundia, ikaragarria. (Azk. -).

*Mend.: "**aurpielako** diru pilloa tokeu yakie loteriyen nire lobari!"*

*Form. land.: **aurpielako** diru piloa tokau jake loterian nire lobai!*

AUSITTU/ausittú: Aditza. Eguraldi hotzaren ondoren epelagorantz jotzen duenean. (Azk. Ausitu).

*Mend.: "len egon dan aixe otza **ausittu** eiñ yeu apur bet!"*

*Form. land.: lehen egon dan haize hotza **ausittu** ein dau apur bat!*

B

BABALASTO/babalásto: Adjetiboa. Hara eta hona bueltaka ezer egin gabe dabilenaz esaten da, alferra. (Azk. Babalasto, 2^a).

*Mend.: "ori de ixeteko **babalasto**!"*

*Form. land.: hori da izateko **babalasto**!*

BAGILL/bagillé: Izen arrunta. Ekaina. (Azk. Bagil).

Mend.: "bagillien asitte bier asko egoten da soloetan eta!"

*Form. land.: **bagillien** hasita behar asko egoten da soloetan eta!*

BALDRAS/baldrasá: Adjetiboa. Janzten ere nahiko zatarra eta dotoretasunik ez duenaz esaten da. (Azk. Baldres).

*Mend.: "tamañuko **baldrasa** eiñye basaus gero!"*

*Form. land.: tamainuko **baldrasa** einda bazagoz gero!*

BALUSTRE/balústrie: Izen arrunta. Lehioetan eta jartzen diren egurrezko zein burdinazko barroeteak. (Azk.-).

Mend.: "balustre batzuk ipin biko die orretan bentanetan!"

*Form. land.: **balustre** batzuk ipini beharko dira horretan bentanetan!*

BALTZUSKE/baltzuskíé: Adjetiboa. Beltz kolorera jotzen duena, iluna. (Azk. Baltzune).

*Mend.: "ori arkondara **baltzuskie** polittaba da!"*

*Form. land.: hori arkondara **baltzuskie** politagoa da!*

BANAKA/banákie: Adberbioa. Batzuk. (Azk. Banaka, 5^a).

Mend.: "banaka batek baño esteu aprobeu ori esamiñie!"

*Form. land.: **banaka** batek baino ez dau aprobau hori esaminea!*

BANDAIXA/bandaixié: Izen arrunta. Haize bolada batek, pertsona zein beste zerbaiti eragin diezaiokeen mugimendua edo oskilazioa. (Azk.-).

*Mend.: "bixikletan joan nasenien kotxiak eraisten **bandaixias** lurrera bota neu!"*

*Form. land.: bizikletan joan nazenean kotxeak eragin dausten **bandaixias** lurrera bota nau!*

BAÑO/báñoa: Adjetiboa. Pertsona balientea eta langilea denaz esaten da. (Azk.-).

*Mend.: "bierrerako ori andrie baño **bañoaurik** esin leike topeu!"*

*Form. land.: beharrerako hori andrea baino **bañoaurik** ezin leike topau!*

BARDA/bárdaye: Izen arrunta. Zuhaitz adarra. (Azk. Barda, 2^a).

Mend.: "barda batzukas ixetu bide bekosue ostantzien esteu artzen suak!"

*Form. land.: **barda** batzuekaz iziotu behar da beheko sua ostantzean ez dau hartzen suak!*

BARESARE/baresarié: Izen arrunta. Urdailaren ezker aldean, gibelaz beste aldean dagoen organoa. (Azk. Bare-sare).

*Mend.: "orrek asidente bat euki ban da **baresare** kendu eiñ eitzien!"*

*Form. land.: horrek istripu bat euki eban eta **baresarie** kendu ein eutsen!*

BARRAGARRI/barragarriyé: Adjetiboa. Itsusia, motza dena. (Azk. Barregarri, 2^a).

*Mend.: "ori txakurre es yat gustetan, aiñ **barragarriye** da!"*

Form. land.: hori txakurra ez jat gustetan, hain barragarriye da!

BARRITZU/barritzué: Izen arrunta. Beti barriketan eta marmarrean dabilen pertsonaz esaten da. (Azk. Barritsu).

*Mend.: "ori gizona baño **barritzuaurik** ..., beti nun se barri ibilltten da!"*

*Form. land.: hori gizona baino **barritzuaurik** ..., beti nun zer barri ibiltzen da!*

BARRUNTEU/barrúnteu: Aditza. Somatu, entzun. (Azk. Barrundatu).

*Mend.: "bart be paseu de emendik kotxie, estosue eser **barrunteu**?"*

*Form. land.: bart be pasau da hemendik kotxea, ez dozue ezer **barrunteu**?*

BARTZ/bartzá: Izen arrunta. Zorriak ile artean jartzen duen arraultzea. (Azk. Bartz).

*Mend.: "**bartzak** kendu esien arintxuau edo gerotxuau sorriye an egoten da!"*

*Form. land.: **bartzak** kendu ezean arintxuago edo gerotxuago zorria han egoten da!*

BASATOSTE/basatóste: Izen arrunta. Euskal Herri osoko ohitura bat dugu eta ihauteri aurreko igandean ospatzen da. Basoan sua eginez, burduntzi baten puntan txorizo edo lukainka prestatzen dira. *Txitxiburduntxi* izenaz ere ezagutzen da. (Azk.-).

*Mend.: "datorren domekan **basatoste** da ta mendire goaz!"*

*Form. land.: datorren domekan **basatoste** da eta mendira goaz!*

BASOKAN/basókan: Izen arrunta. Basaranak ematen duen fruitu txiki beltz eta sapore garratzekoa. Basoan berez ateratzen den zuhaixka dugu. (Azk. Basaran).

*Mend.: "**basokanak** batu biko die patxarana eitteko!"*

*Form. land.: **basokanak** batu beharko dira patxarana eiteko!*

BASTAR-ATXUR/bastár-átxur: Izen arrunta. Sororako erabiltzen den aitzurra baino sendoagoa, normalean pinua edo beste edozein zuhaitz mota landatzeko erabiltzen da. Baso eta mendiko lanak egiteko erabiltzen den lanabesa. (Azk. Atsur, 3^a).

*Mend.: "biyerko **bastar-atxurrek** prepareu biko die piñua sartu bier bada!"*

*Form. land.: biharko **bastar-atxurrek** preparau beharko dira pinua sartu behar bada!*

BASTAR/bastárrak: 1^a Bastar. Izen arrunta. Tokiak, bazterrak, txokoak. (Azk. Bastar). 2^a Bastarrak. Interjekzioa. Harridurazko esaldietan asko erabiltzen den hitza, kantitatea edo kopurua adierazteko erabiltzen da. (Azk.-).

*Mend.: "**bastarrak** diru ekarko ban Ameriketatik orren gizonak!"*

*Form. land.: **bastarrak** diru ekarriko eban Ameriketatik horren gizonak!*

BAYE/bayé: Izen arrunta. Artoa edo garia errotan eultzi ondoren eurotatik lortzen den uruna eralgiteko, egurraz eta sareaz egindako setabea. (Azk. Bai, 3^a).

*Mend.: "arto urune eralgitteko **baye** ekar bikosu!"*

*Form. land.: arto urune eralgitzeko **baye** ekarri beharko dozu!*

BEATZIURREN/beátziurren: Izen arrunta. Norbait hil ondoren bederatzi egunetan bere oroimenez egiten diren mezak. (Azk. Bederatziurren).

*Mend.: "Tomas il sen atzo ta etzi asten da **beatziurrena**!"*

*Form. land.: Tomas hil zan atzo eta etzi hasten da **beatziurrena**!*

BEGIKUNE/begikúnie: Izen arrunta. Bekokia tximurtuta haserrezko begirada bat bota norbaiti. (Azk. Begirune, 1^a).

Mend.: "aittek ipisten begikunias, badakitt se enbitan!"

Form. land.: aítak ipini deustan begikunias, badakit zer ein behar dodan!

BEGIRETA/begiretié: Adjetiboa. Gauzei ondo begiratu eta dirua aurreratzen dakien emakumeaz esaten da. Gizonezkoa izan ezkeru begiretue dela esango genuke. (Azk. Begiratu, 3^a).

Mend.: "Miren ixen dan begiretias ainbet diru engo ban bere denporan!"

Form. land.: Miren izan dan begiretias hainbat diru ingo eban bere denporan!

BELDRUX/beldruxé: Adjetiboa. Urduritasunez, hara eta hona gelditu gabe ibiltzen denaz esaten da. (Azk. Beldruxera, 1^a).

Mend.: "gure Mikel tamañuko beldruxe bada, gelditu be esta eitten gero!"

Form. land.: gure Mikel tamainuko beldruxe bada, gelditu be ez da eiten gero!

BELEKI/belékiye: Izen arrunta. Ogia egiteko labako sua egin ondoren bertan (laban) dauden txingarrak atzera eta aurrera erabiltzeko egurrezko tresna. (Azk. Belaiki, 2^a).

Mend.: "belekiyas garbi garbi eitten gendun labie ogiye eiñ eurretik!"

Form. land.: belekiyas garbi-garbi eiten genduan labea ogia ein aurretik!

BELTXORA/beltxórie: Adjetiboa. Oso bizia eta urduria denaz esaten da. (Azk.-).

Mend.: "ori umie baño beltxoriaurik esiñ lei topeu munduen!"

Form. land.: hori umea baino beltxoriaurik ezin leike topau munduan!

BENDAJA/bendájie: Izen arrunta. Merkatuko plazara baserritarek saltzeko eramaten dituzten barazki, fruten multzoari deitzen zaio honela. (Azk.-).

Mend.: "biyer plasara joateko geur prepareu bide bendajie!"

Form. land.: bihar plazara joateko gaur preparau behar da bendajie!

BENPEIÑON/benpeiñón: Interjekzioa. Harridurazko esaldietan erabiltzen den hitza. (Azk.-).

Mend.: "benpeiñon ori esta suk esan sun moduen da!"

Form. land.: benpeiñon hori ez da zuk esan dozun moduan eta!

BERATU/beratú: Aditza. Esate baterako ur epelaren laguntzaz zerbait bigundu, adibidez ogia. (Azk. Beratu, 1^a).

Mend.: "biyerko inyabak geur beratu biko dies!"

Form. land.: biharko indabak gaur beratu beharko dira!

BERESI/beresiyé: Izen arrunta. Otzarak eta aulkiak egiteko erabiltzen ziren sastraka eta zepen tokia. (Azk.-).

Mend.: "antxe beresiyen egongo die otzarak eitteko sepak!"

Form. land.: hantxe beresiyen egongo dira otzarak egiteko zepak!

BERMIO-BEDAR/bermió-bédarra: Izen arrunta. Soroetan eta landareen tartetean ateratzen den hiru orriko bedarra. Baserritarren etsaia, behin solo eta ortuetan atera ezkeru oso zaila da desagertaraztea. (Azk. Bedar, 1^a).

Mend.: "solo gustiye bermio bedarres jositte dekeu!"

Form. land.: solo guztia bermio bedarres josita daukagu!

BERNUTZIK/bérnurtzik: Adberbioa. Oinetakoak galtzerdi gabe jantzi. (Azk. Berna+utsik, 1ª).

*Mend.: "barriro **bernutzik** ikusten basaitut bietzak sapalduko tzutes!"*

*Form. land.: barriro **bernutzik** ikusten bazaitut bietzak zapalduko deutsudaz!*

BETERRE/betérrie: Adejtiboa. Eskasa edo argala den pertsona edo animaliaz esaten da, hau da begi inguru eskasekoa. (Azk. Beterre)

*Mend.: "ori umie be ondo **beterrie** dau te asko esteu jango ba!"*

*Form. land.: hori umea be ondo **beterrie** dago eta ez dau asko jango ba!*

BEUNTADA/beuntadié: Izen arrunta. Golpea. (Azk.-).

*Mend.: "aulkittik jeusi nasenien selako **beuntadie** artutan!"*

*Form. land.: aulkitik jausi nazenean zelako **beuntadie** hartu dodan!*

BEUNTE/beunté: Adjetiboa. Pertsona serioa eta bekoki iluna dueñas esaten da. (Azk.-).

*Mend.: "ori den **beuntegas** batek aguantekotzo orrer!"*

*Form. land.: hori dan **beuntegas** batek aguantauko dautso horrer!*

BIDEGARRO/bidegarroá: Izen arrunta. Txori mota bat da. *Miragarroa* ere deitzen zaio. (Azk. Birigarro).

*Mend.: "untxe dabis **bidegarroak** abiyek eitten!"*

*Form. land.: oraintxe dabilz **bidegarroak** habiak eiten!*

BIDE-SOR/bidé sorrá: Izen arrunta. Bide pribatuak edo zor diren bideei deitzen zaie honela. (Azk. Bide zor).

*Mend.: "ori **bidesorra** da ta esiñ lei baimenik barik paseu!"*

*Form. land.: hori **bidesorra** da eta ezin leike baimenik barik pasau!*

BIGITTE/bigittié: Adjetiboa. Eskasa. (Azk.-).

*Mend.: "ori be ondo **bigittetute** dau!"*

*Form. land.: hori be ondo **bigittetute** dago!*

BILDRIÑ/bildriñé: Izen arrunta. Zerbait ibili edo jan ondoren gelditzen diren zati txikitxoak edo hondarrak. (Azk. Bildri, 1ª).

*Mend.: "orrek ogi **bildriñek** kendu mai ganetik!"*

*Form. land.: horrek ogi **bildriñek** kendu mahai gainetik!*

BINKE/bínke: Interjekzioa. Harridurazko esaldietan erabiltzen da. (Azk.-).

*Mend.: "**binke!** edarto baten bixiko sara or etze barriyen!"*

*Form. land.: **binke!** edarto baten biziko zara hor etxe barrian!*

BIRGIXIÑ/birgixiñé: Izen arrunta. Batez ere hazidun frutak, esate baterako sagarrak, eta tuberkuludun landareek izaten duten gaixotasuna. (Azk. Birgizen).

*Mend.: "eurton patatiek be **birgixiñ** asko euki deu!"*

*Form. land.: aurton patateak be **birgixiñ** asko euki dau!*

BIRIKATX/birikatxá: Izen arrunta. Abereek apatx bitartean izaten duten gaixotasuna. (Azk. Birekats).

*Mend.: "ibilli esiñik dekeu bei bet **birikatxakiñ!**"*

Form. land.: ibili ezinik daukagu behi bat birikatxakiñ!

BIRRIÑ/birriñé: Izen arrunta. Gauza baten zati txikiak egin, edo apurretan, puskatu, desegin. (Azk.-).

Mend.: "or dauen ogi birriñe emon txakurreri!"

Form. land.: hor dagoen ogi birriñe emon txakurrari!

BIXISTURE/bixisturié: Adjetiboa. Pertsona urduria eta geldi egon ezin duenaz esaten da. (Azk.-).

Mend.: "ori umie ondo bixisturie da, gero...!"

Form. land.: hori umea ondo bixisturie da, gero...!

BIYORTU/biyortú: Aditza. Zerbait okertu, bihurritu. (Azk. Biortu, 1^a).

Mend.: "ori piñue apur bet biyortute dauela esan lei!"

Form. land.: hori pinua apur bat biyortute dagoala esan leike!

BLASTIO/blastíoa: Izen arrunta. Musturreko edo belarrondoko bat eman. (Azk. Blaustada, 1^a).

Mend.: "gure txakurreri be emontzo blastíoa nonok da oiñ or dau txabolan!"

Form. land.: gure txakurrari ere eman dautso blastíoa norbaitek eta orain hor dau txabolan!

BLEUSTASO/bleustásoa: 1^a Bleustasoa eman. Aditza. Belarrondoko edo musturreko handia eman. (Azk. Blaustada, 1^a). 2^a Izen arrunta. Norbera edo zerbait behera erortzean ateratzen duen hotza. (Azk. Blaustada, 2^a).

Mend.: "jeusi naz bankilloan ganetik da nik ata dot bleustasoa!"

Form. land.: jausi naz bankiloan gainetik eta nik atara dot bleustasoa!

BOLATOKI/bolatókiye: Izen arrunta. Izatez bolajokora egiten zen tokia da, baina Mendatako kasuan bolatoki honetan, Mikel Deunaren jaietan herriko jendea biltzen izan da, eta orain ere paper garrantzitsua betetzen du ohiturei jarraituz. (Azk. Bolaleku).

Mend.: "biyer da San Miguel irugarrena da bolatokire joan bikeu!"

Form. land.: bihar da San Migel hirugarrena eta bolatokire joan beharko dogu!

BONA/bonié: Izen arrunta. Animalia zein pertsoneri larruazalean ateratzen zaizkien granoak edo mantxak dira. (Azk. Bona).

Mend.: "beittu gure beiyek selako bonak dekosan lepoan da errapien be!"

Form. land.: begitu gure behiak zelako bonak daukozan lepoan eta errapean be!

BORBOXADA/borboxadié: Izen arrunta. Zerbait irekiten dagoenean burbuilek ateratzen duten hotsa. (Azk. Borbor).

Mend.: "ori lapikoa atzeratuixu surtetik ataten daben borboxadias!"

Form. land.: hori lapikoa atzeratu eizu sutetik ataraten daben borboxadias!

BORRA/borrié: Izen arrunta. Kafea egin ondoren kafeontzian gelditzen den txikoria eta kafe hondarra. (Azk.-).

Mend.: "or ontziyen daben borrie bota ein bide!"

Form. land.: hor ontzian dagoen borrie bota ein behar da!

BORRILL/borillé: Izen arrunta. Indaba zein patata lapikoa egitean, kaldoa larregi loditu eta den dena masa bat bezala eginda geratzen denean borrhildu egin dela esaten da. (Azk.-).

*Mend.: "geur inyaba lapikoa dana **borrilltu** da!"*

*Form. land.: gaur indaba lapikoa dana **borrilltu** da!*

BORTZERI/bortzeriyek: Izen arrunta. Antzina erabiltzen zituzten bota altuak, normalean puntan burdina izaten zuten. Izatez gaur eguneko bota militarren estilokoak ziren. *Bortzeriyek* zein *bortzekiyek* era bietara ezagutzen dira. (Azk.-).

*Mend.: "nik oniño gordeta dekotas sapata **bortzeriyek** kamaran!"*

*Form. land.: nik oraindik gordeta daukotaz zapata **bortzeriyek** kamaran!*

BOSKANTOI/bóskantoi: Izen arrunta. Sagar mota bat da. (Azk. Sagar, 1^a Boskantoi).

*Mend.: "oiñ baño len **boskantoa** geiyau egon san onetan parajietan!"*

*Form. land.: orain baino lehen **boskantoa** gehiago egon zan honetan parajeatan!*

BOSTORTZ/bóstortza: Izen arrunta. Soroa lantzeko lanabesa. (Azk. Bostortz, 1^a).

*Mend.: "**bostortza** be gurien oniño hortxe laban egongo da gordeta ba!"*

*Form. land.: **bostortza** be gurean oraindik hortxe laban egongo da gordeta ba!*

BRIE/brié: Izen arrunta. Batez ere pinu edo abetoei ateratzen zaien substantzia. (Azk.-).

*Mend.: "piñuek **brie** asko eukitten deu!"*

*Form. land.: pinuak **brie** asko eukitzen dau!*

BRINTZETU/brintzetú: Aditza. Zati txiki txikietan egin, puskatu, zatikatu. (Azk. Brintzatu).

*Mend.: "basoa apurtu eskero dana **brintzetzen** da!"*

*Form. land.: basoa apurtu ezkerro dana **brintzetzen** da!*

BRINYO/brinyoa: Adjetiboa. Zapore mingotsa edo garratza. (Azk.-).

*Mend.: "orrek madariyek dekon **brinyoas** esiñ lei jan be eiñ gero!"*

*Form. land.: horrek madariak daukan **brinyoas** ezin leike jan be ein gero!*

BRIYELDU/briyeldú: Aditza. Esate baterako euri zaparradak harrapatu ondoren buzti buzti egitea. (Azk.-).

*Mend.: "ori mutiltxue potxingora jeusitte dana **briyeldute** dau!"*

*Form. land.: hori mutiltxoa potxingora jausita dana **briyeldute** dau!*

BRIYURA/briyurié: Izen arrunta. Eguraldi hotzaren eraginez izaten den hozgiroa. (Azk.-).

*Mend.: "atie edeitte ortik datorren **briyurie!**"*

*Form. land.: atie edegita hortik datorren **briyurie!***

BUKOI/bukoyé: Izen arrunta. Upela, barrika. (Azk.-).

*Mend.: "jan sun beste makillau, **bukoye** bete ur edan bikosu!"*

*Form. land.: jan dozun beste makailo, **bukoye** bete ur edan beharko dozu!*

BULDA/buldié: 1^a Izen arrunta. Bijili edo barau egunetan haragia jateko eleizan erosten zen permisua. (Azk. Bula). 2^a Izen arrunta. Norbera edo norbere familiaren alde abadeak otoi bat egin zezan eleizan erosten zen paper bat. (Azk.-).

*Mend.: "antziñe Bariku Santu egunien okelie jateko **buldie** erosi bixetesan!"*

*Form. land.: antzina Bariku Santu egunean okelea jateko **buldie** erosi behar izaten zan!*

BURDI/burdiyé: Izen arrunta. Belardi eta forrajeekin zer ikusia duten lanak egiteko lanabesa. (Azk. Burdi).

*Mend.: "len **burdiye** be beiyekas edo idiyekas ibilli bier ixeten san!"*

*Form. land.: lehen **burdiye** be behiakaz edo idiakaz ibili behar izaten zan!*

BURDUNTZADA/burduntzadié: Izen arrunta. Elizpeak izaten dituen sarrera-irteerak. (Azk.-).

*Mend.: "elixara sartzeko **burduntzadan** egon giñen itxeraitten!"*

*Form. land.: eleizara sartzeko **burduntzadan** egon ginen itxaroten!*

BURDUNTZALDI/burduntzáldiye: Izen arrunta. Kazuela zein beste ontzi batetik platerreara janaria ateratzeko erabiltzen den kazoa. (Azk. Burduntsali).

*Mend.: "garbantzen **burduntzaldi** bete jan dot da kalte eiñ yoste berak!"*

*Form. land.: garbantzen **burduntzaldi** bete jan dot eta kalte ein daust berak!*

BURDUNTZI/burdúntziye: Izen arrunta. Okelak edo arrainak suaren gainean erretzeko erabiltzen den hortz biko egurrezko palua. (Azk. Burduntzi).

*Mend.: "geur arratzaldien txoixoa **burduntziyen** erreta jan bieu ba!"*

*Form. land.: gaur arratsaldean txorizoa **burduntziyen** erreta jan behar dogu ba!*

BURGOTOI/burgotoyé: Adjetiboa. Harrokeria franku darabilen pertsona serio eta, aurpegi ilunarekin ibiltzen denaz esaten da. (Azk. Burgoi).

*Mend.: "tamañuko **burgotoye** eiñye saus, iñok esin dotzu eser esan da!"*

*Form. land.: tamainuko **burgotoye** einda zagoz, inork ezin dautsu ezer esan eta!*

BURPARTIKA/burpartíkie: Izen arrunta. Burdia eta buztarria lotzen dituen egurrezko pieza luzea. (Azk. -).

*Mend.: "**burpartikie** be gasteute dekeu ta eiñ biko da barriye!"*

*Form. land.: **burpartikie** be gastauta daukagu eta ein beharko da barria!*

BURRIÑO/burriñoa: Izen arrunta. Asto eta zaldiaren arteko nahastea. (Azk.-).

*Mend.: "**burriñotxu** bet erosi ot mendiyen eukittekko beste saldiyekas!"*

*Form. land.: **burriñotxu** bat erosi dot mendian eukitzeko beste zaldiakaz!*

BURTADA/burtadié: Izen arrunta. Izen arrunta. Buztarria idi edo behi bikotea joateko egina dago, behin animalia biei burualdean egurrezko pieza jartzen zaienean, buztarriak erdian, animalien buru bien erdian zulo bat izaten du. Zulo horren hegialak larruzko tirez estalita egoten dira, zulo horri deitzen zaio honela. (Azk. Burtada-zulo).

*Mend.: "geur idiyeri busterriye ipiñi orduko **burtadie** be konpondu biko da!"*

*Form. land.: gaur idiai busterriye ipini orduko **burtadie** be konpondu beharko da!*

BURTIRA/burtírie: Izen arrunta. Izen arrunta. Burdiak buztarrira engantxatzeko duen egur sendoz eginiko pieza luze bat da. Pieza honek puntan burdinazko beste pieza bat izaten du, *burtadan* sartzan denean *larakoarekin* (ikus. Larako) tope egiteko eta burdia buztarrira finkatuta gelditzeko. Burtira hau burditik, zein lurra lantzeko erabiltzen zen beste tresnaren batetik buztarrira joaten den egurrezko piezari deitzen zaio. *Burpartika* izenez ere ezagutzen da. (Azk.-).

*Mend.: "goldientzako **burtire** barriye be prepareu bikeu biyer edo!"*

*Form. land.: goldearentzako **burtire** barria be preparau beharko dogu bihar edo!*

BURUASKOA/buruásko **egin**: Aditza. Arazoen batek ustekabeen harrapatzean, aurre ezin egin eta zoratuta bezala jarri. (Azk. Buruhauagarri).

Mend.: "kotxie ostu tziela ta **buruaskoa** eiñ bierrien etor de ori etzera!"

Form. land.: kotxea lapurtu dautsiela eta **buruaskoa** ein beharrean etorri da hori etxera!

BURRUNDADA/burrundadié: Izen arrunta. Motorrak, kotxeak... ateratzen duten zarata, zein hizketaldi izkanbilatsu batean sortzen den zarata. (Azk.-).

Mend.: "kotxiek ataten daben **burrundadias** estot entzun ser esansun!"

Form. land.: kotxeak ataraten daben **burrundadias** ez dot entzun zer esan dozun!

BUSKENTZ/buskentzá: 1^a Izen arrunta. Odolosta edo odolki sendoa. (Azk. Buzkantz, 1^a). 2^a Izen arrunta. Sabela, tripa. (Azk. Buzkantz, 2^a).

Mend.: "txarri illtte gabien **buskentzak** parrillen erreta jaten die!"

Form. land.: txerri hiltze gauean **buskentzak** barrilan erreta jaten dira!

BUSTERRI/busterriyé: Izen arrunta. Behiei edo idiei lanerako elkartzeko kokotaren gainean jartzen zaien zurezko tresna. (Azk. Buztatu, 1^a edo Uztarri, 1^a).

Mend.: "idiyek **busterriyen** artun de geur arratzaldien basora joan bieu!"

Form. land.: idiak **busterriyen** hartu eta gaur arratsaldean basora joan behar dogu!

BUSTEN-IKERA/bustén íkerie: Izen arrunta. 1^a Izen arrunta. Txori mota bat. (Azk. Buztanikara). 2^a Adjetiboa. Geldi egon ezinik hara eta hona ibiltzen den pertsonaz esaten da. (Azk.-).

Mend.: "eurton or artien eiñ yeu **busten ikeriek** abiyie!"

Form. land.: aurton hor artean ein dau **busten ikeriek** habia!

D

DANBARRADA/danbarradié: Izen arrunta. Norbaitek edo zerbaitek goitik behera jaustean ateratzen duen zaratotsa. (Azk. Danbarrada).

Mend.: "ori de atarasun danbarradie laban eintte jeusi sarenien!"

Form. land.: hori da atara dozun danbarradie laban eginda jausi zarenean!

DARDAILLE/dardáillie: Adjetiboa. Hizketaldi batean urduri jarri eta norberana baino entzuten ez dakienaz esaten da. (Azk.-).

Mend.: "orraittio su baño dardalliaurik esta egongo iñun!"

Form. land.: orratio zu baino dardalliaurik ez da egongo inon!

DEI/deiyé: Izen arrunta. Aintzina etxeen bat saldu edo norbait ezkontzera zihoanean eleizan proklamatzeari deitzen zaio honela. (Azk. Dei, 4^a).

Mend.: "Miren da Aitor be laster eskonduko die, elixan be bota dabes deiyek eta!"

Form. land.: Miren eta Aitor be laster ezkontuko dira, eleizan be bota dabez deiyek eta!

DENDELET/dendeletá: Adjetiboa. Gizarajoa, adorerik gabea, beldurtia eta ganorarik gabe bizi dena. (Azk.-).

Mend.: "estekosu esetako taiyurik, dana dendeletute saus!"

Form. land.: ez daukazu ezertarako taiurik, dana dendeletute zagoz!

DOLLIDU/dollidú: Aditza. Alteratu, haserretu, humore txarrean jarri. (Azk. Doilidu).

Mend.: "suk geuse bat dekosu ona, itzelak esanda be esara dollidu be eitten!"

Form. land.: zuk gauza bat daukazu ona, itzelak esanda be ez zara dollidu be eiten!

DOMEU/domeú: Aditza. Okertu, makurtu. (Azk.-).

Mend.: "orreri arbolieri edurrek erramak domeu eintzos!"

Form. land.: horrerri arboleari edurrak erramak domeu ein dautsoz!

DOMISTIKUN/domistikune: Izen arrunta. Bat batean, birikietako airea kontrolatu ezinik sudurretatik jaurti. (Azk.-).

Mend.: "Jesus... ori ixen da domistikune!"

Form. land.: Jesus... hori izan da domistikune!

DOTXABANA/dotxabánie: Izen arrunta. Hitz hau Ameriketako euskaldunek erabiltzen dute. Artzaiak ogia egiteko erabiltzen zuten burdinezko lapiko pisutsu bat da. Lehenengo eta bat lurrean zulo bat egin eta sua pizten zuten, bertan brasa egin bitartean, ogiaren masa prestatzen zen, azkenik masa lapikoan sartu, tapa jarri eta brasa gainean ipini, lurrarekin ondo estali lapikoa eta ordu batzuetan ogia eginda zegoen. (Azk.-).

Mend.: "dotxabanan einiko ogiye goso goso ixeten san!"

Form. land.: dotxabanan einiko ogia gozo gozo izaten zan!

DRONGILLE/drongíllie: Izen arrunta. Txerri zein txahal okela xehatuari, arraultza perrexila eta baratxuria nahasten zaizikio, gero bola txikitxoak egin, urun eta arraultzetan pasatuaz frijitu oliotan. Azkenik lapiko baten jartzen dira, eta saltsa bat egiten zaie kipula eta piperrarekin. (Azk.-).

Mend.: "geur beskaritteko drongillek dekeus!"
Form. land.: gaur bazkaritarako drongillek daukaguz!

DURDULA/durdúlie: Izen arrunta. Birigarroaren antzerako txori mota bat dugu. (Azk. Durdura).

Mend.: "ainbet durdule ikusten da aspaldion emendik!"
Form. land.: hainbat durdule ikusten da aspaldian hemendik!

DURUNDI/durundiyé: Izen arrunta. Apurka apurka itzaliz doan soinua. (Azk. Durundi).

Mend.: "durundi itzela ataten deu orrek aparatuek!"
Form. land.: durundi itzela ataraten dau horrek aparatuak!

E

EDE/edié: Izen arrunta. Behi zein idiari uztarria buru gainean finkatzeko jartzen zaion larruzko tira (larruzkoa). (Azk. Ede, 1^a).

Mend.: "sendo sendo lotu biyako edie ostantzien esta sujetetan busterriyel!"

Form. land.: sendo sendo lotu behar jako edie ostantzean ez da sujetetan buztarria!

EDOSEMAT/edosémat: Galderazko partikula aurrizkiak. Kopuru handia, ugaritasuna adierazten du. (Azk. Edo).

Mend.: "edosemat gure jateko emoskue geur baskaritten!"

Form. land.: edosemat gura jateko emon doskue gaur bazkaritan!

EGABERA/egabérie: Izen arrunta. Batez ere neguko hotzaldietan Euskal Herrian agertzen den paseko txoria da. (Azk. Egabera, 2^a).

Mend.: "egaberak paseu die ta badator denporalien bat!"

Form. land.: egaberak pasau dira eta badator denporaleren bat!

EGUNDO/egúndo: Adberbioa. Inoiz ez, sekula. Ezezko esaldietan erabiltzen da. (Azk. Egundo).

Mend.: "egundo be esta etorri ori gurera beskaritten!"

Form. land.: egundo be ez da etorri hori gurera bazkaritan!

ELAI/elayé: Izen arrunta. Udaberrirantza etorri eta urri inguruan joaten den txori mota bat. Baserrietako etarteetan egiten du habia eta intsektuak jaten ditu. Baserritarrak esaten dutenez habia egiten duten etxe bizitzetako pertsonak suerte ona izaten dute urte osoan. (Azk. Elae, 1^a).

Mend.: "elaiyek etartien eiñ yabe abiyie eurton be!"

Form. land.: elaiyek etartean egin dabe habia aurton be!

ELBITZ/elbitzé: 1^a Adjetiboa. Guztiz alperrik galduta eta argalduta dagoenaz esaten da. (Azk. Elbitz, 1^a). 2^a Izen arrunta. Ortuari batzuk, esate baterako lekak eta zerbak izaten duten hari fin fina. (Azk.-).

Mend.: "ori mutiltxuori ondo elbitze dau gero!"

Form. land.: hori mutiltxo hori ondo elbitze dau gero!

ELGORRI/elgorriyé: Izen arrunta. Normalean haurtzaroan izaten den gaixotasuna. Sukarrez eta gorputz osoan agertzen diren bikor gorritz adierazten da. (Azk. Elgorri, 1^a).

Mend.: "orrexek umiek elgorriye urtetan dekola esan leike!"

Form. land.: horrexek umeak elgorriye urtetan daukala esan leike!

EMAI/émaiye: Izen arrunta. Jarioa edo isuria, adibidez ur jarioa, odol jarioa... (Azk.-).

Mend.: "or urek olan urtetako aspiyen egongo da emaiyen bat edo!"

Form. land.: hor urak horrela urtetako azpian egongo da emaiyen bat edo!

EMENDIYO/emendiyoá: Aditza. Esate baterako arropak, liburuak zein beste edozerk egiten duen zerbitzua. (Azk.-).

Mend.: "suk itxi neiko libruék emendiyo andiye eistie eurtengo kursoan!"

Form. land.: zuk utzitako liburuak emendiyo handia ein deustie aurtongo kurtsoan!

ENAKOSTU/enákostu: Adjetiboa. Baserritarrek esate baterako landareak eta sendotu eta meioratu gabe bertan behera gelditzen direnean *enakostute* gelditu direla esaten dute. (Azk.-).

Mend.: "orrek piper landarak enakostute daus eiñ tziesan denporaliekas!"

Form. land.: horrek piper landarak enakostute dagoz ein dautsiezan denporaleekaz!

ENDEKATU/endékatu: Aditza. Baserritarrek landareetaz mintzatzen daudenean erabiltzen dute hitz hau, esate baterako tomate, piper zein beste landareren bat soron jarritakoan gorantz egiten hasten da, eta bapatean zerbaitegatik ez da hasten gehiago, orduan landare hori *endekatuta* geratu dela esaten da, hau da, txikia. (Azk.Endakatu).

Mend.: "iges tomate landarak danak geldittu sien endekatute eiñ basen denporakas!"

Form. land.: iaz tomate landarak danak geratu ziran endekatute ein ebazan denporakaz!

ENOKUSTU/enokostú: Izen arrunta. Pertsoneri zein animaliei Sauri batek eragindako minberatasuna edo kejoura. (Azk.-).

Mend.: "beiyek erroak urutu deus sasitzen da oiñ enokustute egon be esiñik dau!"

Form. land.: behiak erroak uratu ditu sasitzan eta orain enokustute egon be ezinik dago!

ENPAIDUKO/enpaidukóak: Izen arrunta. Esate baterako mendira bidai bat egiten goaz eta lehenengoko doanak, beste guztiak atzetik datozela esateko, "enpaidukoak atzetik datoz" esaten du. (Azk.-).

Mend.: "Mikel, esan enpaidukoari klasera sartzeko mesedes!"

Form. land.: Mikel, esan enpaidukoari klasera sartzeko mesedez!

ENPAJADA/enpajadié: Izen arrunta. Galtzua eta arto uruna ur epelaz nahastuz, behiei emateko preparatzen den janaria. (Azk.-).

Mend.: "enpajadie prepareu biko da ganadueri emoteko!"

Form. land.: enpajadie preparau beharko da ganaduai emoteko!

ENTRAMA/entramié euki: Aditza. Jateko gogo handia. (Azk.-).

Mend.: "orrek mutillek dekon entramias edoser jango leke!"

Form. land.: horrek mutilak daukon entramias edozer jango leuke!

EPETARGI/epetargiyé: Izen arrunta. Gauetan kolore berdeko argitxoa ematen duen intsektua.(Azk. Epertargi).

Mend.: "uden mañabat epetargi ikusten da gabetan!"

Form. land.: udan makina bat epetargi ikusten da gauetan!

ERALGI/eralgí: 1^a Aditza. Esate baterako bahe edo galbahean indabak garbitu eta handiak eta txikiagoak edo onak edo txarrak bereizi. (Azk. Eralgi, 1^a). 2^a Aditza. Norberak izan ditzakeen dirua zein ondasunak gastatu. (Azk. Eralgi, 2^a).

Mend.: "aittek ainbet diru itxitzen orreri be baya eralgi deus danak!"

Form. land.: aitik hainbat diru itxi eutson horreri be baina eralgi daus danak!

ERITXI/eritxiyé: Adjetiboa. Harrokeria franko duen pertsonaz esaten da. (Azk.-).

Mend.: "ori dan eritxiyas estaki berba selan eiñ be!"

Form. land.: hori dan eritxiyas ez daki berba zelan ein be!

ERKERA/erkerié: Izen arrunta. Ahuntz, txerri, edo ardiaren zelo aldia. (Azk. Erkara).

Mend.: "txarriye be erkerá da ta esiñ ixengo geu ill egun batzuten!"

Form. land.: txerria be erkerá da eta ezin izango dugu hil egun batzutan!

ERKIÑ/erkiñé: Adjetiboa. Eskasa, mehea, argala. (Azk. Erkin, 1ª).

Mend.: "eurton estekeu piper leka ona dana erkiñe dau!"

Form. land.: aurton ez daukagu pipar leka ona dana erkiñe dago!

ERNAMIÑ/ernamiñé: Aditza. Patata, artoa, zein beste edozer erein ondoren ondo ernetzen ari denean. (Azk. Ernamiñean).

Mend.: "patatie be untxe dau ernamiñien!"

Form. land.: patatea be oraintxe dau ernamiñien!

EROSTAKA/eróstakie: Aditza. Kexaka ibili. (Azk. Eroستaka).

Mend.: "dirurik estekola ta beti erostaka ta majo doa bakasiñoatan!"

Form. land.: dirurik ez daukala eta beti erostaka eta majo doa oporretan!

ERPE/erpié: 1ª Izen arrunta. Edozein landara zein zuhaitzen sustriak (Azk.-). 2ª Izen arrunta. Hegazti zein narraztien atzapar zorrotzak. (Azk. Erpe, 1ª).

Mend.: "orrek aretxak dekos erpe lusiek!"

Form. land.: horrek haritzak daukoz erpe luzeak!

ERRADA/errádié: Izen arrunta. Baldea. (Azk. Errada, 2ª).

Mend.: "erradan ur apur bet ekar bide iturritik!"

Form. land.: erradan ur apur bat ekarri behar da iturritik!

ERREBESA/errebésie: Izen arrunta. Urdailean dagoena indarrez ahotik jaurti. (Azk. Errebesa, 3ª).

Mend.: "es eitzesu umieri jatekorik geiyau emon, errebesie botako deu ostantzien!"

Form. land.: ez eiozu umeari jatekorik gehiago emon, errebesie botako dau ostantzean!

ERREMENDADA/erremendadié: Izen arrunta. Antzinako denboretan, nahi zuten baserritarrek erremendade bat osatzen zuten, eta txahal txarri edo beste animalien bat hil ezkerroan erremendadeko norbaiti, kide guztien artean ordaintzen zioten galtzearen balioa. (Azk.-).

Mend.: "antxiñe ainbet ausotan egoten san erremendadie!"

Form. land.: antzina hainbat auzotan egoten zan erremendadie!

ERRESPA/erréspie: Izen arrunta. Haserre gogorra eta bizia erakutsi, bronka. (Azk. Errezpe).

Mend.: "geur goixien aittek errespe itzela botasku!"

Form. land.: gaur goizean aitak errespe itzela bota dausku!

ERRETEN/errétena: Izen arrunta. Euri asko egin ondoren ura bideratuta joan daiten, soroan egiten diren karkaba batzuk, bestela ereindakoa urak herrestan eramango luke. (Azk. Erreten, 1ª).

Mend.: "naboa ereiñ dan soloan atara biko die erretenak!"

Form. land.: naboa erein dan soloan atara beharko dira erretenak!

ERRETURA/erreturié: Izen arrunta. Ortuan ateratzen diren bedarrak erretzeko bertan baratzean egiten den sua, astiro erretzen dira belar txar, lur eta dena nahasean. (Azk. Erretura).

Mend.: "geur erreturie eiñ bide an soloa dausen bedarrak eta erretako!"

Form. land.: gaur erreturie ein behar da han soloan dagozan bedarrak eta erretako!

ERREYETA/erreyetié: Izen arrunta. Burruka. (Azk. Errierta).

Mend.: "estot gure geiyau erreyetarik eiñ deixuen gero!"

Form. land.: ez dot gura gehiago erreyetarik ein dagizuen gero!

ERRIME/errimé: Adberbioa. Dexente, nahiko, bastante. (Azk. Errime, 2ª).

Mend.: "ongo errime jan be engo sendun asi sarenetik esta?"

Form. land.: oraingo errime jan be eingo zenduen hasi zarenetik ez da?

ERRIPA/erripié: Izen arrunta. Aldats edo gorakada handiko eremuak. (Azk. Erripa).

Mend.: "or erripen bedarra ebatie esta erresa gero!"

Form. land.: hor erripen bedarra ebatea ez da erraza gero!

ERROI/erroié: Izen arrunta. Belea. Hegazti beltzbeltza, arto denporan baserritarren etsaia, batez ere artoa ernaminean dagoenean. (Azk. Erroi, 1ª).

Mend.: "an gure artotzan erroi pilloa ikusiot gero!"

Form. land.: han gure artotzan erroi piloa ikusi dot gero!

ERROMARA/erromarié: Izen arrunta. Ganadua mendian edo landetan egoteko hesiak egiten dira, hesiok ixteko erabiltzen den egurrezko itxiera da erromara. (Azk. Erromaraesi).

Mend.: "erromarie ondo itxi bide ostantzien laster urtengo dabe beiyek!"

Biz.: erromarie ondo itxi behar da ostantzean laster utengo dabe behiak!

ERROTARRI/errotárriyé: Izen arrunta. Artoa, garia zein beste garau mota batzuk ehotzeko erabiltzen zen harria. (Azk. Errota-harri).

Mend.: "oniño errotarri batzuk badaus martxan gero!"

Form. land.: oraindik errotarri batzuk badagoz martxan gero!

ESAMES/esámesa: Izen arrunta. Berriketari edo marmarrean aritu. (Azk. Esamesa).

Mend.: "esames ugeri dabil jentiek aspaldi onetan!"

Form. land.: esames ugari dabil jenteak aspaldi honetan!

ESEUPIDE/eseupidié: Izen arrunta. Nahiz eta lagun minak izan ez, norbaiten bitartez ezagutzen den pertsonaz esaten da. (Azk. Ezaupide, 1ª).

Mend.: "beti izaten da ona eseupiden bat eukittie!"

Form. land.: beti izaten da ona eseupiden bat eukitzea!

ESI/esié: Izen arrunta. Behiek edo idiek tiratuta, soroa goldatzeko erabiltzen zuten tresna. Egurrezkoa zen eta burdinezko pala bat zuen lurra mugitzeko. (Azk. Esa).

Mend.: "esias mañabat bier eiñ gendun geure denporan guk!"

Form. land.: esias makina bat behar egin genduan gure denporan guk!

ESKAPLIDOR/eskaplidorá: Izen arrunta. Orrazia. (Azk.-).

Mend.: "orrasi ixtue san da eskaplidoras ulie orrastie minberie ixeten san!"

Form. land.: orrazi estua eta eskapidoras ulie orraztea minberea izaten zan!

ESKAPOLOT/eskapolotá: Izen arrunta. Antzinakoek erropa zein janaria gordetzeko erabiltzen zuten armairua. (Azk.-).

Mend.: "oniño etze askotan konserbetan dies eskapolotak!"

Form. land.: oraindik etxe askotan kontserbatzen dira eskapolotak!

ESKETA/eskétie: Aditza. Gauzak azaltzeko eta, hitz egiteko erraztasun handia duenaz esaten da. (Azk.-).

Mend.: "persona batzuk esketa itzela eukitten dabe berbetako!"

Form. land.: pertsona batzuk esketa itzela eukitzen dabe berbetako!

ESKILLASO/eskillásoa: Izen arrunta. Tamainuan belearen antzeko hegazti mota, baina bere lumak kolorekoak dira, zuria, urdina, marroia... (Azk. Eskilaso).

Mend.: "iges da eurton estogu madaririk euki eskillasoak eroan dabez danak!"

Form. land.: iaz eta aurton ez dogu madaririk euki eskillasoak eroan dabez danak!

ESKILLLOI/eskilloyé: Izen arrunta. Herriko jaietan, eguerdiko hamabietan edo ordu bietan zein iluntzetan jotzen ziren kanpaiak, herri batzuetan oraindik jarraitzen dute ohiturarekin. (Azk. Ezkilon, 2^a).

Mend.: "eurton be Mendatan jaiyeta jo dabe eskilloye!"

Form. land.: aurton be Mendatan jaietan jo dabe eskilloye!

ESKLIMIÑ/esklimiñé: Izen arrunta. Ez da bai da edo hizketaldi izkanbilatsua. (Azk.-).

Mend.: "orrek dabillen esklimiñas ... bat joango da orra!"

Form. land.: horrek darabilen esklimiñas ... bat joango da horra!

ESKO/eskoá: Adjetiboa. Hezea, humedoa. (Azk. Ezko, 2^a).

Mend.: "orrek erropak oniño esiñ leis batu eskoak daus de!"

Form. land.: horrek erropak oraindik ezin leikez batu eskoak dagoz eta!

ESKOTIEN/eskotién: Adberbioa. Esate baterako lagun kuadrila bat egun pasa goazenean kaja egiteko denok jartzen dugu diru kantitate kopuru berdina, eta zerbait erosi edo egitekotan hortik dirutik hartuko dugu. (Azk.-).

Mend.: "bakotxa berie pagetan ibilli bierrien obeto dirue eskotien ipiñi!"

Form. land.: bakotxa berea pagatzen ibili beharrea hobeto dirua eskotien ipini!

ESKUBARA/eskubárie: Izen arrunta. Batez ere belarra biltzeko erabiltzen den lanabesa. (Azk. Eskubera).

Mend.: "ekarxu eskubarie orrek bedar apurriyek batzeko!"

Form. land.: ekarri eizu eskubarie horrek bedar apurrak batzeko!

ESKUBITTOR/eskubíttorra: Adjetiboa. Eskutur sendoa. (Azk. Eskubitor).

Mend.: "orrek dekon eskubittorras iñyerra be tamañukoa euko deu!"

Form. land.: horrek daukon eskubittorras indarra be tamainukoa eukiko dau!

ESKURTI/eskurdiyé: Aditza. Gari artean ateratzen diren bedar txarrak kentzeari deitzen zaio honela. (Azk. Esku-urteian).

Mend.: "mañabat eskurti eiñeikoa banas ni gari artien!"

Form. land.: makina bat eskurti einikoa banaz ni gari artean

ESKUSEL/eskuselá: 1^a Izen arrunta. Eskaileretako baranda. (Azk. Eskuzal). 2^a Izen arrunta. Baserrietan bigarren solairuan, logela eta egongelaz aparte dagoen sarrera modukoa. *Eskillaburu* izenaz ere ezagutzen da. (Azk.-).

Mend.: "eskuselari oratute joan ostantzien jeusiko sara ta!"

Form. land.: eskuselari oratuta joan ostantzean jausiko zara eta!

ESPEL/espelá: Adjetiboa. Ahula, eta gizarajoa denaz esaten da. (Azk.-).

Mend.: "ori neskie tamañuko espela badaul!"

Form. land.: hori neskea tamainuko espela badago!

ESPOKETAN/espóketan: Aditza. Korrikaldi bat egin ondoren arnasa hartzea kostatzen egiten denean. (Azk.-).

Mend.: "geur espoketan eldu nas trenera, galdu enbitala pentsot!"

Form. land.: gaur espoketan heldu naz trenera, galdu ein behar dodala pentsau dot!

ESTEGU/estegué: Izen arrunta. Adibidez bazkaritan edo afaritan norberak gogoko dituen jakiak egoten direnean gustora jaten denean benetako *estegua* izan duela esaten da. (Azk.-).

Mend.: "ollaskoa ipiñ yot beskaritteko ta selako estegue euki daben sure semiek!"

Form. land.: oilaskoa ipini dot bazkaritarako eta zelako estegue euki daben zure semeak!

ESTERIYO/esteriyoa: Izen arrunta. Metro kubiko baten sartzen den egur kantitatea. (Azk.-).

Mend.: "entresakie eiñ geu de ainbet esteriyo egon die pentzeu es arren be!"

Form. land.: entresaka ein dogu eta hainbat esteriyo egon dira pentsatu ez arren be!

ESTITTU/estittú: Aditza. Esate baterako fruta arbola batean beste zuhaitz mota baten injertoa egin. (Azk. Eztitu, 3^a)

Mend.: "orixe sagar klasie estitu bieu estekeu tel!"

Form. land.: horixe sagar klasea estittu behar dogu ez daukagu eta!

ESTO/estoá: Izen arrunta. Soroan *sokilak* (Ikus. Sokill) apurtzeko arien (Ikus. Ariek) azpikaldean jartzen zen zumetzezko tresna bat. (Azk. Esto, 3^a).

Mend.: "estoa be konpondu biko da ariekas sokillek apurtu bier badie!"

Form. land.: estoa be konpondu beharko da ariekaz sokilak apurtu behar badira!

ESTRAMIÑA/estramiñie: Izen arrunta. Ganaduak belar zikua jateko luzetara eginiko aska moduko bat, aska honetara heltzeko egurraz eginiko zulo batetik pasatzen zuten burua. (Azk. Estramiña)

Mend.: "estramiñek be apurtute daus de biyer edo ipiñ biko dies ondo!"

Form. land.: estramiñek be apurtuta dagoz eta bihar edo ipini beharko dira ondo!

ESTRONKADA/estronkadié: Izen arrunta. Edozein jatordutuan behar den baino gehiago jan eta egon ezinean jarri, hau da, tripakada. (Azk.-).

Mend.: "atzo estronkada itzela eiñ naben da geur es noa askorik jaten!"

Form. land.: atzo estronkada itzela ein neban eta gaur ez noa askorik jaten!

ETXAI/etxaiyé: Izen arrunta. Esate baterako terreno aldapatsu bat laututa jarri nahi denean

beste toki batetik ekartzen da lurra, eta beste toki batetik ekarri den lur horri deitzen diote baserritarrek honela. (Azk.-).

Mend.: "orra be etxai pillo galantak ekarri dabet nunundik!"

Form. land.: horra be etxai pilo galantak ekarri dabet nonbaitetik!

ETZABURU/etzaburué: Izen arrunta. Baserri etxearen inguruan dauden terrenoei deitzen zaie honela. (Azk. Etsaburu).

Mend.: "or etzaburuén dekeus beiyek da laster kortara sartu biko die!"

Form. land.: hor etzaburuén daukaguz behiak eta laister kortara sartu beharko dira!

ETZANDERA/etzanderié: Izen arrunta. Esate baterako baserri edo basakorta baten jabeak emakumezkoak direnean honela deitzen zaizkie. (Azk. Etsandera).

Mend.: "antziñe aselako etzanderak egoten sien gero!"

Form. land.: aintzina zelako etzanderak egoten ziran gero!

ETZE-KAPELA/etzé-kápelie: Izen arrunta. Edozein eraikuntzako teilatuak izaten duten ertz irtena. (Azk.-).

Mend.: "eurtongo udan etze kapelie arregleu biko da ittugiñek daus de!"

Form. land.: aurtongo udan etze kapelie arreglau beharko da itoginak dagoz eta!

EULE/eulié: Izen arrunta. Lihoak izaten dituen trukutzak apartatzeko erabiltzen zuten egurrezko tresna. Orain guztiz galduta dago. (Azk. Eule).

Mend.: "oiñ eulerik inun egon be estau!"

Form. land.: orain eulerik inon egon be ez dago!

EUNTEI/eúnteiye: Izen arrunta. Behi edo zaldiak ferratzeko kaxa estiloko batean lotuta jartzen ziren ez mugitzeko, kaxa horri deitzen zien honela. (Azk.-).

Mend.: "eunteiye ondo lotute ipiñi esien nok ikusi apatxa beiyeri!"

Form. land.: eunteiye ondo lotuta ipini ezean nork ikusi apatxa behiari!

EUNTZERRIÑ/euntzerriñé: Izen arrunta. Normalean behiak izaten duten gaixotasuna. Behia esnerik gabe gelditzen da eta errapea gogortzen zaio. (Azk.-).

Mend.: "bei bet kendu bierra egongo da euntzerriñas dau te!"

Form. land.: behi bat kendu beharra egongo da euntzerriñas dago eta!

EUPADA/eupadié egin: Aditza. Norbaiti deitu. (Azk. Aupa).

Mend.: "neuk engotzet eupada bat ia siñera badator gugas!"

Form. land.: nik eingo dautset eupada bat ia zinera badator gugas!

EUPES/eúpesa: Izen arrunta. Esate baterako asko jan ondoren izaten den betekada eta egon ezina. (Azk. Aupats).

Mend.: "geur itzelgarrisko eupesagas nau atzo larrei jan naben aparitten da!"

Form. land.: gaur itzelgarrizko eupesagas nago atzo larregi jan neban afaritan eta!

EUPESARTU/eupesartú: Aditza. Neguko egunetako egun lainotsu eta ilunetaz esaten da. (Azk.-).

Mend.: "gaba lantxik eupesartu deu egune!"

Form. land.: gaba bezala eupesartu dau eguna!

EUSI/eusí: Aditza. Apurtuta, hautsita. (Azk. Ausi, 1^a).

Mend.: "arratsaldeko aixiek arbolak eusitte itxi deus!"

Form. land.: arratsaldeko haizeak arbolak eusitte utzi ditu!

EUSITTU/eusittú: Aditza. Eguraldiak hotzetik epelera jotzen duenean esaten da. (Azk. Ausitu).

Mend.: "atzo arratzaldetik geurrera asko eusittu deu otza!"

Form. land.: atzo arratsaldetik gaurrera asko eusittu dau hotza!

EUSPES/euspés: Adberbioa. Ahoz behera etxanda hartzen den posturari deitzen zaio. (Azk. Auspaz).

Mend.: "geur gabas euspes eiñ yot lo!"

Form. land.: gaur gabaz euspes ein dot lo!

EUSTU/eustú: Aditza. Txikitu, apurtu, birrindu, hauts egin zerbait. (Azk. Austu).

Mend.: "nire lagun batek asidente bat euki deu eta kotxie eustute gelditu yako!"

Form. land.: nire lagun batek istripu bat euki dau eta kotxea eustute gelditu jako!

F

FARDEL/fardelá: Adjetiboa. Pertsona geldoa, tentela eta ezergatik arduratzen ez denaz esaten da. (Azk. Fardel, 2^a).

Mend.: "aspaldiyon fardeldute saus su be gero!"

Form. land.: aspaldion fardeldute zagoz zu be gero!

FLANILL/flanillé: Izen arrunta. Flana (budin) baino zerbait likidoagoa, esnez, arraultzez eta azukrez eginiko gozokia. (Azk.-).

Mend.: "esne asko dau sobran da biyerko flanille edo ein biko da!"

Form. land.: esne asko dau sobran eta biharko flanille edo ein beharko da!

FRANTZES-BEDAR/frantzésbedarrá: Izen arrunta. Abuztuan ereiten den bedar mota. Ganaduari forraje bezala ematen zaio, oso ona baita. (Azk. Prantzes-bedar).

Mend.: "frantzesbedarra ekar bide beiyeri emoteko arratzaldien!"

Form. land.: frantzesbedarra ekarri behar da behiei emoteko arratsaldean!

G

GALBAI/gálbaye: Izen arrunta. Artza (Ikus. Artza) baino modernoagoa da, indabak zein artoa garbitzeko oraindik baserritar askok erabiltzen duen, sarez eta egurrez egindako iragaztontzi moduko bat. (Azk. Galbe, 1^a).

Mend.: "galbaye ekar bide kamaratik inyabie garbittu biot eta!"

Form. land.: galbaye ekarri behar da kamaratik indaba garbitu behar dot eta!

GALDAILLE/galdáillie: Izen arrunta. Lehenagokoak beheko suan esnea egosteko erabiltzen zuten burdinezko lapiko handia. (Azk.-).

Mend.: "ekarxu galdaille laratzien esnie egosten ipiñtteko!"

Form. land.: ekarri eizu galdaille laratzean esnea egosten ipintzeko!

GALDALLERA/galdallerié: Adjetiboa. Hitz asko egitea gustatzen zaion emakumeaz esaten da. Gizonezkoa izan ezkeru *galdallerue* dela esango genuke. (Azk.-).

Mend.: "ori andrie baño galdalleriaurik estau!"

Form. land.: hori andrea baino galdalleriaurik ez dago!

GALDA/galdié: Izen arrunta. Berotasun handia, eguzkiak edo suak sortu dezakeena. (Azk. Galda, 2^a).

Mend.: "au eskatza galdan dau da edei bentanan bat edo!"

Form. land.: hau eskaratza galdan dago eta ireki bentanan bat edo!

GALDARA/galdárie: Izen arrunta. Baldea. Esate baterako ur esnea edo beste edozein likido garraiatzeko ontzia. (Azk. Galdara).

Mend.: "ekarxu ona ori esnias dauen galdarie!"

Form. land.: ekarri eizu hona hori esneagaz dagoen galdarie!

GALERREN/galérrena: Izen arrunta. Adibidez udan izaten diren egun beroak. (Azk.-).

Mend.: "geur dau egoteko gallerrena, kanpoa dana erreta itxi deu!"

Form. land.: gaur dau egoteko gallerrena, kanpoa dana erreta itxi dau!

GALLAPARDA/gallapárdie: Adjetiboa. Hitz egiterakoan oihu edo garrasi handiak egiten dituen emakumeaz esan ohi da. Gizonezkoa izan ezkeru *gallapardoa* dela esango genuke. (Azk.-).

Mend.: "andrie su sara gallapardie!"

Form. land.: andrea zu zara gallapardie!

GALLEKIYO/gallekiyoá: Izen arrunta. Belar mota. (Azk.-).

Mend.: "aspaldiyon estabe bedar berderik be jan da gallekiyoa ekar bitziet txalari!"

Form. land.: aspaldion ez dabe bedar berderik be jan eta gallekiyoa ekar behar dautsiet txahalai!

GALTZARPE/galtzárpie: Izen arrunta. Besapea. Beso azpian dagoen husgunea. (Azk. Galtzarpe).

Mend.: "galtzarpien grano batek urteste!"

Form. land.: galtzarpien grano batek urten daust!

GANBELA/ganbelié: Izen arrunta. Ganadurari pentsua ematen zaion zurezko kaxa bati deitzen zaio honela. (Azk. Ganbela, 1^a).

Mend.: "ganbelie be apurtute dau te konpondu biko da beiyeri jaten emon orduko!"

Form. land.: ganbelie be apurtuta dau eta konpondu beharko da behiai jaten emon orduko!

GANGAR/gangarrá: 1^a Izen arrunta. Hegazti batzuk buru gainean izaten duten haragizko irtenunea. Kolore gorriska izaten du. (Azk. Gangar, 1^a). 2^a Pertsona oso zaratatsu eta izkanbilatsuz esaten da. (Azk.-).

Mend.: "orrek olloak tamañuko gangarra badeko gero!"

Form. land.: horrek oiloak tamainuko gangarra badauka gero!

GANGUX/ganguxé: Adjetiboa. Oso berbalduna, bizia eta zerbait gangarra denaz esaten da. (Azk.-).

Mend.: "ni esese zu be selako ganguxe sarien!"

Form. land.: ni ezeze zu be zelako ganguxe zarean!

GANILL/ganillé: Izen arrunta. Artoak izaten duen lorea. (Azk. Ganil).

Mend.: "eurton artoak iños baño ganill geiyau dekola esan lei!"

Form. land.: aurton artoak inoiz baino ganill gehiago daukola esan leike!

GANTZARI/gantzariyé: Izen arrunta. Animalia batzuk, batez ere txerriak izaten duten kolore zuri edo horiskako gai koipetsua. Orain bere erabilgarritasuna asko gutxitu da baina lehen janariak prestatzeko eta txerriak kontserbatzeko asko erabiltzen zen. (Azk. Gantzagi, 1^a).

Mend.: "len gantzariyek urtu niko koipias txoixoak eukitten sien urte gustiyen!"

Form. land.: lehen gantzariyek urtutako koipeagaz txorizoak eukiten ziran urte guztian!

GARAN/garaná: Adejtiboa. Baserritarrek soroetako lur solte eta arinei deitzen die honela. (Azk.-).

Mend.: "eurton gurien lur garan garanak dekeus!"

Form. land.: aurton gurean lur garan garanak daukaguz!

GARDA/gardié: Izen arrunta. Artilea kardatzeko kardama. (Azk. Garda, 3^a).

Mend.: "garda barriye be erosi biko da lanie kardeu gure bada!"

Form. land.: garda barria be erosi beharko da lanea kardau gura bada!

GARDOSTU/gardostú: Aditza. Esate baterako janarien bat guztiz egosi gabe uztea, hau da, ur berotan sartu eta atera bat eginda dagoena. (Azk.-).

Mend.: "txoixoak apur bet gardostute gosoak egoten die!"

Form. land.: txorizoak apur bat gardostute gozoak ego-ten dira!

GARA/gárie: Izen arrunta. Artoak izaten duen lorea. (Azk. Gara, 7^a).

Mend.: "gara asko ikusten da eta ixen lei ainbet arto ixetie!"

Form. land.: gara asko ikusten da eta izan leike hainbat arto izatea!

GARI-TALO/garí-táloa: Izen arrunta. Gari urunaz egindako taloa. (Azk. Gari+Talo).

Mend.: "ainbet garitalo jan gendun gaste denporan!"
Form. land.: hainbat garitalo jan genduan gazte denporan!

GARO/garoá: 1^a Izen arrunta. Euri fina edo zirimiria. (Azk.-). 2^a Izen arrunta. Landareek, euria fin fin bota ondoren, edo goizean zein iluntzetan izaten duten ura. (Azk. Garo, 2^a).

Mend.: "gabaz freskurie eiñ yeu garo andiye dau te!"
Form. land.: gabaz freskurea egin dau garo handia dau eta!

GAR/garrá: Izen arrunta. Egurra zein beste edozer erretzen dagoenean, behetik gorantza ateratzen den masa bero eta argitsua. (Azk. Gar, 1^a).

Mend.: "geur geuse sarrak erretan egon gara ta selako garrak urten daben!"
Form. land.: gaur gauza zaharrak erretan egon gara eta zelako garrak urten daben!

GARRAGARRILL/garragarrill: Izen arrunta. Uztaila. (Azk. il, 5^a Garragarilla).

Mend.: "garragarrillen ainbet bier dau baserriyen!"
Form. land.: garragarrillen hainbat behar dau baserrian!

GARRAPILLEU/garrapílleu: Aditza. Bukatu. (Azk.-).

Mend.: "daborduko majo garrapilleuko basen amak emoniko diruek!"
Form. land.: dagoeneko majo garrapilleuko ebazan amak emondako diruak!

GARRASPIYO/garraspiyoá: Adjetiboa. Janariak alperrik galtzen edo oraindik guztiz heldu gabe daudenean izaten duten zapore mingotsa. (Azk. Garratz, 1^a).

Mend.: "ori sagarra eldu barik dau garraspiyoa eukotzu!"
Form. land.: hori sagarra heldu barik dau eta garraspiyoa eukiko dautsu!

GARTZELAI/gartzélai: Adjetiboa. Behi bat gartzelaia dela esaten dute baserritarrek behi horren lepoa konkaboa denean. (Azk.-).

Mend.: "guk geuk euki gendun bei gartzelaiye da esnetsue ixen san gero!"
Form. land.: guk geuk euki genduan behi gartzelaiye eta esnetsua izan zan gero!

GASATU/gasatú: Aditza. Gatz asko duen janari bati, adibidez makailua, txerrikia edo zezinari uretan jarriz gatz kendueraztea. (Azk.-).

Mend.: "makillaba geiyau gasatu bide, gatz asko deko ta!"
Form. land.: makailoa gehiago gasatu behar da, gatz asko dauka eta!

GASIGARRI/gasigarrí: Izen arrunta. Pernila, makailoa edo sardina zaharra dira jateko gazigarriak, jan eta gero egarria ematen dutenak. (Azk. -).

Mend.: "estosu gasigarririk be jan olako egarriye eukittek ba!"
Form. land.: ez dozu gasigarririk be jan horrelako egarria eukittek ba!

GASI-GASAN/gasí-gasán: Adjetiboa. Janariak gazi edo geza dauden jakiteko probatu. (Azk. Gazigazan).

Mend.: "probeixu ori iñyabie gasi-gasan selan daben!"
Form. land.: probatu eizu hori indaba gasi-gasan zelan dagoen!

GASTANUR/gastánure: Izen arrunta. Gazta egin ondoren gelditzen den ura. (Azk.

Gaztanur).

Mend.: "gastanure txarriyeri asko gustetan yakie!"

Form. land.: gastanure txarriai asko gustetan jake!

GATZONASKA/gatzonáskie: Izen arrunta. Txerrikiak eta gatzetan edukitzen diren tokia (aska). (Azk. Gatzunaska).

Mend.: "gatzonaskatik atara biko die pernillek laster!"

Form. land.: gatzonaskatik atara beharko dira pernilak laster!

GEIXIE/geixié: Izen arrunta. Gerizpea, itzala. (Azk. Geriza, 1^a).

Mend.: "orrek arboliek geixe andiye eitten deu!"

Form. land.: horrek arboleak geixe handia eiten dau!

GEIXU/géixu baten: Adberbioa. Berehala edo laster. (Azk.-).

Mend.: "trankill egon xais, neu joango nas geixu baten ori errekadue eitten da!"

Form. land.: trankil egon zaitetz, ni joango naz geixu baten hori errekadua eiten eta!

GELDUREN/geldurená: Adjetiboa. Oso nerbiosoa eta asko mugitzen den pertsonaz esaten da. (Azk.-).

Mend.: "esiñ geldi egon, su sara geldurena mutill!"

Form. land.: ezin geldi egon, zu zara geldurena mutill!

GERAKA/gerakié: Adjetiboa. Urduria, bizia eta beti hara eta hona gelditu gabe dabilena. (Azk. Geraka).

Mend.: "guk iru ume euki geus da irurek bata bestie baño gerakiabak!"

Form. land.: guk hiru ume euki doguz eta hirurak bata bestea baino gerakiabak!

GELBEN/gelbená: Adjetiboa. Pertsona erdi geldo edo ketoa denaz esaten da. (Azk.-).

Mend.: "ori personie baño gelbenaaurik esin lei topeu munduen!"

Form. land.: hori personea baino gelbenaaurik ezin leike topau munduan!

GILBERATU/gilberatú: Aditza. Kili kilitu. (Azk. Gilbera)

Mend.: "orrek beiyek be badekos granoan batzuk errapien gilberatute dau te!"

Form. land.: horrek behiak be badaukaz granoren batzuk errapean gilberatute dago eta!

GILBOR/gilborrá: Izen arrunta. Sabel handia. (Azk. Gilbor, 1^a).

Mend.: "ori da ixeteko gilborra orrek dekona!"

Form. land.: hori da izateko gilborra horrek daukana!

GILLE/gillé: Izen arrunta. Itsasontzi bat egiten hasterakoan lehenengo jartzen den egurra, normalean haritzaz egindakoa da, gero beronen alde batetik eta bestetik egurrezko saiheitsak jarriz itsasontziari gorputza ematen zaio. (Azk. Gila, 1^a).

Mend.: "oiñ be eguresko barku txikitxueritte gille ipintten yakie!"

Form. land.: orain be egurrezko barku txikitxuai eta gille ipintzen jake!

GIÑERRA/giñerrié: Izen arrunta. Zuhaixka labur eta nahaspilatua. Nahiko sendoa denez eskoben orraziak egiteko erabiltzen zen aintzina. (Azk. Giñarra, 1^a).

Mend.: "giñerrias eskoban punttek eitten gendusen aintziñe!"

Form. land.: giñerrias eskoben puntak eiten genduzan aintzina!

GISELAN/giselaná: Izen arrunta. Neurri mota bat, hektarea bat baino zerbait laburragoa da, baserri giroan asko erabiltzen den hitza. (Azk.-)

Mend.: "giselan bi tte erdi dekotas piñu sartunde!"

Form. land.: giselan bi eta erdi daukodaz pinu sartuta!

GIYERRA/giyerrié: Izen arrunta. Koipe edo grasa gutxiko haragia. (Azk. Giyerra, 1^a).

Mend.: "eurton il geun txarriyek giyerra ugeri euki deu!"

Form. land.: aurton hil dogun txerriak giyerra ugari euki dau!

GIYEU/giyeuú: Aditza. Esate baterako soloa ariek zein beste tresna batekin pasatzeari eta lurra lehun lehun jartzearen ekintzari honela deitzen diote baserritarrak. (Azk. Gia, 6^a)

Mend.: "etze ondoko soloa giyeuete edarto baten gelditu de!"

Form. land.: etxe ondoko soloa giyeuete ederto baten gelditu da!

GIYE/gíyie: Izen arrunta. Behiak edo txahalak saltzen zirenean hiltegiara eramateko berauon ugazabak udaletxean zein nekazal bulegoetan eskatu behar izaten duen justifikantea animalia-aren datuekin. (Azk.-).

Mend.: "datorren astien eroango dabez txalak eta atara eiñ biko da gíyie!"

Form. land.: datorren astean eroango dabez txahalak eta atara ein beharko da gíyie!

GONBITTU/gonbítue: Izen arrunta. Urdailean daukaguna indarrez ahotik jaurti. (Azk.-).

Mend.: "umie gonbittuke altzeu de geur ogetik eta esta joan eskolara!"

Form. land.: umea gonbittuke altxau da gaur ohetik eta ez da joan eskolara!

GORUETAN/gorúetan: Aditza. Lehenagoko denboretan izarak zein galtzerdiak etxean egiten ziren lihoagaz. Lihoaren prestatze, eta izarak zein galtzerdiak egitearen lan horri deitzen zaio honela. (Azk. Goru).

Mend.: "oiñ goruetarik iñok einbe esteu eitten, dana eiñye erosten geu te!"

Form. land.: orain goruetarik inork ein be ez dau egiten, dana eginda erosten dogu eta!

GORGOLL/gorgollé: Izen arrunta. Laringeak, batez ere gizonezkoetan izaten duen irtenunea. (Azk. Gorgoil, 1^a).

Mend.: "mutil batzuk gorgoll itzela eukitten dabe!"

Form. land.: mutil batzuk gorgoll itzela eukitzen dabe!

GUREIÑE/gúreiñe: Adberbioa. Bazkari, afari zein beste edozein jatordutan ugari jaten denean. (Azk. Guraiña).

Mend.: "atzo gureiñe emoskuen jaten tabernan!"

Form. land.: atzo gureiñe emon euskuen jaten tabernan!

GURGUX/gurguxé: Izen arrunta. Zuhaitz mota bat da, eta normalean bere hostoak *ipitxe* (ikus. ipitx) edo *ipiskiye* egiteko erabiltzen ziren. (Azk.-).

Mend.: "gurguxe ekarbide ipitxe eitteko!"

Form. land.: gurguxe ekarri behar da ipitxe eiteko!

GURI/guriyé: Adjetiboa. Oso biguna eta merdula denaz esaten da. (Azk. Guri, 1^a).

*Mend.: "orrek bedarrak untxe daus **guri-guriyek** beiyeri emoteko!"*

*Form. land.: horrek bedarrak oraintxe daude **guri-guriyek** behiei emoteko!*

GUTERRA/guterrié: Izen arrunta. Jaleoa, nahastea. (Azk.-).

*Mend.: "umieri biyeri erosi geuse bardiñek ostantzien laster atako dabe **guterrie** arek!"*

*Form. land.: umeai bieri erosi gauza bardinak ostantzean laster atarako dabe **guterrie** harek!*

I

IDULI/idulí: Aditza. Beterik dagoen zerbait hustu. (Azk. Iduli).

Mend.: "kendu orreri umieri basoa iduli bideu te!"

Form. land.: kendu orreri umeari basoa iduli behar dau eta!

IDULISTARA/idulistára: Adberbioa. Eratara ez dagoena, adibidez jantzien bat. (Azk. Idulez dara).

Mend.: "ori txamarrie idulistara ipiñitte dekosu da jantzi eratarara!"

Form. land.: hori txamarrea idulistara ipinita daukazu eta jantzi eratarara!

ILLENTZI/illéntziye: Izen arrunta. Beheko suan zein sutondotik hartu daitekeen edozein zozpal zati; normalean zozpal horrek punta erreta izaten du. Antzinako esaerak esaten duenez *illentziyas* jolasean ibiltzen diren haurrek, gauean pixa egiten omen dute ohean. Dirudienez haurrek suarekin jolasean ez ibiltzeko esaten zitzaien hori. (Azk. Illendi).

Mend.: "umieri illentziyas es ibilltuko esaitzesu!"

Form. land.: umeari illentziyas ez ibiltzeko esan eiozu!

INKESA/inkesié: Adberbioa. Pertsonak gaixorik daudenean egiten duten kexazko hotsa. (Azk. Inka, 3^a).

Mend.: "orrexek umiek inkessie eitten deu te kalenturie dekola pentzetan dot!"

Form. land.: horrexek umeak inkessie eiten dau eta kalenturea daukola pentsetan dot!

INPENTZADA/inpentsadié: Adberbioa. Ustekabea, esate baterako norbera zerbait egiten dagoenean, ustekabean harrapatzen dutenean. (Azk.-).

Mend.: "atzo be onek inpentsadan arrapatu nenduen!"

Form. land.: atzo be honek inpentsadan harrapatu ninduen!

INTZEKAR/intzékarra: Izen arrunta. Atzamar puntetan zein orpoetan egiten diren zauritxoak. (Azk. Intzebagi, 1^a).

Mend.: "atzamarretako intzekarrak minberak ixeten die!"

Form. land.: atzamarretako intzekarrak minberak izaten dira!

IÑESTU/iñestué: Izen arrunta. Tximista. (Azk. Oiñestu, 1^a).

Mend.: "itzelesko iñestuek die baya esteu engo euri modurik!"

Form. land.: itzalezko iñestuek dira baina ez dau eingo euri modurik!

INTXONTXA/intxontxié: Adjetiboa. Erreserbatua, ixila eta besteengan oso konfidantza gutxi duenez esaten da. Gizonezkoa *intxontxoa* izango litzateke. (Azk.-).

Mend.: "orrek andriek be ondo ixekera intxontxie deko!"

Form. land.: horrek andreak be ondo izakera intxontxie dauka!

IÑURRIONDO/iñurrióndoak: Izen arrunta. Soro eta landetan, euren habiak egiteko inurriak ateratzen dituzten lur multzotxuak. (Azk. Tsindurri-pila).

Mend.: "ainbet iñurriondo dau or gure basoan be!"

Form. land.: hainbat iñurriondo dau hor gure basoan be!

IPISKI/ipískiye: Izen arrunta. Ogia egin aurretik laba garbitzeko iraz eta zuhaitz hostoekin (gurguxe normalean) preparatzen zuten erramu antzerako bat, gero egurrezko euskarri bat jartzen zien garbitze lan hori errazteko. *Ipitx* izenaz ere ezagutzen da (Azk. Ipizki, 1^a).

Mend.: "ipiskiyekiñ ainbet laba garbitze eitten gendun gastetan!"

Form. land.: ipiskiyekiñ hainbat laba garbitze eiten genduan gaztetan!

IREILL/ireillé: Izen arrunta. Iraila. (Azk. Iraill).

Mend.: "ireillien asten die umiek eskolara!"

Form. land.: ireillien hasten dira umeak eskolara!

IRESI/iresí: Aditza. Edozein likidok izan dezakeen zikina kentzeko iragaztontzi batean pasaerazi. (Azk. Iraisí, 1^a).

Mend.: "ongo umiek estakiye iresi barik esnie be edaten!"

Form. land.: oraingo umeak ez dakite iresi barik esnea be edaten!

IRIBIYEU/iribíyeu: Aditza. Zerbait nahasteko indartsu eragiteari deitzen zaio honela, adibidez arrautzak. (Azk. Irabiatu, 1^a).

Mend.: "tortillie eitteko arrutzek iribiyeu bidies!"

Form. land.: tortilea eiteko arrautzak iribiyeu behar dira!

IROTU/irotú: Aditza. Artoa zein indaba erein ondoren, erne beharrean lurtean ustelduta gelditzen denean, lehortuta bezala. (Azk. Irotu, 2^a).

Mend.: "eurton eiñ yaben siketiegas iñyaba geiyenak irotu dies gurien!"

Form. land.: aurton egin daben siketeagaz indaba gehienak irotu ein dira gurean!

IRRARA/írrara: Adberbioa. Adibidez normalean artoa *potxiak* (zuloak) eginda edo bestela markadoraz lerroak eginda ereiten da, baina batzuetan eskua ahalik eta luzen jarri eta parrastan ereiten da inongo *potxi* edo zulorik gabe, orduan *írrara* erein dela esaten da. (Azk. Irrada, 2^a).

Mend.: "eurton artoa írrara ereiñ bieu iya selan urtetan daben!"

Form. land.: aurton artoa írrara erein behar dogu ia zelan urtetan daben!

IRRITU/irritué: Adjetiboa. Izaera urduri eta biziko pertsona. (Azk. Irritu, 3^a).

Mend.: "ori umie ondo írrittue da gero!"

Form. land.: hori umea ondo írrittue da gero!

IRUKOTX/irúkotxa: Izen arrunta. Lore zuritxoaren duen belar mota. Ganaduak oso gustora jaten omen du. (Azk. Irukots, 2^a).

Mend.: "or landan dauen irukotxa ebai eiñ bide siketute sabaire ekarteko!"

Form. land.: hor landan dagoen irukotxa ebagi ein behar da sikatuta sabaira ekarteko!

IRUNTZ/iruntzé: Izen arrunta. Ihintza. Goizetan zein iluntzetan landaretza eta lurraren gainean biltzen den ur lurrina. (Azk. Iruntz).

Mend.: "geur goixien iruntz itzela egon da!"

Form. land.: gaur goizean iruntz itzela egon da!

IRUORTZ/iruórtza: Izen arrunta. Behiak hartzeko burdin lanabesa. (Azk. Iruortz, 1^a). (Azk. Iurren).

Mend.: "datorren astien egongo da Felixen irurrena!"
Form. land.: datorren astean egongo da Felixen irurrena!

ISAGIÑ/isagiñé: Izen arrunta. Betagina. (Azk.-).

Mend.: "isagiñek danak ustelak euki basen da oiñ ikustekoak dekos!"
Form. land.: isagiñek danak ustelak euki ebazan eta orain ikustekoak ditu!

ISPILL/ispillé: Izen arrunta. Adibidez, behiak zein edozein beste animalia guztiz beltza bada, bere gorputzean batzuk izaten duten beste kolore bateko unada edo motari deitzen zaio honela. (Azk. Izpil)

*Mend.: "askenengo erosi gendun beiye be baltza dalakoan da an deko **ispill** suritxue!"*
*Form. land.: azkenengo erosi genduen behia be baltza dalakoan da han dauka **ispill** zuritxoa!*

ISURRI/isúrriye: Izen arrunta. Pertsonak zein abereak izaten dituzten gurintxa handituak, kiste txikitxoak bezala, batez ere gaztetxoak has-ten daudenean eta izaten dituzte. (Azk. Izurri, 2^a).

Mend.: "isurri bet euki naben da lengunien kendustien!"
Form. land.: isurri bat euki naben eta lehengo egunean kendu eustien!

ITTUGIÑ/ittugiñé: Izen arrunta. Teilatuan zuloan bat egon ezkerro barrukaldera erortzen diren euri tantak. (Azk. Itugin).

*Mend.: "teilletuko **ittugiñe** be konpondu biko da!"*
*Form. land.: teilatuko **ittugiñe** be konpondu beharko da!*

ITTURLARI/itturlariyé: Izen arrunta. *Iturren* (ikus. *Iturren*) egiten zenean, behi eta idiak gidatzen zituen pertsonari honela deitzen zitzaion. (Azk. Itaurleri).

*Mend.: "beiyek eta idiyek eurretik eroateko **itturlari** ona ixen bixetesan!"*
*Form. land.: behiak eta idiak aurretik eroateko **itturlari** ona izan behar izaten zen!*

ITURREN/ittúrren: Aditza. Lehen traktorik ez zegoenean soroak goldatzeko idiak erabiltzen ziren. Behi eta idi horrek gidatzearen lanari deitzen zaio, gidatzailea *itturlaria* da. (Azk. Itaurleri).

*Mend.: " **itturren** eittie esan bier erresa ixeten!"*
*Form. land.: **itturren** eitea ez zan behar erraza izaten!*

IXEKERA/ixekérie: Adjetiboa. Pertsona batek izan dezakeen izakera ibiltzeko edo jokatzeko modua, portaera. (Azk. Izakera).

Mend.: "ixekera petraleko personak be asko daus gero!"
Form. land.: ixekera petraleko personak be asko dagoz gero!

IXENTASIÑO/ixentasiñoá: Izen arrunta. Nonbaitera gonbidatuta zaudenean edo bisita bat egitera goazenean eramaten dugun oparitxoa. (Azk.-).

*Mend.: "bodara eskoas baya **ixentasiñoa** enbiko yakol!"*
*Form. land.: bodara ez goaz baina **ixentasiñoa** ein beharko jakol!*

J

JAKEN/jakená: Adjetiboa. Jaten eskasa denaz esaten da. (Azk. Jakan).

Mend.: "ume batzuk txikitten jakenak ixeten die!"

Form. land.: ume batzuk txikitan jakenak izaten dira!

JALGI/jalgiyé: 1^aAdjetiboa. Eguraldi eguzkitsua, ona. (Azk.-). 2^a Adjetiboa. Pertsona airosoaz eta alaiaz ere esaten da. (Azk.-).

Mend.: "geur benetako eguraldi jalgiye dekeu atzokoan ikusiyen!"

Form. land.: gaur benetako eguraldi jalgiye daukagu atzokoaren ikusian!

JAMON/jámon egin: Aditza. Erantzun, kasu edo jaramon egin. (Azk. Jaramon, 2^a).

Mend.: "orrek umiek telebisíñoa ikusten dabenien jamonik be esteu eitten!"

Form. land.: horrek umeak telebisinoá ikusten dagoanean jamonik be ez dau eiten!

JASO/jasoá: Adjetiboa. Pertsona trebeaz esaten da. (Azk. Jaso, 5^a).

Mend.: "ori bai dala mutil jasoá!"

Form. land.: hori bai dala mutil jasoá!

JAYOTZ/jáyotza: Izen arrunta. Sasiak ebakitzeko zein pinuak gorantz doazenean derdamak ebakitzeko erabiltzen den tresna. Puntan higitaiaren antzerakoa da, handiagoa eta sendoa da eta euskarri luzea dauka zuhaitz altuetara iritsi ahal izateko. (Azk.-).

Mend.: "jayotza artun de geur ebai biko yakies derdamak piñueri!"

Form. land.: jayotza hartu eta gaur ebagi beharko jakez derdamak pinuai!

JITTE/jitté: Izen arrunta. Pertsonak zein animaliak izan dezakeen joera, seta edo mania. Esaten da baita zuhaitz batzuk izaten duten kurbadura edo makurduraz. (Azk. Jit, 2^a).

Mend.: "orrek arboliek orixe jitte artunde deko ta oiñ esiñ lei susendu!"

Form. land.: horrek arboleak horixe jitte hartunda dauka eta orain ezin leike zuzendu!

K

KAIXA/kaixié: Izen arrunta. Zerealak gordetzeko erabiltzen den kaxa handia. Lauki luze itxurakoa eta egurrez egindakoa. (Azk. Kaiza, 1^a).

Mend.: "guk oiñbe antxe dekeu kaixie kamaran!"

Form. land.: guk orain be hantxe daukagu kaixie kamaran!

KAKAPIRRI/kakapírriye: 1^a Adjetiboa. Suminduraz edo haserre bizian dagoen pertsonaz esaten da. (Azk.-). 2^a Izen arrunta. Beheranzkoa. (Azk.-).

Mend.: "su kakapirri galanta sara geldi egoten be estakixu te!"

Form. land.: zu kakapirri galanta zara geldi egoten be ez dakizu eta!

KAKI/kakié: Adjetiboa. Eguraldi txarra dagoela adierazteko erabiltzen da, haizetsua, euritsua, etab... (Azk.-).

Mend.: "geur denporale kakie dekeu!"

Form. land.: gaur denporale kakie daukagu!

KAMIXA/kamíxie: Izen arrunta. Antzinakoak arropen zein jantzien azpitik erabiltzen zuten ehunezko azpikogona edo atorra zuria. (Azk.-).

Mend.: "oiñ kamixerik iñok esteu ibilltten!"

Form. land.: orain kamixerik inork ez dau ibiltzen!

KANA/kanié: Izen arrunta. Lehenagoko denboretan lurralde hauetatik asko hedatua zegoen sagar mota baten izena. (Azk. Sagar, 1^a Kanasagar).

Mend.: "len baserriyetan danetan egoten sien kana arbolak!"

Form. land.: lehen baserrietan danetan egoten ziran kana arbolak!

KANKILL/kankillé: Adjetiboa. Gehiegizko altuera duen itxura baldarreko pertsona zein animaliaz esaten da. (Azk. Kankail).

Mend.: "ori txala kankille da ta esiñ lei asko pageu!"

Form. land.: hori txahala kankille da eta ezin leike asko pagau!

KANPO-ARTO/kanpó-artoá: Izen arrunta. Hemengoa ez den arto barietate bat, hortik datorkio bere izena. (Azk.-).

Mend.: "eurton gupe kanpo-artoá ereiñ geu iya geiyau artzen bada!"

Form. land.: aurton guk be kanpo-artoá erein dogu ia gehiago hartzen bada!

KAÑU/kañué: Izen arrunta. Ganaduaren gernua kanporantz joateko ikuilutik kanporantz egoten den karkaba. (Azk.-).

Mend.: "aspaldiyon garnu asko joan da ta garbittu enbiko die kañuek!"

Form. land.: aspaldian gemu asko joan da eta garbitu ein beharko dira kañuek!

KAPATZ/kápatza: Izen arrunta. Artoa helduta batzerakoan garandu orduko kentzen zaion azala; kapatza ganaduentzako janari moduan erabiltzen da. (Azk. kapatsa, 3^a).

Mend.: "kapatzetan sartunde iños konserbeu die gurien txarriyen txoixoak!"

Form. land.: kapatzetan sartuta inoiz kontserbatu dira gurean txarriaren txorizoak!

KAPARRA/kaparrie: Izen arrunta. Animalia batzuen bizkar gainean bizi den akaroa, eta

berauen odola xurgatuz handitu egiten dena. (Azk. Kapar, 1^a).

Mend.: "orrek saldiyek kaparrak be euko deus!"

Form. land.: horrek zaldiak kaparrak be eukiko ditu!

KAPERIYO/kaperiyoá: Izen arrunta. Teilatueta teila jarri aurretik ipintzen den egurra. Lehenengo *kaperiyoa* jartzen da eta honen gainetik teila. (Azk. Kapirio).

Mend.: "geur arratzaldien kaperiyoa ipin bitzeu teillatueri!"

Form. land.: gaur arratsaldean kaperiyoa ipini behar deusagu teillatuari!

KAPOI/kapoyé: Izen arrunta. Txikitan, gizentzeko irentzen den oilaskoa. Lehenago gabonetako janari tipikoa zen. (Azk. Kapoin).

Mend.: "antziñe gabon gabien kapoye jatesan beti!"

Form. land.: aintzina gabon gabeen kapoye jaten zan beti!

KARABI/karábiye: Izen arrunta. Karea egiteko basoan prestatzen ziren tokiak, karabiondoak. (Azk. Karabi).

Mend.: "karabiyetan karie eiñ eta gero soloetan botaten san lenau!"

Form. land.: karabiyetan karea ein eta gero soloetan botatzen zan lehenago!

KARBURU/karbúrua: Izen arrunta. Argi indarrak ez zegoenean argia egiteko erabiltzen zen tresna. Karbonoa gorputz sinple batekin elkaturik eginiko konbinaketa karburu ontzian jarriz lortzen zuten argia. (Azk.-).

Mend.: "oniño urte asko estala karburua ibilltten san argiye eitteko!"

Form. land.: oraindik urte asko ez dala karburua ibiltzen zan argia eiteko!

KARDULATZ/kardúlatza: Izen arrunta. Soroan zein landan egoten diren arantzadun belar batzuk. (Azk. Kardu, 1^a).

Mend.: "kardulatzakiñ jositte dekeu landie da ebai biko die!"

Form. land.: kardulatzakiñ josita daukagu landea eta ebagi beharko dira!

KARMUKO/karmúkoa: Izen arrunta. Behiak odolean izaten duten gaixotasun kutsakorra . (Azk.-).

Mend.: "beiyek karmukoa euki eskero personari be laster kontagiyetan yakie!"

Form. land.: behiek karmukoa euki ezkeru pertsonai be laster kutsatzen jake!

KARRASKILLO/karraskílloa: Izen arrunta. Zuhaitz mota bat da eta beronen azala egosi ondorengo ura edan ezkeru tentsio arteriala bajatzen dela esaten dute. (Azk.-).

Mend.: "karraskilloan ure ona da tentsiñoa bajatzeko!"

Form. land.: karraskilloan ura ona da tentsioa bajatzeko!

KASKALLU/kaskállue: 1^a Izen arrunta. Ur gosoetako arrain mota bat. (Azk.-). 2^a Adjetiboa. Pertsona bizkor eta biziak esaten da. (Azk. Eskailo).

Mend.: "ainbet kaskallu arrapeu geu errekan!"

Form. land.: hainbat kaskallu harrapau dogu errekan!

KASKONDO/kaskondoá: Adjetiboa. Hamairu, hamalau urteko gaztetxoak esan ohi da. (Azk. Kaskondu).

Mend.: "sure semie be kaskondutxue dau gero!"

Form. land.: zure semea be kaskondutxue dau gero!

KATIETU/katietu: Aditza. Lotu edo engantxatu. (Azk. Katea).

Mend.: "sasiyen katietute geldittu nas basoan!"

Form. land.: sasian katietute gelditu naz basoan!

KATXASA/katxásie: Izen arrunta. Pertsona batek izaten duen ganora edo fundamentua. (Azk.-).

Mend.: "suk dekosun katxasias esiñ lei urrun urrun joan!"

Form. land.: zuk daukazun katxasias ezin leike urrun urrun joan!

KEDAR/kedarié: Izen arrunta. Tximinietan kea pasatzean geratzen den zikinkerri baltza. (Azk. Kedar, 1^a).

Mend.: "tximiniye garbittu enbikeu ainbet kedarra deko ta!"

Form. land.: tximinia garbitu ein beharko dogu hainbat kedarra dauka eta!

KEJURA/kejurié: Izen arrunta. Gaixotasunaz zein min hartu ondoren izaten den molestia edo pena, kejaz egon. (Azk.-).

Mend.: "egon esiñik dau ori umie ta badeko kejuren bat!"

Form. land.: egon ezinik dau hori umea eta badauka kejuren bat!

KELEBETRO/kelebétroa: Adjetiboa. Ganora eskaseko eta albo-alboka dabilenez esaten da. (Azk.-).

Mend.: "oiñ ainbet kelebetro ikusten da kaltetan be bape ganora barik!"

Form. land.: orain hainbat kelebetro ikusten da kaleetan be bat be ganora barik!

KETO/ketoá: Adjetiboa. Pertsona motela edo geldoaz esaten da. (Azk.-).

Mend.: "ongo gastiek keto garbiyek dies bape odolik estekie!"

Form. land.: oraingo gazteak keto garbiak dira bat be odolik ez daukate!

KEUEGANERA/keueganerá: Adberbioa. Urrun joan behar duzula adieratzeko erabiltzen da. (Azk.-).

Mend.: "nora joan bisu arratzaldien ba?" lekuteko aman etzera, keueganera!

Form. land.: nora joan behar dozu arratsaldean ba? lekuteko amaren etxera, keueganera!

KIKERA/kikérie: Izen arrunta. Edateko erabiltzen den euskarridun ontzi txikitxo. (Azk.-).

Mend.: "ekarristesu kikerie ure edan deitan!"

Form. land.: ekarri eidazu kikerie ura edan deitan!

KINKOMOYO/kínkomoyo: Adberbioa. Ederto, polito, dotore, egoki edo oso ondo egin dela, ibili dela, ... adierazten du. (Azk.-).

Mend.: "kinkomoyo ibilliko siñien bijan esta?"

Form. land.: kinkomoyo ibiliko zineten bidaian ez da?

KIKILLTTU/kikillttú: Aditza. Gauza bat egiteko lehenengo prest egon eta gero atzerantz botatzea. (Azk. Kikildu).

Mend.: "kotxe barriye erosi bidabela jo ta ke ibilli de or da kikillttu de askenien!"

Form. land.: kotxe barria erosi behar dabela jo eta ke ibili da hor eta kikillttu da azkenean!

KINTZENA/kintzénie: Izen arrunta. Lan egin eta hilabetearen azkenean kobratzen den pagari deitzen zaio honela. (Azk.-).

Mend.: "geur dakat kintzenie etxera!"

Form. land.: gaur dakart kintzenie etxera!

KIRIKOLATZ/kirikólatza: Izen arrunta. Gorputzaren goikaldea punta gogorrez beterik duen marrazkari intsektujalea. (Azk. Kirikiño, 1^a).

Mend.: "kirikolatz bi egon die geur soloan!"

Form. land.: kirikolatz bi egon dira gaur soloan!

KIRIMILLETU/kirimíletu: Aditza. Kiribildu. (Azk. Kirimilatu, 2^a-3^a).

Mend.: "sokie kirimilletute dekot eta esiñ yot solteu be!"

Form. land.: sokea kirimilletute daukat eta ezin dot soltau be!

KIRREUE/kirreué: Aditza. Esate baterako ile kirimilatua. (Azk. Kiribillau).

Mend.: "orrek umiek deko ule kirreue!"

Form. land.: horrek umeak dauka ile kirreue!

KIRRISKADA/kirriskadié: 1^a Izen arrunta. Gauzak apurtu zein lehertzen direnean sortzen duten hots zakarra. (Azk. Kirrizka). 2^a Izen arrunta. Hortzak bata bestearen kontra ikutzean ateratzen duten hotsa. (Azk. Kirrizka).

Mend.: "exixu agiñekiñ olako kirriskadarik atara!"

Form. land.: ez eizu haginekin horrelako kirriskadarik atara!

KISKOLDU/kiskoldú: Aditza. Larregi frijitu edo erre. (Azk. Kiskortu).

Mend.: "niri okelie larrei kiskoldu barik gustetan yate!"

Form. land.: niri okelea larregi kiskoldu gabe gustatzen jata!

KODAIÑA/kodaiñié: Izen arrunta. Belarra ebakitzeko erabiltzen den tresna. (Azk. Kodaiña).

Mend.: "kodaiñie be mostute dau te sorrostu eiñ biko da!"

Form. land.: kodaiñie be moztuta dago eta zorroztu ein beharko da!

KONDO/kóndoa: 1^a Izen arrunta. Zerbait erabili ondoren bertatik geratzen den zatitxoa edo hondakina. (Azk. Kondo). 2^a Adjetiboa. Haurrak txikiak direnean honela deitzen zaie. (Azk.-).

Mend.: "su oniño ume kondoa sara bakasiñoatan bakarrik joateko!"

Form. land.: zu oraindik ume kondoa zara oporretan bakarrik joateko!

KOLIÑETA/koliñétie: Izen arrunta. Pastela. (Azk.-).

Mend.: "kafiñaz artzeko koliñetie eiñ yot!"

Form. land.: kafeagaz hartzeko koliñetie ein dot!

KOLTXILLA/koltxíllie: Izen arrunta. Ohe gainean jartzen den estaldura edo koltxa. Aintzinakoek etxean egiten zituzten eta, lumazkoa zein mantekin egindakoa izan zitekeen. (Azk.-).

Mend.: "lenauko koltxillen batzuk guk badekeus oniño nunun gordeta!"

Form. land.: lehenagoko koltxillen batzuk guk badaukaguz oraindik nunbaiten gordeta!

KOLTZA/koltzié: Izen arrunta. Lehenagoko baserrietan bigarren solairuan logela eta egongelaz aparte eskaileretatik zuzen dagoen sarrera modukoa. (ikus. Eskusela). (Azk.-).

Mend.: "pentzetan dot koltzan dauen armaiyoan dausela mantak gordeta!"

Form. land.: pentsatzen dot koltzan dagoen armairuan dagozela mantak gordeta!

KONKORTU/konkortú: Zahartzaro eta gaixotasunen eraginez konkor konkor eginda egotea. (Azk. Konkortu, 1^a).

Mend.: "ori gixona be oniño gastie da baya ondo konkortute dau!"

Form. land.: hori gizona be oraindik gaztea da baina ondo konkortute dau!

KONPRIMENTU/konpriméntu: Izen arrunta. Harrokeria. Normalean ezezkoa edo alderantzizkoa adierazteko erabiltzen da, hau da harrokeri eza. (Azk.-).

Mend.: "orixe andrie be bape konprimentu bakoa da ba!"

Form. land.: horixe andrea be bat be konprimentu bakoa da ba!

KONTUXU/kóntuxu: Interjekzioa. Harridurazko esaldietan erabiltzen den interjekzioa. (Azk.-).

Mend.: "oiñ kontuxu geldi egonda be bardiñ de eiñikoa eiñye dau te!"

Form. land.: orain kontuxu geldi egonda be bardin da einikoa eginda dau eta!

KOPUTXU/kóputxue: Eguneroko jatordu nagusietatik kanpo hartzen den janari apurra. (Azk. Kopau, 1^a).

Mend.: "beskariye jan aurretik koputxu bet artu bieu!"

Form. land.: bazkaria jan aurretik koputxu bat hartu behar dogu!

KORROSKADA/korroskadié: 1^a Izen arrunta. Lo zaudenean ateratzen den zarata. (Azk. Korroska). 2^a Izen arrunta. Normalean jan ondoren urdaileko gasak ahotik bota zarata ateraz. (Azk. Korrok egin, 1^a)

Mend.: "lo egon sarenien selako korroskadak atarasusen!"

Form. land.: lo egon zarenean zelako korroskadak atara dozuzan!

KRISTEL/krístel: Interjekzioa. Zerbait bukatu dela adierazteko erabiltzen den esamoldea. *kitoren* sinonimotzat erabiltzen dela esan deza-kegu.(Azk.-).

Mend.: "beñ su telebisñoa ikusten asi eskero kristel! estau su ortik altzetakorik!"

Form. land.: behin zu telebisinoa ikusten hasi ezkeru kristel! ez dau zu hortik altxatxekorik.

KUARTIE/kuartá: Izen arrunta. Lehenagoko baserritarrak indaba, garia zein artoa pisatzeko erabiltzen zuten egurrezko kaxa. Hamabi kilo eta erdi pisatzeko balio zuen. (Azk.)

Mend.: "len mañabat bider pixetan genduen kuartiegas!"

Form. Land.: lehen makina bat bider pisetan genduan kuartiegas!

KUKULU/kukúlue: Izen arrunta. Artoak izaten duen gailurra edo goialdea. Normalean garaiera dexentea hartzen duenean kendu egiten zaio *kukulu* hau, lurrera ez erortzeko eta ganaduari ematen zaio jateko. (Azk. Kukulu, 1^a)

Mend.: "euriye asi orduko beiyentzako kukulue eiñ bieu!"

Form. land.: euria hasi orduko behientzako kukulue egin behar dogu!

KUKUPRAKA/kukuprákie: Izen arrunta. Udaberrian gure landa eta mendietan ateratzen kolore moreko lorea. Esaten dutenez lore hau oso pozoingarria omen da. (Azk. Kukuporru)

Mend.: "etze ondoko landan ainbet kukupraka dau!"

Form. land.: etxe ondoko landan hainbat kukupraka dago!

KUNA/kunié: 1^a Izen arrunta. Adibidez tomatea zein piperra lerro batzuk jarraituz landatzen ari garenean eta terrenoaren irregulartasunagatik edo ezin baditugu lerro osoak jarraitu ba orduan beste lerro txikiago batzuk egiten dira besteekin bat ez datozenak. (Azk.-). 2^a Izen arrunta. Normalean animalien kumeei deitzen zaie honela. (Azk. Kuna, 2^a).

Mend.: "pinu landarie sartzen ibilli gara de ainbet kune atera bier ixen geus!"

Form. land.: pinu landarea sartzen ibili gara eta hainbat kune atera behar izan doguz!

KURLOI/kurloyé: Izen arrunta. Txori mota bat. Tamainuz nahiko txikia, kolore gorriska eta mantxa beltzduna. (Azk. Kurriloe).

Mend.: "kurloyek be eurton hor artien eiñ yabe abiyie!"

Form. land.: kurloyek be aurton hor artean egin dabe habia!

KURRE/kurré: Izen arrunta. Baserri munduan asko erabiltzen den hitza da; esate baterako udan, uzta garaian eta eguraldi txarrak egiten baditu, euriteak zein lehortea kasu baterako, uztarik ez da ia izaten, eta orduan esaten dute baserritarrek *kurrek* eraman dituela gauza guztiak. (Azk.-).

Mend.: "eurton esebe estau soloetan eroan deus kurrek danak!"

Form. land.: aurton ezerbe ez dau soloetan eroan ditu kurrek danak!

KURRUMUSKADA/kurrumuskadié: Izen arrunta. Pertsonak egiten duten urruma, kexa zein haserrea adierazteko. (Azk. Erremuskada).

Mend.: "aittek atara daben kurrumuskadias ixilik egon bikeu!"

Form. land.: aitik atara daben kurrumuskadias ixilik egon beharko dogu!

KURTZULU/kurtzúlu: Interjekzioa. Harridurazko esaldietan sarritan erabiltzen den interjekzio partikula. (Azk.-).

Mend.: "baya su se kurtzulu esaten saus ori gusurre da ta!"

Form. land.: baina zu ze kurtzulu esaten zagoz hori gezurra da eta!

KURUMIÑO/kurumiñoa: Izen arrunta. Erlearen antzeko intsektua, bere eztenkada oso mingarria eta pozoitsua izaten da. (Azk. Kurubio).

Mend.: "kurumiño batek pikeuste ta eskue aunditute dekot!"

Form. land.: kurumiño batek pikau daust eta eskua haundituta daukat!

KUSE/kusé: Adjetiboa. Edozer gauza jatea gustatzen ez zaion aho fineko pertsona. Mokofina. (Azk.-).

Mend.: "ori ondo persona kuse da gero!"

Form. land.: hori ondo persona kuse da gero!

KUSKUR/kuskurré: Izen arrunta. Ogiak izaten duen zatirik gogorrena edo sendoena, mamin gutxikoa. (Azk. Kuzkurtu, 1^a).

Mend.: "niri es emon kuskurrik jateko ostantzien agiñek apurtuko tas!"

Form. land.: niri ez emon kuskurrik jateko ostantzean haginak apurtuko dodaz!

KUSUMEN/kusumená: Izen arrunta. Eztul larria, atragantatu. (Azk. Kusuman egin).

*Mend.: "orrek dekon **kusumenagas** emoitzesu ur apur bet!"*

*Form. land.: horrek daukan **kusumenagas** emon eiozu ur apur bat!*

L

LABADORA/labadorie: Izen arrunta. Legamia edo altxagarria. Esate baterako ogia altxatzeko eransten zaion orea. (Azk. Altsagarri).

Mend.: "geur labadora apur bet eros biko da biyer ogiye eitteko!"

Form. land.: gaur labadora apur bat erosi beharko da bihar ogia eiteko!

LAI/laiyé: Izen arrunta. Antzinako baserritarrek soroa eskuz goldatzeko erabiltzen zuten hortz biko burdina, lau zenbakia alderantziz jarritako itxura dauka. (Azk. Lai, 1^a).

Mend.: "lajias mañabat bier einikoa banas ni!"

Form. land.: lajias makina bat behar eindakoa banaz ni!

LAKAR/lakarrá: Adjetiboa. Adibidez terreno bat preparatzen da goldatuta, tomateak, piperrak, naboa, artoa zein beste edozer landatu edo ereiteko, landatu eta gero euria egiten badu lurrari geruza latz eta gogor bat egiten zaio landareentzat oso txarra dena. Goldatu eta gero lurrei euria egiten badie lurrak *lakartu* egin direla esaten dute baserritarrek (Azk. Lakar, 5^a).

Mend.: "ondo egon da soloa baya euriye eintzo da dana lakartute geldittue de!"

Form. land.: ondo egon da soloa baina euria ein dautso eta dana lakartute gelditu da!

LAKUNA/lakúnie: Izen arrunta. Behi eta bigantxen ernaltze organuaren kanpoaldea. (Azk.-).

Mend.: "orrek beiyek be lakunie andittute deko ta laster eiñ bideu txala!"

Form. land.: horrek behiak be lakunie haundituta dauka eta laster egin behar dau txahala!

LAMADA/lamadié: Izen arrunta. Berotasun handia, eguzkiak zein suak eragindakoa. (Azk. Lama, 2^a).

Mend.: "emen daben lamadias itto biot!"

Form. land.: hemen dagoen lamadias ito behar dot!

LANGAR/langarrá: Izen arrunta. Lainoa dagoenenan botatzen duen euri finari deitzen zaio honela. (Azk. Langar).

Mend.: "langarra da ta esiñ geur plaiyera joan!"

Form. land.: langarra da eta ezin gaur plaiara joan!

LANPARDA/lanpárdie: Izen arrunta. Pinadi bat botatzerakoan lurrean gelditzen diren adarrak. (Azk.-).

Mend.: "ainbet eguneko bierra dekeu oiñ an basoan lanpardak batzen!"

Form. land.: hainbat eguneko beharra daukagu orain han basoan lanpardak batzen!

LANDA-BEDAR/landá-bedár: Izen arrunta. Soroan landareen tartean ateratzen den bedar txarra. (Azk. Landa+Bedar).

Mend.: "landa-bedarres jositte dekeu solo txikiye!"

Form. land.: landa-bedarres josita daukagu solo txikia!

LANPAR/lanparrá: Izen arrunta. Lanbroa, euri fina. (Azk. Lanpar).

Mend.: "lanparra asi deu firi-firi ta esiñ lei oiñ solora joan!"

Form. land.: lanparra hasi dau firi-firi eta ezin leike orain soloara joan!

LANTZIMIÑ/lantzimiñ: Adberbioa. Batzuetan, lantzean behin. (Azk. Lantzean-Behin).

Mend.: "ori mutillori lantzimiñ baño esta etorten!"

Form. land.: hori mutil hori lantzimiñ baino ez da etorten!

LAPATXA/lapatxié: 1^a Izen arrunta. Ilean zein arropetan gogorki itsasten den lore edo hosto zabaleko belarra. (Azk. Lapats, 1^a). 2^a Adjetiboa. Kantsagarria, gogaikarria eta pelma den pertsonaz esan ohi da. (Azk.-).

Mend.: "ori personie ondo lapatxie da benpeñon!"

Form. land.: hori pertsona ondo lapatxie da behinik behin!

LARAKO/larakoá: Izen arrunta. *Burpartika* (burtira) *burtadan* sartzean, burdia buztarrira ondo finkatuta gera daiten jartzen den egurrezko topo edo ziria. (Azk. Larako).

Mend.: "gorostiyas enbiot larakoa bestie esta ondo sujetetan da!"

Form. land.: gorostiagaz ein behar dot larakoa bestea ez da ondo sujetetan eta!

LARATZ/laratzá: Izen arrunta. Beheko suan zintzilik dagoen burdin bati deitzen zaio honela, bertatik zintzilikatuta jartzen zituzten lapikoak eta ontziak jatekoa egiteko. Oraindik baserri askotako beheko suetan badago baina ez da erabiltzen. (Azk. Laratz, 1^a).

Mend.: "txarriyen jatekoas ipiñsu galdarie laratzien!"

Form. land.: txarriaren jatekoagaz ipini eizu galdara laratzien!

LARRE-BEDAR/larré-bedár: Izen arrunta. Larre eta zelaietako belardiak. (Azk. Larre, 1^a+Bedar, 1^a).

Mend.: "larre-bedarra jaten bota bieus landara beiyek!"

Form. land.: larre-bedarra jaten bota behar doguz landara behiak!

LARRIÑ/larriñé: Izen arrunta. Ikaztegia egiten zen tokia. Baserriak zituen larren izenarekin ezagutzen zen toki hau. (Azk.-).

Mend.: "len larriñe ixen sana oiñ dana piñu sartunde dekeu!"

Form. land.: lehen larriñe izan zana orain dana pinu sartuta daukagu!

LASTATEI/lastateiyé: Izen arrunta. Baserrietan ikuiluaren gainean, belar siku, lasto eta asauak (ikus. Asau) gordetzeko tokia. (Azk. Lastategi).

Mend.: "guk eurton lastateiye ondo beteta dekeu!"

Form. land.: guk aurton lastateiye ondo beteta daukagu!

LATAKA/latakié: Izen arrunta. Larreetan eta ganaduak solte ibil daitezcan, egurrez zein metalez egiten diren hesiak. (Azk. Lataka).

Mend.: "landako latakie konpondu barik esin leis beiyek eroan hara!"

Form. land.: landako latakie konpondu barik ezin leikez behiak eroan hara!

LAUARTO/lauárto: Izen arrunta. Morokila zein taloak egiteko erabiltzen den arto uruna. Uruna egin aurretik artoa laban sartzen da lehortzeko, hortik bere izena, laba+arto. (Azk. Labarto).

Mend.: "biyer enbitas taloak lauartoas!"

Form. land.: bihar ein behar dodaz taloak lauartoas!

LAUORTZ/laúortza: Izen arrunta. Soroa eskuz goldatzeko erabiltzen zen lau hortzeko burdin

bat, alderantziz jarritako sardeska baten itxura dauka. *Laiye* baino zerbait modernoagoa da. (Azk. Lauortz, 1^a).

Mend.: "lauortza artute solo sati galantak goldatzen gendusen!"

Form. land.: lauortza hartuta solo zati galantak goldatzen genduszen!

LAUSKITTU/lauskittú: Aditza. Apurtu, zatitu, txikitu. (Azk. Lauzkitu, 2^a).

Mend.: "naboak beiyeri emon baño ariñau lauskittu eiñ bidie!"

Form. land.: naboak behiei emon baino arinago lauskittu ein behar dira!

LAUSOTU/lausotú: Aditza. Begira zerbait sartu eta gauzak zirriborrotu ikusten direnean. (Azk. Lauso, 1^a).

Mend.: "satariye sartu yat begire da lausotute ikusten dot!"

Form. land.: samarreraia sartu jata begira eta lausotute ikusten dot!

LEGEN/legená: Izen arrunta. Animalia zein pertsonak izaten duten sarnaren antzerako eritasun kutsakorra. (Azk. Legen).

Mend.: "beiyek legena deko urtetan da kontue euki biko da!"

Form. land.: behiak legena dauka urtetan eta kontua euki beharko da!

LEI/leiyé: Izen arrunta. Izotzaldia. (Azk. Lei, 1^a). *Lei* baltz: Izen arrunta. Normalean zero azpitiko temperaturakin ematen den izotzaldi gogorra. Ez da ikusten besteak bezain ondo, eta mozorroz agertzen delako, hortik bere izena, lurra ere gogortu egiten du. (Azk. Lei, 1^a).

Mend.: "atzo aselako lei baltza botaban dana gogortute egon san!"

Form. land.: atzo ha zelako lei baltza bota eban dana gogortuta egon zan!

LEKARRALDO/lekarraldoá: Izen arrunta. Izotzaldi gogorra. Honen eraginez ura, landareak... izoztuta gelditzen dira. (Azk. Lei, 1^a zein Kikarraldo).

Mend.: "bart bota daben lekarraldoak etxeurreko posue be ixostu eiñyeu!"

Form. land.: bart bota dauan lekarraldoak etxe aurreko pozua be izoztu ein dau!

LEPARDADA/lepardadié: Izen arrunta. Norbaiteri itxaron gabe ematen dioten ziztada, puntada, ezusteko ezatsegina. (Azk.-).

Mend.: "nobera ondo eiñ esiñik gero atzetik lepardadie emoteko!"

Form. land.: norbera ondo ein ezinik gero atzetik lepardadie emoteko!

LESA/lesié: Izen arrunta. Basoan, euriteen ondorioz lur narratuek egiten dituzten zulo sakonak. (Azk. Leza).

Mend.: "euri itzelak eiñ yeus de ikusi enbiko da lesarik eiñ yaben basoan!"

Form. land.: euri itzelak ein ditu eta ikusi ein beharko da lesarik ein dauan basoan!

LIGER/ligerrá: Izen arrunta. Gatzatua eta gaztaia egiteko erabiltzen den gaia, berau hausnartzaile gazteek urdailean izaten dute. (Azk. Legar, 1^a).

Mend.: "pastoriegañe joan bide ligerretan biyer gatzatuek eitteko!"

Form. land.: pastorearengana joan behar da ligerretan bihar gatzatuek eiteko!

LIKIÑ/ikiñé: Izen arrunta. Solido eta likidoen tartean dagoena, itsaskorra, inkakorra. (Azk. Likin, 3^a).

Mend.: "ori saltzie likiñ-ikiñe dau te es yat gusetan!"

*Form. land.: hori saltsea **likin-likiñe** dago eta ez jat gustetan!*

LIMOI-SAGAR/limoi-ságarra: Izen arrunta. Lehen Euskal Herrian asko hedatua zegoen limoiaren itxura duen sagar mota bat. (Azk.-).

*Mend.: "geur arratzaldien **limoi-sagarrak** batzen joan bieu!"*

*Form. land.: gaur arratsaldean **limoi-sagarrak** batzen joan behar dogu!*

LIÑETASI/liñetásiye: Izen arrunta. Hotzaren hotzaz euri tantak izozturik erortzen direnean. *liñetasi* hitzaz ere asko erabiltzen da gauza bera esateko. (Azk. Iñetasi).

*Mend.: "goixaldien **liñetasi** saparrada itzelak bota deus!"*

*Form. land.: goizaldean **liñetasi** zaparrada itzelak bota ditu!*

LOKOTZ/lokotzá: Izen arrunta. Zuhaitzean dagoenean gaztaina gordetzen duen pintxodun azalari deitzen zaio honela. (Azk. Lokots)

*Mend.: "kastañek apartetan ibil nas da or dausen **lokotzakin** kontus gero!"*

*Form. land.: gaztainak apartetan ibili naz eta hor dagozan **lokotzakin** kontuz gero!*

LUBANA/lubánie: Izen arrunta. Zelai eta belardietako lur tontortxuak sortzen dituzten sakonune xeheak. (Azk.-).

*Mend.: "or gure beko landan ainbet **lubana** dau da kontus ibil bide tratoras!"*

*Form. land.: hor gure landan hainbat **lubana** dago eta kontuz ibili behar da traktoragaz!*

LUDOI/ludoyé: Izen arrunta. Gariak izaten duen gaixotasuna. Baserritarrek esaten dute, lehen hemen Urdaibaiko eskualdean garia ereiten zenean, gariak ludoia izan ezkeron gari uruna beltzarana ateratzen zela. (Azk. Lodoie)

*Mend.: "eurtongo urune illune da **ludoye** euki dabelako gariyek!"*

*Form. land.: aurtongo uruna iluna da **ludoye** euki daualako gariak!*

LUKI/lúkiye: Izen arrunta. Azeria. (Azk. Luki, 1^a).

*Mend.: "eurtón dana **lukiye** baño esta ikusten, olio bat be eroaskue!"*

*Form. land.: aurtón dana **lukiye** baino ez da ikusten, oilo bat be eroan dauskue!*

LUKURRERU/lukurrerué: Adjetiboa. Zikotza edo zekena. Dirua aurreratu eta aurreratu dabilen pertsonaz esaten da. (Azk. Lukurreru).

*Mend.: "tamañuko **lukurrerue** bada ori gero!"*

*Form. land.: tamainuko **lukurrerue** bada hori gero!*

LUMETXA/lumétxie: Izen arrunta. Lumaz eginiko bururdia. (Azk. Lumatsa, 3^a).

*Mend.: "**lumetxie** etzien eitten genduen olio lumekas da!"*

*Form. land.: **lumetxie** etxean eiten genduan oilo lumeakaz eta!*

LUPERI/luperiyé: Izen arrunta. Lupetza. Basaz eta urez beterik dagoen tokia. (Azk. Luperia).

*Mend.: "kontus paseu ortik or daben **luperiyegas**!"*

*Form. land.: kontuz pasau hortik hor dagoan **luperiyegas**!*

LUPETZA/lupétzie: Izen arrunta. Basatza. (Azk. Lupetza).

*Mend.: "or daben **lupetziás** selan ibill leike umie hor!"*

*Form. land.: hor dagoen **lupetzi**as zelan ibili leike umea hor!*

LURMEN/lurmén: 1^a Izen arrunta. Esate baterako lur sail baten artoa, garia zein beste edozer erein ondoren dana bete betean ernetzen denean, oso osorik. (Azk.-). 2^a Izen arrunta. Adibidez norbait euri zaparrada batek bete betean harrapatu duenean, lurmenik barik etorri dala esateko erabiltzen da, guztiz buztita. (Azk.-).

*Mend.: "orrek umiorrek esteu **lurmenik** be ekarri gero!"*

*Form. land.: horrek ume horrek ez dau **lurmenik** be ekarri gero!*

M

MAKERA/makérie: Izen arrunta. Txerri emea. (Azk. Makera, 1^a).

Mend.: "akordetan nas selako txarri makerie euki gendun urte baten!"

Form. land.: akordatzen naz zelako txarri makerie euki genduan urte batean!

MALLETU/malletú: Aditza. Norbaiteri edo zerbaiteri kolpea hartu ondoren ateratzen zaion moratoia edo sakonunea. (Azk. Mailatu, 1^a).

Mend.: "ori madariye ondo malletute dau!"

Form. land.: hori madaria ondo malletute dago!

MAMEL/mamelá: Izen arrunta. Latorrizko kontserba potoari deitzen zaio. (Azk.-).

Mend.: "orrek mamelak atzamarra ebaikotzu eta botaixu basurera!"

Form. land.: horrek mamelak atzamarra ebakiko deitsu eta bota eizu zaborrera!

MAMUKIYO/mamukiyoá: Izen arrunta. Hosto zabaleko belarra zein zuhaixka. Ganaduak enpatxuaz daudenean, mamukioa egosi eta bere ura ematen zaie. (Azk. Mamukio).

Mend.: "beiyen enpatxuas dau te mamukiyo ure prepareu biko da!"

Form. land.: behia enpatxuagaz dago eta mamukiyo ura preparau beharko da!

MANDO-BEDAR/mandó-bedarrá: Izen arrunta. Belar mota bat. (Azk. Mando-belar).

Mend.: "or gure etzatzen be ainbet mando-bedar asi de eurton!"

Form. land.: hor gure etxe atzean be hainbat mando-bedar hasi da aurton!

MANDASKA/mandáskie: Izen arrunta. Baserri inguruetan baserritarrek lehenagoko denboretan egiten zituzten ur pozuak, baserri batzuetatik errekek urrun zeudelako. (Azk.-).

Mend.: "etzien estau urik eta mandaskara eroan biko die beiyek ura edaten!"

Form. land.: etxean ez dago urik eta mandaskara eroan beharko dira behiak ura edaten!

MANGUL/mangulé: Adjetiboa. Handi eta luzea den pertsonaz zein animaliaz esaten da. (Azk.-).

Mend.: "ori txala apur bet mangule da ta estotzue pageuko diñosun beste!"

Form. land.: hori txahala apur bat mangule da eta ez dausue pagauko dinozun beste!

MANIEU/maníeu: Aditza. Preparatu, gertatu, jantzi. (Azk.-).

Mend.: "amabiyetako mesara eldu gure bada manietan asi biko da!"

Form. land.: hamabietako mezara heldu gura bada manietan hasi beharko da!

MANKEU/mankeú: Aditza. Abere zein pertsona batek min hartzen duenean. (Azk. Mankatu, 1^a).

Mend.: "orrek txoriyek egoa mankeute deko esta mogidu be eitten da!"

Form. land.: horrek txoriak hegoa mankeute dauka ez da mugitu be eiten eta!

MANTAR/mantárrak: Izen arrunta. Trapu zaharrak. (Azk. Mantar, 1^a).

Mend.: "kamaran dekeun mantarteriye erre biot urrengo euriye danien!"

Form. land.: kamaran daukagun mantarteriye erre behar dot hurrengo euria danean!

MANTUX/mantuxé: Izen arrunta. Emakumezkoen kanpoaldeko ernaltze organoa. (Azk.-).

Mend.: "plaiyen mantuxe agiyen mañabat ibiltten die!"

Form. land.: plaiian mantuxe agirian makina bat ibiltzen dira!

MANTXU/mantxué: Izen arrunta. Beso bat galduta duen pertsona. Beso bakarra edo eskumotza. (Azk. Mantsu).

Mend.: "ori gizona mantxue da!"

Form. land.: hori gizona mantxue da!

MARDO/mardoá: Adjetiboa. Lodia, guria eta edarra den pertsonaz zein animaliaz esan ohi da. (Azk. Mardo, 2^a).

Mend.: "ori umie be ondo mardoá dau te seuser jaten deu!"

Form. land.: hori umea be ondo mardoá dago eta zerbait jaten dau!

MARIGORRINGO/marigorríngo: Izen arrunta. Naranja koloreko eta izpil beltzak dituen lau hegoko intsektu txikitxo bat. (Azk. Marigorringo).

Mend.: "or ortuen ainbet marigorríngo dabil!"

Form. land.: hor ortuen hainbat marigorríngo dabil!

MARKADOR/markadorá: Izen arrunta. Artoa ereiten denean soroan surkoak egiteko erabiltzen zen lanabesa; burdinazko hiru hortz ditu, eta astoak tiratuta erabiltzen da. Atzealdean norbaitek oratzen dio lurrian hobeto sartzeko lanabesa eta surkoa ondo egin. (Azk. Marka, 2^a).

Mend.: "markadora prest ipiñi tte arratzaldien artoa erein bide!"

Form. land.: markadora prest ipini eta arratsaldean artoa erein behar da!

MARKA/markié: Izen arrunta. Baserritarrek artoa eta ereiteko erabiltzen duten hiru edo lau hortzeko golda. Lanabes hau normalean astoak tiratuta joaten da, eta pertsona bat oratzen burdinazko palak lurrian sartu beharrean. (Azk. Marka, 2^a/3^a).

Mend.: "markie ta geuse gustiyek prepareu enbiko die arto ereitten joateko!"

Form. land.: markie ta gauza guztiak preparau ein beharko dira artoa ereiten joateko!

MARMOTZ/marmotzá: Adjetiboa. Pertsona toskoa, eta aurpegi iluna duenez esaten da. (Azk.-)

Mend.: "tamañuko marmotza bada orixe neskie be gero!"

Form. land.: tamainuko marmotza bada horixe neskea be gero!

MARRAJA/marrájie: Adjetiboa. Beti besteen gauzetan musturra sartzen dabilen emakumeaz esaten da. (Azk.-).

Mend.: "ondo marrajie da ori andriori be!"

Form. land.: ondo marrajie da hori andreori be!

MARRAS/marrasá: Izen arrunta. Plazara *bendaja* (Ikus. Bendaja) eramateko, sakuz, zein oihalaz eginiko toldo antzerakoa. (Azk.-).

Mend.: "orrek kipulek marrasien eroango tas plasara biyer!"

Form. land.: horrek kipulak marrasien eroango dodaz plazara bihar!

MARRO/márroa: Izen arrunta. Zuhaitz batzuei enborraren zati bat hutsik gelditzen zaienean

honela deitzen zaie. Normalean haritz eta gaztainondoan marroak izaten dira, batzuetan erlauntza moduan ere erabiltzen dira. (Azk.Marro, 7^a).

Mend.: "gastaiñe arbolieri marroa ebai bitzeu erle tokiye ipintteko!"

Form. land.: gaztaina arboleari marroa ebai behar dautsagu erle tokia ipintzeko!

MASAL/masalá: Adjetiboa. Pertsona eder, lasai, ireki eta atsegina denaz esaten da. (Azk. Masal, 2^a).

Mend.: "masal-masala da ori mutiltxue gero!"

Form. land.: masal-masala da hori mutiltxoa gero!

MASOATU/masoatú: Aditza. Zantarkeri ugari eta ganora edo fundamentu eskasaz dabilen pertsonaz esaten da. (Azk. -)

Mend.: "nik pentzetan dot orixe be aspaldiyon masoatute dabilela!"

Form. land.: nik pentsatzen dot horixe be aspaldian mosatute dabilela!

MASTRA/mastrié: Izen arrunta. Patatak zein beste landare batzuk izaten dituzten hostoak (Azk. Mastra, 1^a)

Mend.: "patatiek be mastra andiye deko ta ainbet euko dabela esan lei!"

Form. land.: patatak be mastra haundia dauka eta hainbat eukiko dabela esan leike!

MASU/masué: Izen arrunta. Euriteen ondoren eta soloan zein ortuan gelditzen diren lur multzotxuak apurtzeko lanabesa, egurrezkoa, aitzurraren antzerakoa. (Azk.Mazo, 4^a)

Mend.: "aur ortuen dausen lur moltxoak be apurtuo biko dabe masuas edo!"

Form. land.: hor ortuan dagozan lur multzoak be apurtu beharko dira masuas edo!

MASUSTRA/masústrie: Izen arrunta. Sasiak ematen duen fruitu txiki eta beltza. (Azk. Masusta, 1^a).

Mend.: "masustrek batu te mermeladie eiñ bieu!"

Form. land.: masustrek batu eta mermelada ein behar dogu!

MATALGA(E)I/matálga(e)iye: Izen arrunta. Artesieri (Ikus. Artesa) alderdi batetik bestera jartzen zaion, bost zentimetro zabaleran dituen ohol mehetxo bat, beronek erraztu baino ez du egiten baye (Ikus. Bai) bere gainean atzera eta aurrera erabiltzeko lana. (Azk. Matalgi).

Mend.: "ogirik eiñ es arren oniño matalgeiyek gordeta dekeus!"

Form. land.: ogirik ein ez arren oraindik matalgeiyek gordeta daukaguz!

MATARRASIEN/matarrasién bota: Aditza. Baso edo pinudi bateko zuhaitz guztiak botatzea. (Azk.-).

Mend.: "piñudi geiyenak oiñ matarrasien botatettue!"

Form. land.: pinudi gehienak orain matarrasien botaten dabez!

MATARRASKA/matarráska: Adjetiboa. Ezerk izutu barik beti aurrera egiten duen emakume oso langile eta aktibaz esan ohi da. (Azk. Matarraska, 2^a).

Mend.: "ori neskie be bada gero matarraskie!"

Form. land.: hori neskea be bada gero matarraskie!

MATASA/matásie: Izen arrunta. Baserritarrek erabiltzen dute hitz hau, landare zein edozein begetazio multzoa adierazteko, esate baterako indabena matasa. (Azk.-).

Mend.: "or dausen iñyaba matasakiñ paseu be esiñ lei eiñ!"
Form. land.: hor dagozan indaba matasakiñ pasau be ezin leike ein!

MATXURA/matxurié: Izen arrunta. Ondo sendatu gabeko gaixotasun zein frakturaren batek utzitako errestoa edo ondorena. (Azk. Matsura, 2^a).

Mend.: "besoa apurtu nabenetik ortxe dekot matxurie beti emoteste min apur bet!"
Form. land.: besoa apurtu nabenetik hortxe daukat matxurie beti emoten daust min apur bat!

MAX/maxá: Izen arrunta. Zerbait edo norbait balio eskaseko edo gutxitzat edukitzea. (Azk.-).

Mend.: "nik maxa deitzet orreri jersieri eta obe dosu au bestie erostie!"
Form. land.: nik maxa deritzet horreri jertseari eta hobe dozu hau bestea erostea!

MEDELIÑ/medeliñé: Izen arrunta. Baserrietan, aurreko eta atzeko aldea banatzen duen pareta, hau da, ikuiluak eta sabaia, etxebizitzatik separatzen ditu. (Azk.-).

Mend.: "etzie dana konpondu bier bada medeliñe be jeurti biko da!"
Form. land.: etxea dana konpondu behar bada medeliñe be jaurti beharko da!

MEDREU/medreué: Adjetiboa. Ederra, sendoa, indartsua. (Azk. Medrakaitz *medreu* hitzaren kontrakoa adierazten du, baina lagungarria da esanahia adierazteko).

Mend.: "sartun eiñ gendusen landarak baya estie bape medreu!"
Form. land.: sartu ein genduzan landarak baina ez dira bat be medreu!

MENDA/méndie: Izen arrunta. Lehenegoko denboretan baserritarrek garia ehotzeko errotara eramaten zuten eta ordainez urunaren parte bat uzten zioten errotaren jabeari. (Azk. Menda, 2^a).

Mend.: "artoa mendie da gariyen mendie diferentiek ixeten sien!"
Form. land.: artoa mendie eta gariaren mendie diferenteak izaten ziran!

MENDU/méndue: Izen arrunta. Txertaketan zuhaitz edo landare batetan jartzen den beste mota bateko adartxoari deitzen zaio. (Azk. Mendu, 4^a).

Mend.: "okanan mendue biot or dauen makatz sarrien estitzeko!"
Form. land.: okaranaren mendue behar dot hor dagoen makatz zaharrean ezititzeko!

MENGAL/mengelá: Adjetiboa. Pertsonan edo animalien bat ahula denean edo zerbait mehea denean. (Azk. Mengel, 1^a).

Mend.: "txal mengeltxue jaiyo da baya eiño da denporiegas!"
Form. land.: txahal mengeltxue da baina eiño da denporeagaz!

MENOS/menosá: Adjetiboa. Gauza eskasa. (Azk.-).

Mend.: "orrek prakak apur bet menosak dies da artuxus bestiek!"
Form. land.: horrek prakak apur bat menosak dira eta hartu eizuz besteak!

MERDUL/merdulé: Adjetiboa. Esate baterako gizaki edo animaliei buruz hitz egiten dugunean indartsua edo sendoa dela esango dugu, baina landareen munduari dagokionez esan nahi dana da ba landarea freskoa eta itxura ezin hobekoa dela. (Azk. Mardul).

Mend.: "ori larrosie ondo merdule dau gero!"
Form. land.: hori larrosea ondo merdule dago gero!

METXAL/metxalá: Adjetiboa. Mehea eta eskasa denaz esaten da. (Azk. Metsal).

Mend.: "ori jersie metxala dosu te jantzi beste bat geur otz dau te!"

Form. land.: hori jertsea metxala dozu eta jantzi beste bat gaur hotz dago eta!

MIESTU/miestú: Aditza. Asko dagoen tokitik batzuk kendu. Labore kontuetan eta hitz hau sarritan erabiltzen dute baserritarrek. Adibidez soroan landare asko erne diren tokian batzuk kendu. (Azk. Miets).

Mend.: "geur edo biyer arto soloa be miestu biko da mañabat dau an da!"

Form. land.: gaur edo bihar arto soloa be miestu beharko da makina bat dau han eta!

MINBERA/minberié: Izen arrunta. Zauriek ematen duten mina. (Azk. Minbera).

Mend.: "atzamarra ebai dot eta minbera-minbera dekot!"

Form. land.: atzamarra ebagi dot eta minbera-minbera daukat!

MIÑ/miñé: 1^a Izen arrunta. Nahigabea, eritasuna, zentzazio ezatsegina. (Azk. Min, 1^a). 2^a Izen arrunta. Pikantea. (Azk. Min, 4^a).

Mend.: "orrek piperrak miñ andiye dekie ta esiñ leis jan be eiñ!"

Form. land.: horrek piperrak miñ haundia daukate eta ezin leikez jan be ein!

MINTZ/mintzé: 1^a Izen arrunta. Arraultza gordetzen duen ondo gogortu gabeko eskola. (Azk. Mintz, 1^a). 2^a Izen arrunta. Edozein haragi motak izaten duen ehun mehe edo fina. (Azk. Mintz, 1^a)

Mend.: "geur mintzik bako arrutzek eiñ yabes olloak!"

Form. land.: gaur mintzik bako arraultzeak ein dabez oilloak!

MINTZEBAI/mintzébaiye: Izen arrunta. Atzamar puntetan sarritan egiten diren zauritxoak. (Azk. Intzebagi, 1^a).

Mend.: "aspaldiyon dekotas mintzébaiyek da miñ eittestie!"

Form. land.: aspaldian daukadaz mintzébaiyek eta min eiten daustie!

MIRRI/mírriye: Adjetiboa. Pertsona eskasa, eta argala denaz esaten da. (Azk. Mirri 1^a, Mirrin 1^a, Mirriz).

Mend.: "ori mutillori geixorik edo egongo san ondo mirriye dau te!"

Form. land.: hori mutilori gaixorik edo egongo zan ondo mirriye dago eta!

MIRU/mirué: Izen arrunta. Lurralde hauetako hegazti harraparia. (Azk. Miru, 1^a).

Mend.: "gurean olloak eta kanpoan ibilli arren inos esteus eroan miruek!"

Form. land.: gurean oilloak eta kanpoan ibili arren inoiz ez daus eroan miruek!

MISKE/miské egon: Aditza. Nekatu gabe egotea, saltoka, dantzaka, txistuka, eta algaraka dabilen pertsona, miske dagoela esaten da; inoiz animalietaz ere esan da adibidez behi gazteak eta bere gaztetasuna eta adieraziz, hara honaka dabilzanean. (Azk. Mizke, 2^a).

Mend.: "ori beiye ondo miske dau orrek dabixen saltoak eta ...!"

Form. land.: hori behia ondo miske dau horrek dabilzan saltoak eta ...!

MISKETU/misketú: Adjetiboa. Ondasun ugari duen pertsona, hain gauza askokin zer egin ez dakiela dagoenean misketute dagoela esaten da, harrotuta. (Azk.-).

Mend.: "dekon beste dirugas misketute dau da es daki ser eiñbe!"

Form. land.: daukan beste dirugaz misketute dago eta ez daki zer egin be!

MISKIÑ/miskiñé: Adjetiboa. Oso gutxi jaten duen pertsonaz zein animaliaz esaten da. (Azk. Mizkinda).

Mend.: "au gure umie baño miskiñaurik esta egongo munduen!"

Form. land.: hau gure umea baino miskiñaurik ez da egongo munduan!

MOGARA/mogárie: Izen arrunta. Baserrietan, etxea sostenitzen etartearen erdian egoten den bi metro luzerako harri zilindrikoa. (Azk.-).

Mend.: "emengo bueltako baserri askok dekies mogarak etartietan!"

Form. land.: hemengo bueltako baserri askok dauzkate mogarak etarteetan!

MOKOTZ/mókotza: Izen arrunta. Aita-amabixiek beraien besoetakoei pazkoetan oparitzen dien ogitalozko gozoa. (Azk. Mokots).

Mend.: "pasko da biyer da ekarkotzues aitxibixiyek mokotzak!"

Form. land.: pasko da bihar eta ekarriko dautsuez aitabixiek mokotzak!

MOLDAKATX/moldakatxá: Adjetiboa. Edozein gauza berriri moldatzea oso zaila egiten zaion pertsonaz esaten da. (Azk. Moldakaitz).

Mend.: "moldakatx utze sara gero!"

Form. land.: moldakatx hutsa zara gero!

MOLDANGASTU/moldangastú: Aditza. Esate baterako lan batean pila bat urte egin ondoren eta gero denboraldi luze batean utzi, berriz bueltatzerakoan praktika falta. (Azk. Moldakaiztu).

Mend.: "aspaldiko urtietan estot ibilli kotxerik eta moldangastute nau!"

Form. land.: aspaldiko urteetan ez dot ibili kotxerik eta moldangastute nago!

MOLTZO/moltzoá: 1^a Moltzotu. Aditza. Moltzoa, gauzak bata bestearen gainean jarri, pilatu. (Azk. Moltzo, 1^a). 2^a Moltzo. Izen arrunta. Lapikoak eta garbitzeko erabiltzen den trapuzko ipitza edo estropajua. (Azk. Moltzo, 2^a).

Mend.: "ekarri eistesu moltzoa onek lapikoak apur bet garbitzeko!"

Form. land.: ekarri eidazu moltzoa honek lapikoak apur bat garbitzeko!

MOMORRO/momórroa: Izen arrunta. Fantasma edo mamua. (Azk. momorro, 2^a).

Mend.: "eiñxu lo momorroa dator eta!"

Form. land.: ein eizu lo momorroa dator eta!

MONTOR/montorrá: Izen arrunta. Zerbaiten multzo edo pilo handia. (Azk.-).

Mend.: "geur arratzaldien ori egur montorra txikitu biko da!"

Form. land.: gaur arratsaldean hori egur montorra txikitu beharko da!

MORALLO/morálloa: Adjetiboa. Oso beltzaran edo moreno dagoen pertsonaz esaten da. (Azk.-).

Mend.: "alako moralloa sausen ... ainbet euski artungo sendun!"

Form. land.: halako moralloa zagozen ... hainbat eguzki hartuko zenduan!

MORKO/mórkoa: Izen arrunta. 1^a Txorizoak eta koipetan edo oliotan gordetzeko erabiltzen

den lurrezko potoa. (Azk. Morko, 1^a). 2^a Adjetiboa. Pertsona saskar eta toskoa denaz esaten da. (Azk. Morko, 2^a).

Mend.: "morkoak be garbittu bikeus barriro txoixoak sartzeko oriyotan j"

Form. land.: morkoak be garbitu beharko doguz txorizoak sartzeko oliotan!

MONYOR/mónyorra: Izen arrunta. Langileei obra bat burutu ondoren (etxea...) ospatzeko ematen zaien bazkaria, afaria... (Azk. Monjor).

Mend.: "teilletue eittie akabeu geu da monyorra eiñ bieu!"

Form. land.: teilatua eitea akabeu dogu eta monyorra ein behar dogu!

MOROKILL/morokillé: Izen arrunta. Arto uruna, ura eta gatza irakin ondoren lortzen den masa, hotzitu ondoren esne beroarekin jaten da. (Azk. Morokil, 1^a).

Mend.: "biyerko morokille dekeu geur eiñyot eta!"

Form. land.: biharko morokille daukagu gaur ein dot eta!

MORROSA/morrosié: Izen arrunta. Bobinoak gose direnean edo zerbait gertatzen zaienean egiten duten orroea. (Azk. Morros)

Mend.: "morrosie ixen da kortan da iya seuser solteu bada?"

Form. land.: morrosie izan da kortan eta ia zeozer soltau bada?

MOTA/motié: Izen arrunta. Ereindako solo inguruetan belarrez dauden lur multzotxuak. (Azk. Mota, 1^a).

Mend.: "or motan daben bedar apurre ebai biot txalentzat!"

Form. land.: hor motan dagoen bedar apurra ebagi behar dot txahalentzat!

MUDEU/mudeú: 1^a Aditza. Erropak aldatu. (Azk.-). 2^a Aditza. Esate baterako eguraldi eguzkitsua egotetik guztiz lainotuta jartzen denean. (Azk.-).

Mend.: "euskiye egon da baya mudeu eiñ yeu te fresko dau oiñ geispetan!"

Form. land.: eguzkia egon da baina mudeu ein dau eta fresko dago orain gerizpetan!

MUKITTE-BEDAR/mukitté-bédarra: Izen arrunta. Soroan ortuarien artean ateratzen den belar mota bat. (Azk.-).

Mend.: "badekeu bierra orrek mukitte bedarrak ortik kentzen!"

Form. land.: badaukagu beharra horrek mukitte bedarrak hortik kentzen!

MUKITTIE/mukittié: Izen arrunta. Soroan ortuarien artean ateratzen den bedarra. (*Mukitte bedarra eta mukittie ez dira berdinak*). (Azk.-).

Mend.: "mukitite urtetan asitte dau soloan gero!"

Form. land.: mukittie urtetan hasita dago soloan gero!

MUKITTO/mukittoá: Izen arrunta. Beheko suan zein txapan erretzen den edozein egur tako. (Azk.-).

Mend.: "ekarxu mukittotxu bet bekosuan ipiñtteko!"

Form. land.: ekarri eizu mukittotxu bat beheko suan ipintzeko!

MURMU/murmué: Izen arrunta. Katarroaz edo gripez gaudenean izaten den buruko mina, gogo txarra eta sukarra. (Azk. Murmu).

Mend.: "dekosun murmuas obeto ogera joaten basara!"

*Form. land.: daukazun **murmuas** hobeto ohera joaten bazara!*

MURMUSKETAN/murmúsketan ibilli: Aditza. Marmarketan ibiltzea. (Azk. Murmuzika).

*Mend.: "orrepe beti **murmusketan ibilltie** baño estekola beste bierrik esan lei!"*

*Form. land.: horrek be beti **murmusketan ibiltzea** baino ez daukola beste beharrik esan leike!*

MUSKILL/muskillé: Izen arrunta. Sagarra zein madaria jan ostean gelditzen den hondakina. (Azk. Muskil, 1^a).

*Mend.: "sagarra jaten sunien bota **muskille** basurera!"*

*Form. land.: sagarra jaten dozunean bota **muskille** basurera!*

MUSTEGITTU/mustegittú: Aditza. Txahal txikiak eta bere amaren errapera eraman eta esnea probatzen emateari deitzen zaio honela. (Azk. Mustatu)

*Mend.: "apurbet **mustegittute** ondo daus txalak beiyek esteko esne asko be ta!"*

*Form. land.:apur bat **mustegittute** ondo dagoz txahalak behiak ez dauka esne asko be eta!*

MUSTIEN/mustién: Adberbioa. Haurrak ur putzuetan eta jolasten buzti-buzti eginda pozik ibiltzen direnean . (Azk.-)

*Mend.: "ori mutiltxue be **mustien** pozik dabil ba or ur potxingoan e!"*

*Form. land.: hori mutiltxoia be **mustien** pozik dabil hor ur potxingoan e!*

MUXEK/múxek: Izen arrunta. Inongo arrazoirik gabe negarrez eta zarataka hasiz mundu guztiarekin haserretzea. (Azk. Musiña).

*Mend.: "oiñbe joan da **muxekin...** nik estetzet aitzen!"*

*Form. land.: orain be joan da **muxekin...** nik ez dautset aitzen!*

N

NABAR/nabarrá: 1^a Adjetiboa. Kolore ugari dituen, edo kolore beltza eta zuria. (Azk. Nabar, 1^a). 2^a Adjetiboa. Pertsona gangar eta zaratatsua dena. (Azk. Nabar, 6^a).

Mend.: "bei nabarra erosi geu atzo Abadiñon!"

Form. land.: behi nabarra erosi dogu atzo Abadiñon!

NANARA/nanarie: Adjetiboa. Normalean pertsonak izan dezakeen fundamentu eskasaz esaten da. (Azk.-).

Mend.: "suk dekosun nanarias estaitt nosko amaituko sun ori bierra!"

Form. land.: zuk daukazun nanarias ez dakit noizko amaituko dozun hori beharra!

NARDAKA/nardakié: Izen arrunta. Esate baterako idiekin zein behiekin soloa goldatzen gabiltzanean golda hori buztarriaz lotzen duen egur sendoa da *nardaka*, luzeran *nardia* baino zerbait laburragoa eta goldari oratzeko duen katea ere *nardiarena* baino laburragoa da. (Azk. Nardaka, 2^a).

Mend.: "idi probetan nardakie solteu de da gero ainbet lusetu die probak!"

Form. land.: idi probetan nardakie soltau da eta gero hainbat luzatu dira probak!

NARDI/nárdiye: Izen arrunta. Idi, zaldi, asto probetan harria eta buztarria lotzen duen egur sendoz eginiko pieza luzea. Pieza honek bai buztarrira lotzen duen puntan zein harria lotzen duenekoan burdinazko gantxo bat izaten du, azken punta honetan *nardakak* izaten duen baino kate luzeagoarekin, harriari oratu eta probalekuan buelta eman behar duenean errazago izateko. (Azk. Nardai, 2^a)

Mend.: "idi probak daus biyer Meatan da nardiye be prest euki biko da!"

Form. land.: idi probak dagoz bihar Mendatan eta nardiye be prest euki beharko da!

NAR/narrá: Izen arrunta. Lehenagoko denboretan baserrietan eta erabiltzen zen lera, egurraz eginikoa zen eta behiak tiratuta erabiltzen zen. (Azk. Nar, 2^a)

Mend.: "terreno aldapatsuetan eta narra erabillten san burdiye baño geiyau!"

Form. land.: terreno aldapatsuetan eta narra erabiltzen zan burdia baino gehiago!

NARRAS/narrasá: 1^a Adjetiboa. Pertsona baldarra, ezergatik arduratzen ez dena. (Azk. Narras). 2^a Izen arrunta. Eguraldi eskasa, iluna, euriaz, hotzaz, ... (Azk.-).

Mend.: "geur dekeun egun narrasas soloan be esiñ lei bierrik eiñ!"

Form. land.: gaur daukagun egun narrasas soloan be ezin leike beharrik ein!

NARRATU/narratué: Izen arrunta. Euriteen ondorioz baso zein landetan sortzen diren lur mugimenduak. (Azk.-).

Mend.: "beiyek ibillten dien landan be itzelesko narratue eiñye atzo!"

Form. land.: behiak ibiltzen diran landan be itzalezko narratue ein da atzo!

NESIYO/nesiyoá: Adjetiboa. Erraz haserretzen dena, beti berea eta besteenari kasurik ez diena egiten, inozoa. (Azk.-).

Mend.: "ori umie selan nesiyotute plantetan da gero!"

Form. land.: hori umea zelan nesiyotute paretan da gero!

O

ODOLAN-ALDI/odolán aldiyé: Izen arrunta. Abereak izaten duten gaixotasuna, batez ere txerriak. Sukarra eta larru azaleko mantxa gorrien bitartez adierazten da. (Azk. Odolaldi).

Mend.: "txarriyek odolán-aldiye dekonien ona ixeten da belarri puntie ebatie!"

Form. land.: txerriak odolán-aldiye daukanean ona izaten da belarri puntea ebagitzea!

OGE-SERU/ogé-serué: Izen arrunta. Antzina, ohearen parean goialdetik zintzilikatuta jartzen ziren gortina antzekoak, goitik behera zetorren hautsa eta zikinkeriak ohea zikin ez zezan. (Azk. Oezeru).

Mend.: "kamaratik kuartuetara eutz asko dator da ogeserue ipiñi bide oyetan!"

Form. land.: kamaratik logelatara hauts asko dator da ogeserue ipini behar da oheetan!

OGEIKARRI/ogeikarriyé: Adjetiboa. Pertsona nekagarri eta pelma dena. (Azk. Gogaikarri).

Mend.: "ori de ogeikarriye berana konsegidu artien geldittu es!"

Form. land.: hori da ogeikarriye berena lortu artean gelditu ez!

OIÑESTARRI/oiñestárriyé: Izen arrunta. Tximista batek zerbait harrapatu eta erre egiten duenean. (Azk. Oiñastarri).

Mend.: "emendixik urrun barik jeusi de oiñestariye!"

Form. land.: hemendixik urrun barik jausi da oiñestariye!

OKILL/okillé: Izen arrunta. Zuhaitzen enborrak zulatuz, biribil biribilean habiak moldatzen dituen hegaztia. (Azk. Okil, 1^a).

Mend.: "etzeurreko piñuen eiñ yeu okillek abiyie eurton!"

Form. land.: etxe aurreko pinuan ein dau okillek habia aurton!

OKOTZ/okotzá: Izen arrunta. Gizakiak ahoaren azpialdean duen irtenunea. (Azk. Okotz).

Mend.: "okotzien dekosun eridie nun eiñsu?"

Form. land.: okotzien daukazun eridea non ein dozu?

OLATATU/olatatú: Aditza. Zerbait guztiz gogortuta dagoenean esaten da. Esate baterako baserritarrek lehorte baten ondoren lurrak *olatatuta* daudela esaten dute, edo ogia bera egun batzutan eduki ezkeru *olatatu* egiten da. (Azk.-).

Mend.: "ori ogiye olatatute dau te nik esiñ yot jan!"

Form. land.: hori ogia olatatute dago eta nik ezin dot jan!

OLO/oloá: Izen arrunta. Zaldi, hegazti eta beste abereei ematen zaien zereale mota bat. (Azk. Olo, 1^a).

Mend.: "oloa ona ixeten da beiyentzat be!"

Form. land.: oloa ona izaten da behientzat be!

OLLOGOR/ollogorrá: Izen arrunta. Oilagar. Zango luze, moko zuzen luze eta kolore beltzarana duen hegaztia. (Azk. Oilagor).

Mend.: "len oillogor asko be geiyau egoten san emendik!"

Form. land.: lehen oillogor askoz be gehiago egoten zan hemendik!

OLLO-LOKA/ollolókíe: 1^a Izen arrunta. Arraultzak habian berotuz txitak ateratzeko prest dagoen oilanda. (Azk. Oilaloka). 2^a Adjetiboa. Urduritasunaz geldiezina duen pertsonaz ere esaten da. (Azk.-).

Mend.: "ori mutillori ollo-lokie da esta gelditu momentu baten be!"

Form. land.: hori mutil hori ollo-lokie da ez da gelditu momentu batean be!

ONDOKER/ondókerra: Izen arrunta. Enborra oker itxurakoa duten zuhaitzak, normalean urkiak izaten dira. (Azk.-).

Mend.: "guk lengunien be ekarri gendun ondoker bat basotik!"

Form. land.: guk lehengo egunean be ekarri genduan ondoker bat basotik!

ONDRA/ondrié: Izen arrunta. Elizkizuna edo funerala. (Azk.-).

Mend.: "Andra Mariye martireko kukue espadator ondrak eiñ bidies!"

Form. land.: Andra Mari martirako kukua ez badator ondrak ein behar dira!

ONILL/onillé: Izen arrunta. Lehenagokoek txorizoak zein odolkiak egiteko erabiltzen zuten latoizko inbutu txikitxoak. (Azk. Onil).

Mend.: "len onillas ainbet denpora tardetan san txoixoak eskus eitten!"

Form. land.: lehen onillas hainbat denbora tardatzen zan txorizoak eskuz eiten!

ONKOMUN/onkomuné: Izen arrunta. Esate baterako baserritarrek esaten dute ba behientzako belar on gutxi eta eskas asko dutenean, lehenengo on guztia eman beharrean eta gero eskasa, biekaz onkomuna egiten dela, ona eta eskasa biak bat eginik. (Azk.-).

Mend.: "au bedar berdie da gosoa da bestiegas onkomune eiñye jango dabe beiyek!"

Form. land.: hau bedar berdea da gozoa eta besteagaz onkomune einda jango dabe behiak!

ONTZA/ontzié: Izen arrunta. Esate baterako txokolate tabletatik hartzen den zatitxoak. (Azk.-).

Mend.: "txokolate ontza batzuk eroan bitas beiyendetarako!"

Form. land.: txokolate ontza batzuk eroan behar dodaz meriendarako!

ONTZU/ontzú: Adberbioa. Gauza bat edo ekintza bat orain dela denbora gutxi gertatu dela adierazteko erabiltzen da. (Azk. Ontsu, 2^a).

Mend.: "ontzu etorri de mutikoa eskolatik!"

Form. land.: ontzu etorri da mutikoa eskolatik!

ONURA/onurié: Izen arrunta. Ondasunak. (Azk.-).

Mend.: "orren andrien onurias be jabetuko da nonor esteko familirik baya!"

Form. land.: horren andrearen onurias be jabetuko da norbait ez dauka familiarik baina!

OÑETZ/oñetzá: Izen arrunta. Esate baterako lurrean ibiltzean oinek uzten duten arrastoa edo marka. (Azk. Oiñatz).

Mend.: "oñetzak emen daus de emendik paseuko sien saldiyek!"

Form. land.: oñetzak hemen dagoz eta hemendik pasauko ziran zaldiak!

OPILL/opillé: Izen arrunta. Itxura biribileko ogi txikitxoak. (Azk. Opil, 3^a).

Mend.: "nik opille eroangot amaiketako eitteko!"

Form. land.: nik opille eroango dot hamaiketako eiteko!

ORANDILLA/orandíllie: Izen arrunta. Madari mota bat.(Azk.-).

Mend.: "guri be galdu yaku orandillien arbolie!"

Form. land.: guri be galdu yaku orandillien arbolea!

ORBEL/orbelá: Izen arrunta. Lurrera eroritako hosto lehor multzoari deitzen zaio honela. (Azk. Orbel, 1ª).

Mend.: "or arte aspiyen mañabat orbel dau te arratsaldien batu biko die!"

Form. land.: hor arte azpian makina bat orbel dago eta arratsaldean batu beharko dira!

ORBELDERA/orbeldérie: Izen arrunta. Gaztaina, haritz, pago zein hostodun beste zuhaitz batzuen derdama lehorrei deitzen zaie. (Azk. Orbel, 1ª).

Mend.: "etzeurrien orrek orbelderak motz eitten dabe ta batu biko dies!"

Form. land.: etxe aurrean horrek orbelderak motz eiten dabe eta batu beharko dira!

ORDOTZ/ordotzá: Izen arrunta. Txerri arra. (Azk. Ordots).

Mend.: "guk geuk oiñ beti eukitteus ordotzak!"

Form. land.: guk geuk orain beti eukitzen doguz ordotzak!

ORA/orié: Izen arrunta. Arto irina ur epelarekin nahastuaz masa bat eginez hegaztiei ematen zaien janaria. (Azk. Ora, 1ª)

Mend.: "ora pur bet emon biko yakie or dausen olloari geur ez dabe ezer jan eta!"

Form. land.: ora apur bat eman beharko jake hor dagozan oiloai gaur ez dabe ezer jan eta!

ORIEU/oríeu: Aditza. Toki itxietara airea sartzen utzi, logelan, jangelan ... (Azk.-)

Mend.: "eskatzien daben beste keas apur bet orietako bentanie edei biko da!"

Form. land.: eskatzean dagoen beste kegaz apur bat orietako bentanea edegi beharko da!

ORKATILLA/orkatíllie: Izen arrunta. Zangoak eta oinak bat egiten duen lekua. (Azk. Orkatila, 1ª).

Mend.: "orkatillie trokatu dot eta miñegas nau!"

Form. land.: orkatillie trokau dot eta minegaz nago!

ORMASA/ormásak: Izen arrunta. Karotidak dira, abere bertebradoetan zamaren alderdi bietatik odola burura eramaten duten arteria bi. Pertsona bat oso argal dagoenean ormasak ere ikusi egiten zaizkiola esaten da. (Azk. Ormaza).

Mend.: "argalan argalas ormasak be ikusi eitten yakos!"

Form. land.: argalaren argalagaz ormasak be ikusi eiten jakoz!

ORPO/orpoá: Izen arrunta. Giza oinaren atzekaldea. (Azk. Orpo, 1ª).

Mend.: "orrek sapatak orpoan miñ eittestie!"

Form. land.: horrek zapatak orpoan min eiten daustie!

ORRASISTU/orrasistué: Izen arrunta. Zahia zein zorriak kentzeko erabiltzen zen hortz estuko orrazia. (Azk.-).

Mend.: "antziñe danori pasetaskuen orrasistue da arek bai eitten ban miñ!"

Form. land.: antzina danori pasetan euskuen orrasistue da harek bai eiten eban min!

ORROI/orroyé: Izen arrunta. Oihua, garrasia, deiadarra. (Azk. Orroe).

Mend.: "ixen dan orroyegas se paseu den ikusten joan bikeu!"
Form. land.: izan dan orroyegas zer pasau dan ikusten joan beharko dogu!

ORTIOS/ortió: Adjetiboa. Gauzak zuzen, metodo eta ordenu batez egiten dituenaz esaten da. (Azk. Ortioz 1^a/2^a).

Mend.: "gastetxuek die baya bierra ortios eitten dakiye gero!"
Form. land.: gaztetxuak dira baina beharra ortios eiten dakite gero!

OSALA/osálie: Izen arrunta. Naboa eta erremolatxa egosi ondoren garagar urunarekin nahastuta txerriei ematen zaien janaria. (Azk.-).

Mend.: "osalie prepareu biko da txarriyek gose die ta!"
Form. land.: osalie preparau beharko da txarriak gose dira eta!

OSTAS-OSTAS/ostás-ostás: Adberbioa. Justu justuan. (Azk.-).

Mend.: "orrek kotxiek ostas-ostas igon deu aldatza!"
Form. land.: horrek kotxeak ostas-ostas igo dau aldapea!

OTABARRA/otábarrie: Izen arrunta. Mendian ateratzen den zuhaixka, metro bat inguruko altuera hartzen du, lore horiak izaten ditu eta hostoak izan beharren pintxoak izaten ditu. Batzuetan ogia ere gogorra dagoela adieratzeko *otabarrie* baino gogorragoa dela esaten da, edo pertsona bat zakarra bada *otabarrie* bezain ligorra dela esaten da. (Azk.Otabar).

Mend.: "geur nik estakitt ser dekosun baya otabarrie baño ligorrau saus!"
Form. land.: gaur nik ez dakit zer daukazun baina otabarrie baino ligorrigo zagoz!

OTZAKILL/otzakillé: Izen arrunta. Beti hotz sentitzen duen pertsona. (Azk.-).

Mend.: "selako otzakille sara baya... gaur ez badago hotzik!"
Form. land.: zelako otzakille zara baina... gaur ez badago hotzik!

P

PANTORRILLA/pantorríllie: Izen arrunta. Berna, zangoaren atzealdean dagoen bola itxurako alde haragitsua. (Azk.-).

Mend.: "arratzaldien aínke eín yoste txakurrek pantorrillen!"

Form. land.: arratsaldean haginka egin daust txakurrak pantorrillen!

PAPAR-GORRI/papargórriye: Izen arrunta. Txindorra, txantxangorria, txoritxo kantaria. (Azk. Papar-gorri).

Mend.: "untxe udaberriyen asten die papargorriyek etorten!"

Form. land.: oraintxe udaberrian hasten dira papargorriyek etorten!

PARAKEST/parakestá: Adjetiboa. Oso urduria eta geldi egon ezina duenaz esaten da. (Azk. Parakesta).

Mend.: "au umie dan parakestas lo dauenien be estaitt selan egoten dan geldi!"

Form. land.: hau umea dan parakestas lo dagoenean be ez dakit zelan egoten dan geldi!

PARRASTADA/parrastadié: Izen arrunta. Edozein likidoren isurketa. (Azk.-).

Mend.: "ardauan parrastada bat botaste ta garbittu bikot txamarrie!"

Form. land.: ardauaren parrastada bat bota deust eta garbitu beharko dot txamarrea!

PASTEKUN/pastékune: Izen arrunta. Santu baten irudia duen objektu erlijiosoa. Lehenagoko denboretan ohitura zenez, mezatan elizmutilak pasatzen zuen eliztarrek gurtutzeko. (Azk.-).

Mend.: "pastekunen oitturie antziñe galdu sen!"

Form. land.: pastekunen ohiturea aintzina galdu zan!

PATAN/pataná: Izen arrunta. Menta. (Azk. Patan).

Mend.: "eurton patanak usiñ itzela deko!"

Form. land.: aurton patanak usain itzela dauka!

PATEI/pateiyé: Izen arrunta. Esate baterako landa batean abere multzoa dagoenean *patei* haundia dabilela esaten dugu, hau da, hanka asko. (Azk. -).

Mend.: "or mendiyen dabillen pateiyas esta bedar asko geldituko!"

Form. land.: hor mendian dabilen pateiyas ez da bedar asko geldituko!

PATIÑ/patiñé: Izen arrunta. Baserri inguruetan egoten ziren putzu nahiko sakonak, normalean abereak ura edan zezaten erabiltzen zituzten. (Azk. patin, 1^a).

Mend.: "antziñe sarratu sen beiyentzako euki gendun patiñe!"

Form. land.: aintzina zarratu zan behientzako euki genduan patiñe!

PELUSTRE/pelústrie: Adjetiboa. Aspergarri eta gogaikarria den pertsonaz esaten da. (Azk. -).

Mend.: "beittu, estot esetu ori baño gixon pelustriaurik!"

Form. land.: begitu, ez dot ezagutu hori baino gizon pelustriaurik!

PENDIX/pendixé: Izen arrunta. Toki aldapatsua. (Azk. Pendiz, 1^a).

Mend.: "or pendixien estakitt bixikletan igongo basu!"

Form. land.: hor pendixien ez dakit bizikletan igoko badozu!

PENDOLA/pendólie: Izen arrunta. Horman jartzen diren erloju mekanikoak izaten duten segunderoa. (Azk.-).

Mend.: "pendolie geldittute deko ta kuerdie emon biyako erlojueri!"

Form. land.: pendolie geldituta dauka eta kuerda emon behar jako erlojuari!

PENTZURE/péntzure egon: Aditza. Norbaiten menpe edo berak esaten duenaren begira egon. (Azk. Pentzutara).

Mend.: "pentzetasu seure pentzure egongo nasela beti ... ona saus!"

Form. land.: pentsetan dozu zure pentzure egongo nazela beti ... ona zagoz!

PERLESI/perlesiyé: Izen arrunta. Norberak kontrolatu gabe burua zein besoak mugituz adierazten den gaixotasuna. (Azk.-)

Mend.: "au gure ausokoa be perlesiyegas dau!"

Form. land.: hau gure auzokoa be perlesiyegas dau!

PERTZEKUSIÑO/pertzekusiñoá: Izen arrunta. Preokupazioa edo kezka. (Azk.-).

Mend.: "illoba biyek dekotas neugas da nik dekot pertzekusiñoa arek saintzen!"

Form. land.: iloba biak dodaz neugaz da nik daukat pertzekusiñoa hareek zaintzen

PERTXETA/pertxétie: Adjetiboa. Dotorea eta *jagia* (Ikus. Jagi) den andreaz esan ohi da. (Azk. Pertseta, 2^a).

Mend.: "dekosan urtiakas be oniño selako pertxetie daben ori gero!"

Form. land.: daukazan urteakaz be oraindik zelako pertxetie dagoen hori gero!

PERUSTU/perustú: 1^a Aditza. Txotxolotu, ganorabakotu. (Azk.-). 2^a Aditza. Harrotu, fanfarroatu. (Azk.-). 3^a Perustute egon. Aditza. Udako egun sargoritsuak eta eragiten duten gorputzaldi nekatua. (Azk.-).

Mend.: "geur eitten daben denpora sargoriyas sietz perustute nau!"

Form. land.: gaur eiten dauan denbora sagoriagaz zietz perustute nago!

PETURA/peturié: Izen arrunta. Fundamentua, ganora; normalean ganorarik eza adierazteko erabiltzen da, hau da, ezezko kutsuarekin. (Azk.-).

Mend.: "suk dekusun peturias es takitt nosko amaittuko sun karrerie!"

Form. land.: zuk daukazun peturias ez dakit noizko amaituko dozun karrera!

PIKOMALLU/pikomállue: Izen arrunta. Kodaina zorrozteko erabiltzen den tresna bat. Norbera jesartzekoa egurrez egina dago, eta kodaina mailuaz jotzen den tokia burdinazkoa izaten da. (Azk.-).

Mend.: "pikomailu barriye ein bikot au apurtu de ta!"

Form. land.: pikomailu barria ein beharko dot hau apurtu da eta!

PIRRILERA/pirrilérie: Izen arrunta. Pertsonak zein animaliek izan dezaketen beheranzkoa. (Azk. Pirri-pirri).

Mend.: "txala be pirrilerias dekeu te es yako emon bier esne geiyau!"

Form. land.: txahala be pirilerias daukagu eta ez jako emon behar esne gehiago!

PIRRITTADA/pirritadié: Izen arrunta. Edozein likidoren tanta. (Azk.-).

*Mend.: "mai ganera jeusi diesan esne **pirritadak** garbittu eixus!"*

*Form. land.: mahai gainera jausi diran esne **pirritadak** garbitu eizuz!*

PITTIÑ/pittiñé: Adjetiboa. Zerbaiten kopuru edo kantitate txikia. (Azk. Pitin, 1^a-2^a).

*Mend.: "ori gastai **pitiñe** baño geiyau gudot nik!"*

*Form. land.: hori gazta **pitiñe** baino gehiago gura dot nik!*

PITX/pitxé: Izen arrunta. Sarritan sua pizteko erabiltzen den erretxinazko pinu egurra. (Azk.-).

*Mend.: "au sue inundik inora be esiñ lei ixetu **pitxik** barik!"*

*Form. land.: hau sua inundik inora ere ezin leike piztu **pitxik** barik!*

PLATUSA/platúsie: Adjetiboa. Ibilera baldarrak eta dotoretasunik ez duen pertsona zein animaliaz esaten da. (Azk.-).

*Mend.: "ori gure bei barriye baño **platusiaurik** eskeu sekule kortan euki!"*

*Form. land.: hori gure behi barria baino **platusiaurik** ez dogu sekula kortan euki!*

PLEUSTA/pleústie: Adjetiboa. Inoiz ezertarako gogo barik dagoenaz esaten da. (Azk.-).

*Mend.: "aspaldiyon sietz **pleustatute** sausela pentzetan dot nik!"*

*Form. land.: aspaldian zietz **pleustatute** zagozela pentsetan dot nik!*

POSPOLIÑ/pospoliñé: Izen arrunta. Oiloan antzekoa den paseko hegaztia. Bere kanta bereizgarriagatik datorkio izen hori. (Azk. Pospolin, 1^a).

*Mend.: "kasan joan eurretik **pospiliñas** prepareu biot txakurre!"*

*Form. land.: ehizan joan aurretik **pospiliñas** preparau behar dot txakurra!*

POSTAMA/postamié: Izen arrunta. Larruazaleko pusla urtsua. (Azk.-).

*Mend.: "txarriyeri be **postamak** urten jakoz da beternaiyoari deittu biko yako!"*

*Form. land.: txarriari be **postamak** urten jakoz da albaitariari deitu beharko jakol!*

POTIÑ/potiñé: 1^a Izen arrunta. Udaberrian zuhaitzak lorlan egon ondoren izaten duten ernamuina. (Azk.-). 2^a Adjetiboa. Pertsona laburra edo motzaz esaten da. (Azk. Potin, 2^a).

*Mend.: "**potiñ** asko dekíe madariyek eurton da asko euko dabela esan lei!"*

*Form. land.: **potiñ** asko daukate madariak aurton eta asko eukiko dabela esan leike!*

POTIXANKA/potixánkie: Adjetiboa. Hara eta hona etengabe, geldirik egon ezinik eta urduritasunaz dauden haurrei esaten zaie. (Azk.-).

*Mend.: "**potixankiori** esinsu geldi egon engonsu miñen bat!"*

*Form. land.: **potixankiori** ezin dozu geldi egon eta eingo dozu minen bat!*

POTOTZ/pototzá: Adjetiboa. Txikia, potoloa eta itxura biribila duenez esaten da. (Azk. Potos, 2^a).

*Mend.: "oniño gastetxue da ta **pototz-pototza** dau baya argalduko da!"*

*Form. land.: oraindik gaztetxoa da eta **pototz-pototza** dau baina argalduko da!*

POTRILL/potrillé: Adjetiboa. Txikia, eskasa. (Azk.-).

*Mend.: "or landa **potrillen** daben bedarra ebateko esta bier denpora asko!"*

*Form. land.: hor landa **potrillen** dagoen bedarra ebateko ez da behar denbora asko!*

POTXINGO/potxíngo: Izen arrunta. Euria egin ondoren sortzen diren ur putzu txikiak. (Azk. Potsingo).

*Mend.: "euriye botalan ixen arren umie han ibili da **potxingoetan** plasta-plasta!"*

*Form. land.: euria bota ahalean izan arren umea han ibili da **potxingoetan** plasta-plasta!*

POTXI/pótxiye: Izen arrunta. Soloan indaba zein artoa ereiteko egiten den zuloa. (Azk. Potsi).

*Mend.: "guk **potxire** ereiñ geu artoa be baya batzuk markadoras ereitten dabe!"*

*Form. land.: guk **potxire** erein dogu artoa be baina batzuk markadoragaz ereiten dabe!*

PREMIÑIE/premiñie eduki: Aditza. Zerbaiteko beharizana eduki. (Azk. Premia).

*Mend.: "ulie ebateko **premiñie** be galanta dekot!"*

*Form. land.: ulea ebateko **premiñie** be galanta daukat!*

PRONTZU/prontzué: Izen arrunta. Pozua. (Azk. Pozu, 1^a).

*Mend.: "ortixik **prontzutik** atara biko da piperrari eiteko ure!"*

*Form. land.: hortixik **prontzutik** atara beharko da piperrari eiteko ura!*

PUNEMENTU/puneméntue: Izen arrunta. Fundamentua edo ganora. (Azk.-).

*Mend.: "dekosun **punementuas** estakitt nosko leiduko sun ori librue!"*

*Form. land.: daukazun **punamentuas** ez dakit noizko leiduko dozun hori liburua!*

R

RAKUTXU/rakutxué: Adjetiboa. Petrala denaz esaten da. (Azk.-).

*Mend.: "orixe mutillori be tamañuko **rakutxue** bada gero!"*

*Form. land.: horixe mutila be tamainuko **rakutxue** bada gero!*

S

SABI/sabiyé: Izen arrunta. Edozein landara motak izan dezakeen sustrai multzoari deitzen zaio honela. (Azk. Sabi, 1^a)

*Mend.: "orrek piper landariek **sabi** andiyek dekos!"*

*Form. land.: horrek piper landareak **sabi** handiak ditu!*

SAGAR-BALTZ/sagár-baltzá: Izen arrunta. Urte askotan inguru hauetako sagardietan oso famatua izan den sagar mota bat. (Azk.-).

*Mend.: "ongo aldién len mañabat **sagar-baltz** egon san!"*

*Form. land.: oraingo aldean lehen makina bat **sagar-baltz** egon zan!*

SAISKI/saískiye: Izen arrunta. Saihetseko okela. Hemen ohitura da txerriaren saiheskiari gatza eta piperra ematea, onduta gero jateko. (Azk. Saiheski, 1^a).

*Mend.: "lelengo txarriyek onek baño **saiski** andiyabak euki basen!"*

*Form. land.: lehenengo txarriak honek baino **saiski** haundiagoak euki ebazan!*

SAI/saiyé: 1^a Izen arrunta. Zahia. Garia eho ondoren gelditzen den hondakina, normalean ganaduari ematen zaio jateko. (Azk. Zai, 1^a). 2^a Izen arrunta. Buruko larruazalean sortzen den ezkata fin zuria. (Azk. Zai, 3^a).

*Mend.: "or buruen dekosun **saiye** kentzeko eskatu biko yako medikueri seuser!"*

*Form. land.: hor buruan daukazun **saiye** kentzeko eskatu beharko jako medikuari zeozer!*

SAKARA/sakaraié: Izen arrunta. Soroko belar edo landare hondakinak. Hondakin hauek batzuetan soroan erretzen dira erretura eginez (Ikus. Erreturie). (Azk. Sakara, 2^a).

*Mend.: "orren kipulen **sakarie** batu te eroan eiñ bide ortik!"*

*Form. land.: horren kipulan **sakarie** batu eta eroan ein behar da hortik!*

SAKARIS/sakarís: Adberbioa. Zapatilak zein abarketak sartu gabe jantzi, hau da, orpopean erabili. (Azk.-).

*Mend.: "**sakaris** ibil barik jantzixus bidamoduen abarketak!"*

*Form. land.: **sakaris** ibili barik jantzi eizuz behar dan moduan abarketak!*

SAKATZAK/sakátzak atara: Izen arrunta. Kontuak atera edo eskatu norbaiti zerbaitegaitik. (Azk. Sakatz).

*Mend.: "neuk aginttuniko bierra espasu eitten neuk **sakatzak** atakotzutes suri!"*

*Form. land.: nik agindutako beharra ez badozu egiten nik **sakatzak** atarako deusudaz zuri!*

SAKOSTA/sakostié: Izen arrunta. Sakonunea, barrankoa. (Azk. Sakosta).

*Mend.: "tratorik esixu eroan orra **sakostara** gero esiñ ixengeu urten da!"*

*Form. land.: traktorik ez eizu eroan horra **sakostara** gero ezin izango dogu urten eta!*

SALA/salá: Izen arrunta. Sendoa, indartsua eta apurtzeko edo ebateko zaila den zerbait, normalean janarietaz esaten da, esate baterako okela. (Azk. Zal, 4^a).

*Mend.: "ori okelie ondo **sala** dau ba!"*

*Form. land.: hori okelea ondo **sala** dago ba!*

SALIE/salié: Atzizkia. Izatez atzizkia da (diruzale, etxezale...) baina hemen berau bakarrik

erabiltzeko joera dago. (Azk. Zale, 1^a).

*Mend.: "ori gizona esta **salie** inori eser emoten gero!"*

*Form. land.: hori gizona ez da **salie** inori ezer emoten gero!*

SALTOMATXINGO/saltomatxíngo: Izen arrunta. Atzeko zangoekin jauzika saltoka ibiltzen den, kolore berde, hori edo iluneko intsektua. *Salto matxiñe* izenaz ere ezagutzen da. (Azk. Saltamatsino).

*Mend.: "uden **saltomatxingo** ugeri ibilltten da bedarrien!"*

*Form. land.: udan **saltomatxingo** ugari ibiltzen da bedarrean!*

SAMAR/sámarra: Izen arrunta. Begian zerbait sartzen zaigunean egiten digun lausoa edo enbarazuari deitzen zaio honela. (Azk. Zamarra, 2^a).

*Mend.: "**samarra** dekot eskerreko begiyen da estot ondo ikusten!"*

*Form. land.: **samarra** daukat ezkerreko begian eta ez dot ondo ikusten!*

SANBEDAR/sanbedarrá: Izen arrunta. Hosto zabaleko belar mota bat da. (Azk. Zanbedar).

*Mend.: "ortxe ortuen be eurtan urten dabe **sanbedarrak**!"*

*Form. land.: hor ortuen be aurtan urten dabe **sanbedarrak**!*

SANBI/sánbiye: Adjetiboa. Hankak edo zangoak kanpoko alderantz apur bat okertuta dituen pertsona zein animaliaz esan ohi da. (Azk.-).

*Mend.: " ori gure saldiye be apur bet **sanbiye** bada baya bierrerako itzela da!"*

*Form. land.: hori gure zaldia be apur bat **sanbiye** bada baina beharrerako itzela da!*

SANBLAKADA/sanblakadié: Izen arrunta. Esate baterako leku aldapatsu batean belar lehorra zein azpigaia ditugunean eta bertara traktorik edo astorik eraman ezin, belar hori handik nolabait atera behar da, orduan baserritarrek egiten dutena zera da: hartu zuhaitzen baten derdama handi eta zabala, bertan gainean jarri belarra eta bultza eginez bajatzen dute beheko aldeetarantz, karga era horretan garraiatzeari deitzen zaio honela. (Azk.-).

*Mend.: "aspigarri **sanblakadie** ondo bajatu geu aldrapatik!"*

*Form. land.: aspigarri **sanblakadie** ondo bajatu dogu aldrapatik!*

SANBRO/sanbroá: Izen arrunta. Gorputz azalean ateratzen diren grano zabalak eta haragia ere ia agerian uzten dutenak. (Azk. Zanbro, 1^a).

*Mend.: "bitxoan batek pikeutzo ta dana deko **sanbroa**!"*

*Form. land.: bitxoaren batek pikatu dautso eta dana dauka **sanbroa**!*

SANKABE/sankábie: Izen arrunta. Izterraren atzeko aldea. (Azk.-).

*Mend.: "landan birinbolaka jeusi ta **sankabie** urrutu dot!"*

*Form. land.: landan birinbolaka jausi eta **sankabie** urrutu dot!*

SANTIETU/santíetue: Izen arrunta. Besoa, zangoa, zein atzamarren bat bihurtzen denean konjuro baten bitartez sendatu. *Santietu* hau pertsona gutxi batzuk jakiten dute egiten, eta beraiek esaten dutenez belaundalditik belaunaldira familiako bakar batek hartzen du sekretuaren testigua. (Azk. Zantiratu).

*Mend.: "orkatillie trokatu dot eta banoa geur **santietue** eitten!"*

*Form. land.: orkatilea trokatu dot eta banoa gaur **santietue** eiten!*

SAPABEDAR/sapabedarrá: Izen arrunta. Soroetan ateratzen den bedar txarra. (Azk. Sapabedar)

*Mend.: "or dausen **sapabedarrak** kentzen badekeu bierra arratzalde osorako!"*

*Form. land.: hor dagozan **sapabedarrak** kentzen badaukagu beharra arratsalde osorako!*

SAPARRADA/saparradié: 1^a Izen arrunta. Garrasia edo oihua. (Azk.-). 2^a Izen arrunta. Euria, edurra zein txingorra ari duenean. (Azk. Zaparrada).

*Mend.: " dan edur **saparradiás** eser esta ikusi be eitten!"*

*Form. land.: dan edur **saparradiás** ezer ez da ikusi be eiten!*

SAPARRO/sapárroa: Izen arrunta. Hamar, hamabi urteko mutil gaztetxo. (Azk. Zapparote).

*Mend.: "orrek **saparroak** eitten deu bierrik ala?"*

*Form. land.: horrek **saparroak** eiten dau beharrik ala?*

SAPA/sapié: Izen arrunta. Behi nahiz idiei uztarria jartzeko bekokian ipintzen zaien larruzko pieza. Artilezko hari gorriaz dekoratuta egoten da eta hariok melena itxuran dindilizka jartzen dira. (Azk. Sapa, 6^a).

*Mend.: "oiñ be feriyetan eta ikusten die idi busterriyek **sapa** gorri dotoriekaz eta!"*

*Form. land.: orain be feriatan eta ikusten dira idi buztarriak **sapa** gorri dotoreakaz eta!*

SAPUTZ/saputzé: Adjetiboa. Dotoretasun gabeko pertsona. (Azk. Zaputz).

*Mend.: "selan ixen leike umie aiñ **saputze**... ipiñxus erropak ondo!"*

*Form. land.: zelan izan leike umea hain **saputze**... ipini eizuz arropak ondo!*

SAPUTZEKOA/saputzekoá eman: Aditza. Belarrondokoa, kokotekoa eman. (Azk. Sapuztu, 3^a).

*Mend.: "ixilik espasaus **saputzeko** bat emongo tzut!"*

*Form. land.: ixilik ez bazagoz **saputzeko** bat emongo deutsut!*

SARAKETA/saráketan: Aditza. Soroan ortuarien artean eta dauden belarrak kentzeari deitzen zaio honela. (Az. Saraketan).

*Mend.: "an piper artien daben beste bedarregas ainbet **saraketa** eiñ bide!"*

*Form. land.: han pipar artean dagoen beste bedarregaz hainbat **saraketa** ein behar da!*

SARAMA/saramié: Adjetiboa. Pertsona motela, geldoa eta erremangu gutxi duenaz esaten da. (Azk. Sarama, 2^a)

*Mend.: "ori gixajori be ondo **saramie** da ba!"*

*Form. land.: hori gizajo hori be ondo **saramie** da ba!*

SARDATXUR/sardatxurré: Izen arrunta. Kirten luzea eta burdinazko hortz zorrotz okerrak dituen lanabesa, soroan sakarak batzeko, burdian belar sikua kargatzeko edo kortan simaurra batzeko erabiltzen da. (Azk. Aitzur, 1^a, Aitzur-sarde).

Mend.: "sardatxurre biot kortako satzak atateko!"

*Form. land.: **sardatxurre** behar dot kortako satsak atarateko!*

SARGORI/sargoriyé: Izen arrunta. Normalean udan egiten dituen bero larriak. (Azk. Sargori).

*Mend.: "igesko uden tamañuko egun **sargoriyek** eiñ seittuen!"*

Form. land.: iazko udan tamainuko egun sargoriyek ein ebazan!

SARKOLA/sarkólie: Izen arrunta. Aditza. Duen adina baino pertsona nagusiagoen esakerak, edo konportamendua agertzen duen neska gazteaz esan ohi da. Mutila izan ezkeru *sarkolotute* dagoela esango genuke. (Azk. Zarketo, 2^a).

Mend.: "ori neskie be dekon edaderako sarkolatute dau!"

Form. land.: hori neskea be daukan edaderako sarkolatute dago!

SARRAPASTADA/sarrapastadié: Izen arrunta. Norbait edo zerbait mugitu edo arin alde egiten duenean ateratzen duen zaratotsa. (Azk.-).

Mend.: "or badabill baten bat ixen dan sarrapastadias!"

Form. land.: hor badabil baten bat izan dan sarrapastadias!

SARRASOI/sarrasoyé: Izen arrunta. Lainoa. Eguraldia iluntzen duen ur tanta txikien masa. (Azk.-).

Mend.: "geur goixien egon dan sarrasoyas kotxien be siñ ixen dot joan!"

Form. land.: gaur goizean egon dan sarrasoyas kotxean be ezin izan dot joan!

SARRASTEL/sarrastelá: Izen arrunta. Arin apurtu edo puskatzen dena, kalitate eskasekoa. (Azk.-)

Mend.: "orrek sarrastel tipoa deko ta nik au beste txaketie erosko neke!"

Form. land.: horrek sarrastel tipoa dauka eta nik hau beste txaketea erosiko neuke!

SASKILL/saskillé: Adjetiboa. Ibilkera traketsa eta jazkera baldarra dituen pertsona zikina eta lohia denaz esaten da. (Azk. Saskel).

Mend.: "ori baño persona saskillaurik estot pentzetan inun topeu leiyenik!"

Form. land.: hori baino pertsona saskillaurik ez dot pentsetan inon topau leikeanik!

SASPIORTZ/saspiórtza: Izen arrunta. Lehenagoko denboretan baserritarrak soroak goldatzeko erabiltzen zuten lanabesa. (Azk. -)

Mend.: len saspiortza asko ibilltten san soloak eta preparentako!"

Form. land.: lehen saspiortza asko ibillten zan soloak eta preparentako!

SASTAI/sastaiyé: Izen arrunta. Baserrietan etxe aurrean edo alboetan sortzen den lokatza, orain baserri gehienetan ez dago lokatzik baina oraindik izen horrekin deitzen zaio. (Azk.-)

Mend.: "sastaiyen daben atxurre ekarxu!"

Form. land.: sastaiyen dagoen aitzurra ekarri eizu!

SATARRI/satariyé: Izen arrunta. Zerbaiten zati edo puska txiki-txikiak, partikula diminutoak. (Azk.-).

Mend.: "satariyen bat sartu yate begiyen da estot ondo ikusten!"

Form. land.: satariyen bat sartu jata begian eta ez dot ondo ikusten!

SEDUKA/sedukié: Izen arrunta. Behin indaba garandu ondoren gelditzen diren azalen hondarrak. (Azk.-).

Mend.: "ori inyaba sedukie beiyeri emon biyakie!"

Form. land.: hori indaba sedukie behiai emon behar jake!

SEKEN/sekená: Adjetiboa. Ezer ematen ez dakien pertsona, zikotza eta lukuraria. (Azk. Zeken, 1^a).

*Mend.: "or datorrenak be badeko **seken** famie ba!"*

*Form. land.: hor datorrenak be badauka **seken** famea ba!*

SEKULE-BEDAR/sekulé-bédarra: Izen arrunta. Ganaduari ematen zaion solo bedarra. (Azk. Sekula-bedar).

Mend.: "sekule-bedarra emon biyakie beiyeri orroa baten daus de!"

Form. land.: sekule-bedarra emon behar jake behiai orroa baten dagoz eta!

SELEMIÑ/selemiñé: Izen arrunta. Lehenago artoa edo garia pisatzeko erabiltzen zen egurrezko kaxatxoa. (Azk.-).

Mend.: selemiñe artoa ta gariye ta pisetako ibilltten gendun!"

Form. land.: selemiñe artoa eta garia eta pisetako erabilten genduen!

SEMENDI/semendiyé: Izen arrunta. Azaroa. (Azk. Zemendi).

Mend.: "semendiyen il bikeu txarriye!"

Form. land.: semendiyen hil beharko dogu txarria!

SENDAKA/sendakié: Izen arrunta. Ugerra edo zikina. (Azk.-).

*Mend.: "ori botellie bota eiñ bide **sendakie** be eiñye deko ta!"*

*Form. land.: hori botilea bota ein behar da **sendakie** be einda dauka eta!*

SENGLE/sénglie: Adjetiboa. Sendoa ez den zerbait. (Azk. Sengle).

*Mend.: "ori maiye be **sengle-sengle** dau aiñkie deko apurtute ta!"*

*Form. land.: hori mahaia **sengle-sengle** dago hanka dauka apurtuta eta!*

SESEILL/seseillé: Izen arrunta. Otsaila, febreroa. (Azk. Zezeila).

Mend.: "seseille baño bera abendue da obie txarriye illtteko!"

Form. land.: seseille baino bera abendua da hobea txarria hiltteko!

SIDARI/sidáriye: Izen arrunta. Lehenagoko denboretan lurralde hauetan oso hedatua zegoen madari mota. (Azk.-).

*Mend.: "len ainbet **sidari** euki gendun geupe baya oiñ bera arbolie be galdu da!"*

*Form. land.: lehen hainbat **sidari** euki genduan baina orain bera arbolea be galdu da!*

SIETZ/siétz: 1^a Adjetiboa. Pertsona zigurra, fina, langilea eta gauzak gogotsu egiten duenaz esan ohi da. (Azk.-). 2^a Adberbioa. Guztia, dena. Osotasuna adierazteko erabiltzen da. (Azk. Zietz).

*Mend.: "beskariye **sietz** amaittu arte maiyen egongo sara!"*

*Form. land.: bazkaria **sietz** amaitu arte mahaian egongo zara!*

SIGU/sígue: Izen arrunta. Soka nahiz kate bitatik dindilizka kulunkatzeko jarlekua. Zabu, zibo. (Azk. Tsinbo, 5^a).

*Mend.: "txikitten semat bider ibilltten giñen **siguetan**!"*

*Form. land.: txikitan zenbat bider ibiltten ginan **siguetan**!*

SILBOT/silbotá: Izen arrunta. Sabel haundia, tripazorroa. (Azk. Zilbor, Zilbot).

Mend.: "orrek be dekon silbotas esiñ ixengo deu eiñ ariñeketarik!"
Form. land.: horrek be daukan silbotas ezin izango dau ein arineketarik!

SILL/sillé: 1^a Izen arrunta. Landareei ateratzen zaien ernamuina, patatari adibidez. (Azk. Zil, 3^a). 2^a Izen arrunta. Jaio ondoren amarekiko lokarri hestea mozten den tokian geratzen den sakonunea. (Azk. Zil, 1^a).

Mend.: "patatiek be sill itzela deko ta biyer edo etzi ereiñ enbiko da!"
Form. land.: patateak be sill itzela dauka eta bihar edo etzi erein egin beharko da!

SINGERA/singérie: Izen arrunta. Basoan, soroan zein landan lur azpitik atera daitekeen ur jarioa. (Azk.-).

Mend.: "soloko singeran be ur asko dator da euri asko eiñ yabela esan lei!"
Form. land.: soloko singeran be ur asko dator eta euri asko egin dabela esan leike!

SINYO/sinyoá: Izen arrunta. Adibidez fruta bat fresko eta ondo mantentzen denean honela deitzen zaio, ustelaren aurkakoa adierazteko erabiltzen da. (Azk. Zindo, 1^a).

Mend.: "sagar sinyo askorik es yako geldittu arbolieri ganien!"
Form. land.: sagar sinyo askorik ez jako gelditu arboleari gainean!

SIREUN/sireuné: Izen arrunta. Sugearen antzerako narrazti beltzarana. (Azk. Zirau-ziraun).

Mend.: "geur goixien soloan nabillela sireune ikusi ot!"
Form. land.: gaur goizean soloan nabillela sireune ikusi dot!

SIRIÑ/siriñé: 1^a Izen arrunta. Beheranzkoa. (Azk. Zirin, 2^a). 2^a Adjetiboa. Pertsona zirikatzaileaz esaten da. (Azk. Zirin, 4^a).

Mend.: "umieri be esiñ bakien itxi... basara siriñe gero!"
Form. land.: umeari be ezin bakean utzi... bazara siriñe gero!

SIRKILLU/sirkillué: Izen arrunta. Txokoa, zokondu, bazterra. (Azk. Zirkilu).

Mend.: "sirkillu batetik ikustie ixengo basan orrek biyok esamiñie eitten egon dienien!"
Form. land.: sirkillu batetik ikustea izan bazen horrek biok esamina egiten egon diranean!

SIRKIÑIK/sírkiñik egin: Aditza. Mugimendurik eza adierazteko erabiltzen da. Normalean beti ezezko zentzuan erabiltzen da. (Azk. Zirkin egin).

Mend.: "au ta bestie esan arren suk sirkiñik eiñ bes ... hortxe telebisiñoan sartute!"
Biz.: hau eta bestea esan arren zuk sirkiñik eiñ be ez ... hortxe telebistan sartuta!

SITTEU/sitteú: Aditza. Zirikatu, zirikatzailea. (Azk. Zirikatu).

Mend.: "suk seuk sitteu su lenengo ta es esan bestie ixen danik gero!"
Form. land.: zuk zeuk sitteu dozu lehenengo eta ez esan bestea izan danik gero!

SIYOR/siyorrá: Izen arrunta. Zigor mehe eta fin bezagarria, normalean urritxarena izaten da. Lehenagoko denboretan asauak sabaira zigor honekin lotuta eramaten ziren. (Azk. Zigor, 1^a)

Mend.: "gari jotietan galtzu moltzoak siyorras lotute eroaten sien sabaire!"
Form. land.: gari joteetan galtzu multzoak siyorras lotuta eroaten ziran sabaira!

SOI/soiyé: Izen arrunta. Sagardoa egiteko dena preparatu ondoren irakiten hasi aurretik, barrikak gaineko aldean duen zuloa trapuren batekin estali eta jartzen zaion belar eta guztiko

lur zati bat. Lur solteak ez du balio, osorik atariko lur atal batek izan behar du, honek beroa mantentzen laguntzen dio irakite prozesuan. (Azk. Zoi, 1^a).

Mend.: "soiye ipin biko yako barrikieri ure botata dau te!"

Form. land.: soiye ipini beharko jako barrikeari ura botata dago eta!

SOKILL/sokillé: Izen arrunta. Euri asko egin ondoren soroetan sortzen diren lur multzotxuak. (Azk. Soki).

Mend.: "atxurrik be esiñ lei sartu soloan dauen beste sokillas!"

Form. land.: aitzurrik be ezin leike sartu soloan dagoan beste sokillas!

SOLDU/soldú: Aditza. Zauri batetan materia sortu. (Azk. Zoldu, 1^a).

Mend.: "lengunien untzie sartu naben besoan da soldu eiñ yate!"

Form. land.: lehengo egunean iltzea sartu naben besoan eta soldu ein jata!

SOLIMEU/solimeué: Izen arrunta. Benenoa, pozoina. (Azk. Soliman).

Mend.: "edaixu edan serbesiori esta solimeue be ta!"

Form. land.: edan eizu edan garagardo hori ez da solimeue be eta!

SOLI/soliyé: Izen arrunta. Ahots ozen eta fineko pertsona. (Azk. Zoli, 5^a).

Mend.: "orrek umiorrek selako berba soliye dekon!"

Form. land.: horrek umeorrek zelako berba soliye daukan!

SONBRI/sonbriyé: Adjetiboa. Toki umela, hezea eguzkirik gabekoa. (Azk.-).

Mend.: "or gure sonbriyen udeko berorik neusiyenien be fresko eitten deu!"

Form. land.: hor gure sonbriyen udako berorik nagusienean be fresko egiten dau!

SORABIO/sorabíyoa: Izen arrunta. Mareoa, larrialdia. (Azk. Zorabio).

Mend.: "sorabiyoa eiñ yate ta jesarri eiñ biot!"

Form. land.: sorabiyoa ein jata eta jesarri egin behar dot!

SORANGILLA/sorangíllie: Adjetiboa. Oso berbalduna bizia eta zerbait gangarra den emakumeaz esan ohi da. Gizonezkoa izan ezkeror *sorangie* dela esaten da. (Azk.-).

Mend.: "apurtxu bet sorangillie bada baya majie da!"

Form. land.: apurtxu bat sorangillie bada baina maja da!

SORBALDA/sorbaldié: Izen arrunta. Besoak sortzen diren goialdea. (Azk. Sorbalda, 1^a).

Mend.: "sorbaldako miñas nau te medikuañe joan biko nas!"

Form. land.: sorbaldako minagaz nago eta medikuagana joan beharko naz!

SORDANBIDE/sordanbidié: Izen arrunta. Jabego pribatua dauden bideak. (Azk.-).

Mend.: "ori sordanbidie da ta paseu gure badeu baimena eskatu biko deu!"

Form. land.: hori sordanbidie da eta pasau gura badau baimena eskatu beharko dau!

SORGIÑERA/sorgiñérie: Izen arrunta. Gauetan esate baterako bonbila nahiz linternaren argitasunera etortzen diren tximeletak eta beste insektu mota batzuei deitzen zaie honela. (Azk. Sorgin-mandatari).

Mend.: "bentanie itxi biko da ainbet sorgiñera sartu die eskatzera ta!"

Form. land.: bentana itxi beharko da hainbat sorgiñera sartu dira eskatzera eta!

SORKI/sórkiye: Izen arrunta. Buru gainean kantaroak nahiz baldeak erabiltzeko jartzen zuten oihala. (Azk. Sorki, 1^a).

Mend.: "urik etzanien oten sorkiye ipiñitte kantaroas iturritik ekarten gendun!"

Form. land.: urik ez zanean egoten sorkiye ipinita kantaroagaz iturritik ekarten genduan!

SORROSTARRI/sorrostarriye: Izen arrunta. Kodaina, labana zein igitaia motzak daudenean zorrozteko erabiltzen den harria. (Azk. Zorrotzarri).

Mend.: "kodañie motza dau te sorrostarriye ekarrixu!"

Form. land.: kodainea motza dago eta sorrostarriye ekarri eizu!

SOSKOTU/soskotú: Aditza. Adibidez, hamabost hamasei urteko gaztetxoek pubertaroan daudenean, *soskotzen*, indartzen ari direla esaten dugu. (Azk. Zozko, 2^a).

Mend.: "aixe be soskotzen asitte dau gero!"

Form. land.: haixe be soskotzen hasita dago gero!

SOSKU/soskué: Izen arrunta. Ahalmena edo kapazidatea. (Azk. Zozkotsu).

Mend.: "orrek mutillek dekon soskuegas jo eskero ...!"

Form. land.: horrek mutilak daukan soskuegas jo ezkeru ...!

SOSO/sosoá: Izen arrunta. Inguru hauetan guztiz ezaguna den txori mota bat. Arrak beltza eta moko horia du, emea berriz nabarra da. Normalean sasi arteetan egiten du habia. (Azk. Zozo, 1^a).

Mend.: "sosoak asitte daus abiyek eitten!"

Form. land.: sosoak hasita dagoz habiak eiten!

SOSPAL/sospalá: Izen arrunta. Edozein zuhaitzaren zati mehe edo xeheak. (Azk. Zozpal, 1^a).

Mend.: "ekarxus sospal batzuk sue ixetzeko!"

Form. land.: ekarri eizuz sospal batzuk sua iziotuteko!

SOSTOR/sostorrá: Adjetiboa. Txikia den animaliaz zein pertsonaz esan ohi da. (Azk. Sostor, 1^a).

Mend.: "ori be sostor-sostorra egon san baya asko asi de!"

Form. land.: hori be sostor-sostorra egon zan baina asko hasi da!

SOTASAL/sotasalá: Izen arrunta. Pinu landarea zein beste kimuren bat landatzerakoan, zuloa egiteko kentzen den lur zatia (lur azala). (Azk. Zotazal).

Mend.: "piñue sartu orduko sotasala kendu bide!"

Form. land.: pinua sartu orduko sotasala kendu behar da!

SUBLEMEU/sublémeu: Aditza. Guztiz desesperatuta egotea. (Azk.-).

Mend.: "ara eta ona kotzien ibillten sietz sublemeute nator gero!"

Form. land.: hara eta hona kotxean ibiltzen sietz sublemeute nator gero!

SUITXI/suítxiye: Izen arrunta. Landareek, tomateak, piperrak, letxugak... izaten duten gaixotasuna. (Azk.-).

Mend.: "tomatiek eta geuse gustiyek suitxiyegas daus de esebes!"

*Form. land.: tomateak eta gauza guztiak **suitxiyegas** dagoz eta ezer be ez!*

SULDER/sulderrá: Izen arrunta. Kanpoan dabilzan abereak eta kazkabar edo harriabarraren eraginez lepoan izaten dituzten materiadun bikorrak. (Azk. Zuldar, 1^a).

*Mend.: "geure beiyek be lepoan **sulderrak** dekos ta eldu artien miñ eiño tzie!"*

*Form. land.: gure behiak be lepoan **sulderrak** daukaz eta heldu artean min egingo deutsie!*

SURRUSTADA/susrustadié: Izen arrunta. Zurrut egin. Ura, esnea zein beste edozein likidoren bat, indartsu eta bat-batean edan. (Azk. Zurrustada).

*Mend.: "eiñsun **surrustadias** alboko etzekoak be entzungo tzuen!"*

*Form. land.: egin dozun **surrustadias** alboko etzekoak be entzungo eutsuen!*

SUSERATU/suseratú: Aditza. Behia idisko nahirik bero-bero dagoen sasoia. (Azk. Susara)

*Mend.: "**suseratu** de beiyek be ta untxe bertan deittu biyako beternaiyoari!"*

*Form. land.: **suseratu** da behia eta oraintxe bertan deitu behar jako beterinarioari!*

T

TABA/tábie: Izen arrunta. Arkumeak izaten duten hezur baten izena. Lehenagoko denboretan hurrek eta askotan jolasten zuten tabetara. (Azk.-).

Mend.: "gure gaste denporan semat bider olgetan gendun tabetara!"

Form. land.: gure gazte denporan zenbat bider olgetan genduan tabetara!

TAIYU/taiyué: Izen arrunta. Zerbait egiteko ganora, fundamentua edo trebetasuna. (Azk. Taiu, 1^a).

Mend.: "suk dekosun taiyuas estakitt nosko eingo susen aginyunikoak!"

Form. land.: zuk daukazun taiyuas ez dakit noizko egingo dozuzen agindutakoak!

TAKARREKO/takarrekoá: Izen arrunta. Kolpea. (Azk. Takada, 2^a).

Mend.: "laprast eiñye jeusi eiñ nas da takarreko edarra artu ot!"

Form. land.: laprast einda jausi ein naz eta takarreko edarra hartu dot!

TAKARRASO/takarrásoa: Izen arrunta. Kolpea, zartada. (Azk. Takada, 2^a)

Mend.: "orrek kotxiek be takarraso galanta deko!"

Form. land.: horrek kotxeak be takarraso galanta dauka!

TANGADA/tangadié: Izen arrunta. Normalean goitik behera erortzen den edozein likidoren tanta. (Azk. Tanga, 2^a).

Mend.: "euri tangadiék lenengo-lenengoen alperrena joten ei deu!"

Form. land.: euri tangadiék lehenengo-lehenengo alperrena joten ei dau!

TANTADA(E)/tantáda(e)iyé: Izen arrunta. Haritz multzoa dagoen tokia. (Azk. Tantaidi).

Mend.: "tantadaiye itzelak egon sien baya oiñ esta gelditzen iye bape!"

Form. land.: tantadaiye ikaragarriak egon ziran baina orain ez da gelditzen ia bat be!

TAPOKA/tapókíe: Izen arrunta. Bufanda. (Azk.-).

Mend.: "ipini tapokie kanpoan otz dau te!"

Form. land.: ipini tapokie kanpoan hotz dago eta!

TEKA/tekié: Izen arrunta. Esate baterako bera indaba hazia gordetzen duen luzanga itxurako zorrotxua. (Azk.-).

Mend.: "eurton iges baño teka geyau dau te iñyabie ixengo dala esan lei!"

Form. land.: aurton iaz baino teka gehiago dago eta indaba izango dala esan leike!

TENGA/téngie: Izen arrunta. Zeregin desberdinetarako erabiltzen den metalezko ontzia. (Azk. Teka, 1^a).

Mend.: "téngie ekatzu ur apur bet edan deitan!"

Form. land.: téngie ekarri eidazu ur apur bat edan dezadan!

TENTENOSO/tentenosoá: Adjetiboa. Leloa, inozoa eta tentela. (Azk. Tentel, 2^a)

Mend.: "tentenosoá selan astu yatzu emon tzuten errekadu bakarra?"

Form. land.: tentenosoá zelan ahaztu jatzu emon deutsudan errekadu bakarra?

TIENTU/tiéntue: Izen arrunta. Jokaeretan agertzen den zuhurtasuna edo ganora, tenorea edo jarrera. (Azk. Tentu, 2^a).

Mend.: "jokoan olan irabastie pentzetan su? Tientu geiyau euki bide!"

Form. land.: jokoan horrela irabaztea pentsatzen dozu? Tientu gehiago euki behar da!

TIÑU/tiñue: Izen arrunta. Punteria, adibidez gauza bat bota eta bete betean eman norabide zuzenean. (Azk.-)

Mend.: "tiñu ona bide ori kanikie emendik bota ta an silloan sartzeko gero!"

Form. land.: tiñu ona behar da hori kanikea hemendik bota eta han zuloan sartzeko gero!

TIRESI/tiresiyé: Izen arrunta. Arraultze gehiegi jateak dakarren gibleko gaixotasuna edo gaitza. (Azk.-).

Mend.: "orrenbeste arrutze jaten basu etorko yatzu tiresiye edo seuser!"

Form. land.: horrenbeste arraultze jaten badozu etorriko jatzu tiresiye edo zeozer!

TOKADA/tokadié: Izen arrunta. Pertsonen bat hiltzen denean jotzen diren kanpai-hotsak, gizonezkoa edo emakumezkoa izan desberdinak izaten dira kopuruan. (Azk.-).

Mend.: "an ... tokadak jo dabes da nonor ilko san ba!"

Form. land.: han ... tokadak jo dabez da norbait hilko zan!

TOKOR/tokorrá: Adjetiboa. Ligorra, latza. Baserritarrek lurrei eta hitz egiten daudenean tokorrak daudela esaten dute ligorrak daudenean, baina pertsoneri ere aplikatu daitekeen terminua da. (Azk.-)

Mend.: "soloak be eurtan sietz tokortute daus de bota biko yakie satza edo!"

Form. land.: soloak be aurton zietz tokortute dagoz eta bota beharko jake satsa edo!

TOPEKADA/topekadié: Izen arrunta. Adardun animalia batzuk buruaz ematen duten kolpea, edo txahal bat errapean esnea edaten dagoenean amari ematen dizkion kolpeak. (Azk. Topeka, 2^a).

Mend.: "txala be asi de beiyeri topekadaka ta biyer errapera es koas botaten!"

Form. land.: txahala be hasi da behiari topekadaka eta bihar errapera ez goaz botaten!

TOPIÑO/topiñoá: Adjetiboa. Txikia eta potoloa denaz esaten da. (Azk. Topiño).

Mend.: len topiño-topiñoa egon siñen baya sietz argaldute saus oiñ!"

Form. land.: lehen topiño-topiñoa egon zinan baina zietz argaldute zagoz orain!

TORILL/torillé: Izen arrunta. Txahal zein zaldi jaiotze berriak edukitzeko, kortan egurrez egindako tokia. (Azk.-).

Mend.: "guk oiñ be txalak astegus da antxe dekeu kortan torille!"

Form. land.: guk orain be txahalak hasten doguz eta hantxe daukagu kortan torille!

TRABES/trabés: 1^a Adberbioa. Norbaiti zeharka begiratu. (Azk.-). 2^a Izen arrunta. Zerbait estorbuan izan, zerbait egitera goazenean eraz ez dugunean. (Azk. Traba, 2^a edo Trabagarri).

Mend.: "Bilbora banoa baya gustis trabes eitten yate suk diñosun dendatik pasetie!"

Form. land.: Bilbora banoa baina guztiz trabes egiten jata zuk dinozun dendatik pasatzea!

TRABESA/trabésie: Izen arrunta. Esate baterako idi probetan eta asto probetan eta egiten

diren apuestak. (Azk.-)

*Mend.: "geur mañatxu bet **trabesa** eiñ dies da ainbet diru jokatuko san!"*

*Form. land.: gaur makinatxu bat **trabesa** ein dira eta hainbat diru jokatuko zan!*

TRAILLEN/traillen: Aditza. Behi, txahal zein zaldiak samatik soka edo katearekin hartuz gidatu. (Azk.-).

*Mend.: "guk dekeun bei bet **traillen** artunde eroan bixeten da landara!"*

*Form. land.: guk daukagun behi bat **traillen** hartuta eroan behar izaten da landara!*

TRAKAMANTU/trakamántue: Izen arrunta. Edozein makina, aparatu zein edozelan eginiko altzari zakar. (Azk.-).

*Mend.: "ori **trakamantue** eiñ einsue baya estakitt esetarako baliyoko badeu!"*

*Form. land.: hori **trakamantue** egin ein dozue baina ez dakit ezertarako balioko badau!*

TRAKULU/trakúluek: Izen arrunta. Astoari bedarra zein beste edozein karga erabiltzeko jartzen zaion egurrezko edo burdinezko tresna. Trakulu hauekin astoak pisua ekilibratuta eramaten du. Astoak minik har ez dezan, *txalma* (Ikus.Txalma) bat jartzen zaio *trakulue* baino lehen lepo gainean. (Azk.-).

Mend.: "trakulue jarri biyako astoari bedar berdie ekarteko!"

*Form. land.: **trakulue** jarri behar jako astoari bedar berdea ekarteko!*

TRAMANKULU/tramankúlue: Izen arrunta. Egurrez zein beste materialen batez eginiko tresna edo altzari zakarri deitzen zaio honela. (Azk. Tramankulu).

*Mend.: "or **tramankuluen** ganien ipiñitte ebai biko die egurrek!"*

*Form. land.: hor **tramankuluen** gainean ipinita ebagi beharko dira egurrak!*

TRANGA/trángie: 1^a Izen arrunta. Atea ondo itxita geratu daiten trabes jartzen zaion haga gogorra, orain ere baserri batzuetan ikuiluko atean ipintzen da. (Azk. Tranga, 3^a). 2^a Izen arrunta. Norbait gripeaz edo katarroaz dagoenean, *tranga* handia duela esaten da. (Azk.-).

*Mend.: "dekosun **trangias** obeto joaten basara ogera!"*

*Form. land.: daukazun **trangias** hobeto joaten bazara ohera!*

TRAPADU/trapadué: Adjetiboa. Alturaz baxua eta apurtxu bat potoloa denaz esaten da. (Azk. Trapadu).

Mend.: "trapadu-trapadue da orixe be gero!"

*Form. land.: **trapadu-trapadue** da horixe be gero!*

TRAPUSAR/trapusarrá: Izen arrunta. Landetan eta udaberrian ateratzen den lora mota bat dugu. (Azk.-).

*Mend.: "ortxe geure etzondoan be ainbet **trapusar** dau!"*

*Form. land.: hortxe geure etxe ondoan be hainbat **trapusar** dago!*

TRASKILL/traskillé: Adjetiboa. Pertsona baldar eta itxura zatarrekoa. (Azk. Traskil).

*Mend.: "semat persona **traskill** dau mundu ontan baya!"*

*Form. land.: zenbat pertsona **traskill** dago mundu honetan baina!*

TRAUSKI/traúskiye: Adjetiboa. Pertsona baldarra eta traketsa. (Azk. Trauski, 2^a).

*Mend.: "orixe be apur bet **trauskiye** bada baya se eiñgo tzeu ba!"*

Form. land.: horixe be apur bat trauskiye bada baina zer eingo deusagu ba!

TREBERA/trebérie: Izen arrunta. Beheko suan lapikoak berotzeko erabiltzen zen hiru oineko tresna bat. Normalean burdinezkoa izaten zen. (Azk. Trebera).

Mend.: "treberan makiñabat lapiko berotu nikoak bagara gu!"

Form. land.: treberan makina bat lapiko berotutakoak bagara gu!

TREBUTU/trebutué: Izen arrunta. Zerbaitek eraginda izaten den ardura. (Azk.-)

Mend.: "estosus danak aprobeu da oiñ trebutue dekosu uden ikesten!"

Form. land.: ez dozuz danak aprobatu eta orain trebutue daukazu udan ikasten!

TREMES/tremesá: Izen arrunta. Garia eta zekalea nahastuz egiten den ogia. (Azk. Tremes).

Mend.: "tremesa pernilas seiñ okelias ipiñitte ondo goso egoten da!"

Form. land.: tremesa pernilagaz zein okeleagaz ipinita ondo gozo egoten da!

TRENTIÑ/trentiñé: Izen arrunta. Fundamentua edo ganora. (Azk. Trentin).

Mend.: "suk dekosun trentiñegas esiñ leike karrerarik eiñ!"

Form. land.: zuk daukazu trentiñegas ezin leike karrerarik egin!

TRINPOTX/trinpotxá: Izen arrunta. Arkumearen tripak, odola, eta burua egosi ondoren, arrautza eta kipularekin prestatzen den janaria. (Azk. Tripots, 2^a).

Mend.: "geur ilkeu artxoa da biyerko iya preparetan bageu trinpotxa!"

Form. land.: gaur hilko dogu artxoa eta biharko ia preparetan badogu trinpotxa!

TRIPALAK/tripálak: Izen arrunta. Tripako mina. (Azk. Tripala).

Mend.: "tripalak dekotas eta mantzenillie artu biot!"

Form. land.: tripalak daukodaz eta mantzanilea hartu behar dot!

TROKATU/trokatú: Aditza. Bihurtu, normalean eskuturra edo orkatilaz esaten da. (Azk. Trokau).

Mend.: "atzo ankie trokatu nabem da geur beyen ipiñi esiñik nau!"

Form. land.: atzo hanka trokatu neban eta gaur behean ipini ezinik nago!

TROKA/trokié: Izen arrunta. Terreno aldapatsu eta sakonetan dauden eremuak. (Azk. Troka, 1^a).

Mend.: "or trokan estaitt selan bedarrik ebai keun!"

Form. land.: hor trokan ez dakit zelan bedarrik ebagiko dogun!

TROKO/trókoa: Adjetiboa. Sendo eta fuertea. (Azk.-).

Mend.: "anka trokoa deko orrek umiek da beste numero bat andiyaba bideu!"

Form. land.: hanka trokoa dauka horrek umeak eta beste numero bat handiagoa behar dau!

TRONGAL/trongalá: Izen arrunta. Zer baiten pilo haundia adierazten du. (Azk.-).

Mend.: "ille onetan bier asko eiñ yosu te trongala kobreuko su esta?"

Form. land.: hile honetan behar asko ein dozu eta trongala kobratuko dozu ez da?

TRONTZASERRA/trontzasérra: Izen arrunta. Motosierrarik eta ez hegoanean zuhaitzak eta ebakitzeko erabiltzen zen tresna. Haginak dituen burdinazko orri bat da, eta alderdi batetik

eta bestetik egurrezko euskarrietatik pertsona bik oratzen zioten hara eta honako mugimendua egiteko. (Azk. Trontzazerra).

Mend.: ainbet egur ebainikoa banas ni **trontzaserrias!**"

Form. land.: hainbat egur ebagitakoa banaz ni **trontzaserrias!**

TRONTZOI/trontzoyé: Izen arrunta. Zerbaiten zatia edo puska, normalean janarietaz esan ohi da. (Azk.-).

Mend.: "okela **trontzoa** galanta jan su te estosu biyerrarte goserik euko!"

Form. land.: okela **trontzoa** galanta jan dozu eta ez dozu bihar arte goserik eukiko!

TROPE/tropié: Adjetiboa. Sendoa. (Azk.-).

Mend.: "ori txala **trope-tropie** dau te ainbet erralde euko deus!"

Form. land.: hori txahala **trope-tropie** dago eta hainbat erralde eukiko ditu!

TRUNBILL/trunbillé: Izen arrunta. Kolpe baten ondorioz larruazalean agertzen den konkorra edo bultoa. (Azk. Trunbulu).

Mend.: "andixik aulkittik jeusi sarenien urtentzu orrek **trunbillek** esta?"

Form. land.: handixik aulkitik jausi zarenean urten deutsu horrek **trunbillek** ez da?

TRUXU/trúxuek: Izen arrunta. Denbora luzez eta ia etengabe euria botatzen ari denean. Gauza bera adierazteko *botalan* hitza ere erabiltzen da. (Azk. Truisu).

Mend.: "geur egun gustiyen **truxuek** bota deus gero!"

Form. land.: gaur egun guztian **truxuek** bota daus gero!

TUNGUR/tungurré: Izen arrunta. Buruan zein gorputzeko beste atalen batean kolpe bat hartu ondoren ateratzen den konkor txikitxo. (Azk.-).

Mend.: "beittu orrek umiek selako **tungurre** dekon bekokiyen!"

Form. land.: begitu horrek umeak zelako **tungurre** daukan bekokian!

TXABILLE/txabíllie: Izen arrunta. Ardia eskilatzen denean artilea kardatu egiten da. Artile horretatik haria ateratzeko erabiltzen den lanabesa dugu hau. (Azk. Tsabila, 1ª)

Mend.: "gurean estau **txabillerik** baya aittittek oniño gordeta euko deu!"

Form. land.: gurean ez dago **txabillerik** baina aittitak oraindik gordeta eukiko dau!

TXAKETEN/txaketén aldi: Izen arrunta. Gaixoaldia, erialdia. (Azk.-).

Mend.: "amak gurien **txaketen alditxue** paseu deu baya ondo dau barriro be!"

Form. land.: amak gurean **txaketen alditxue** pasau dau baina ondo dago barriro be!

TXALIÑ/txaliñé: Adjetiboa. Ahots zolia, ozena, fina. (Azk. Tsalin, 2ª)

Mend.: "suk dekosun **txaliñas** danak entzungotzue!"

Form. land.: zuk daukazun **txaliñas** danak entzungo dautsue!

TXALMA/txalmié: Izen arrunta. Astoei eta minik ez egiteko *trakuluak* jarri aurretik lepo gainean jartzen zaien zakuzko kuxina. (Azk. Tsalma, 1ª).

Mend.: "trakuluek ipiñi eurretik ipiñi **txalmie** astoari ostantzien miñ eiño jako eta!"

Form. land.: trakuluek ipini aurretik ipini **txalmie** astoari ostantzean min eingo jako eta!

TXAMISO/txamisoá: Izen arrunta. Euskal amerikanoek erabiltzen duten hitza. Mendietan

ardiak jaten duten sastrakari deitzen diote. Oraindik hitz hau erabiltzen jarraitzen dute. (Azk.-).

Mend.: "Ameriketan ardisain ibill giñenien mañabat txamiso ikusinikoa banas ni!"

Form. land.: Ameriketan ardizain ibili ginanean makina bat txamiso ikusitakoa banaz ni!

TXANBILLOTZ/txanbíllozta: Izen arrunta. Txori mota bat. (Azk. Tsamilots).

Mend.: "orrek txanbillotzak be atara deus kunek!"

Form. land.: horrek txanbillotzak be atara ditu kumak!

TXANEL/txanelá: Izen arrunta. Txalupa. (Azk. Tsanel).

Mend.: "antxiñe txanelatxuek artunde arraiñetan be ainbet bider joan giñen!"

Form. land.: antzina txanelatxuek hartunda arraiñetan be hainbat bider joan ginen!

TXAPAR/txáparra: Izen arrunta. Arto soroan tartean egoten diren arto buru eskasak, txikiak. (Azk. Tsapar, 1^a).

Mend.: "ainbet txapar dau arto artien da kendu bikeus beiyeri emoteko!"

Form. land.: hainbat txapar dago arto artean eta kendu beharko doguz behiai emoteko!

TXAPIÑO/txapiñoa: Izen arrunta. Normalean abarkekin edo botekin janzen diren galtzerdiak. (Azk. Tsapin, 2^a).

Mend.: "orrek txapiñek neuk bitas botakas jasteko!"

Form. land.: horrek txapiñek neuk behar dodaz botakaz janzteko!

TXAPLATA/txaplatie: 1^a Izen arrunta. Prakak zein beste arropa bati zuloan bat egiten zaionean zulo hori estaltzeko jartzen den oihalezko txatala. (Azk. Tsaplata, 5^a). 2^a Adjetiboa. Etengabe berriketan dabilen pertsona. (Azk. Tsaplata, 4^a).

Mend.: "prakieri txaplatie ipin bikotzesu apurtute dekosu te!"

Form. land.: prakeari txaplatie ipini beharko deutzazu apurtuta daukazu eta!

TXARAMEL/txaramelá: 1^a Izen arrunta. Ateak zein lehioak ireki eta ixteko erabiltzen zuten egurrezko takotxu bateri deitzen diote. (*Txarangel*a hitzaz ere ezagutzen da). (Azk. Tsaramel, 6^a). 2^a Adjetiboa. Asko hitz egiten duenez esaten da. (Azk. Tsaramel, 4^a).

Mend.: "oiñ be guk kortako atie txaramelas dekeul!"

Form. land.: orain be guk kortako atea txaramelas daukagu!

TXARBA/txarbié: Izen arrunta. agar mota bat da. *Txarba* baltza zein zuria oso ezagunak dira hemendik. (Azk. Tsarba, 1^a).

Mend.: "txarbie oiñ iye galdute be badau emen!"

Form. land.: txarbie orain ia galduta be badago hemen!

TXARRANTXA/txarrantxié: Izen arrunta. Ganaduak, batez ere behiak pekorotzaz zikinduta daudenean, lohi hori kentzeko erabiltzen duten eskubila. (Azk.-).

Mend.: "beiyek be txarrantxeu bikeus sikiñyute daus de!"

Form. land.: behiak be txarrantxeu beharko doguz zikinduta dagoz eta!

TXARTEU/txarteú: Aditza. Pinuari, normalean bost sei urterekin, behealdean dituen erramak kentzeari deitzen zaio honela. Zuhaitzak enborrean indar gehiago har dezan egiten da lan hau. (Azk. Tsartau, 1^a).

Mend.: "piñudiye be txarteu bikeu eurton, aundiyeie be badau te!"
Form. land.: pinudia be txarteu beharko da aurton, handiegia be badago eta!

TXATAL/txatalá: Izen arrunta. Zerbaiten zati txikitxo bat. (Azk. Tsatal, 3^a).

Mend.: "gose nas da emoistesu ogi txataltxu bet!"
Form. land.: gose naz eta emon eidazu ogi txataltxu bat!

TXATXALA/txatxálie: Adjetiboa. Eten gabe hizketan eta inongo seriotasunik ez duen emakumeaz esaten da. (Azk. Tsatsala).

Mend.: "ori andrie baño txatxaliaurik estau!"
Form. land.: hori andrea baino txatxaliaurik ez dago!

TXATXU/txatxué: Adjetiboa. Beti besteen jakinduria eta indarren gainetik egon nahi duena, handizalea, harroa. (Azk. Tsatsu).

Mend.: "ortxe doan gizona be tamañuko txatxue bada baya ser engo tzeu ba!"
Form. land.: hortxe doan gizona be tamainuko txatxue bada baina zer eingo dautsagu ba!

TXEPETX/txepetxá: 1^a Izen arrunta. Txori mota bat. (Azk. Tsepets). 2^a Adjetiboa. Pertsona bizkorra, urduria eta geldiezinaz esan ohi da. (Azk.-).

Mend.: "artien deko txepetxak abiyie!"
Form. land.: artean dauka txepetxak habia!

TXIBITTE/txibittie: Izen arrunta. Indabak eta garantzeko erabiltzen da, puntan ugela duen makila. (Azk. Tsibita, 1^a)

Mend.: "txibittias jo bitas arratzaldien iñyabak!"
Form. land.: txibittias jo behar dodaz arratsaldean indabak!

TXIBU/txibué: Izen arrunta. Antzinako garijoteetan, eskuz zein makinekin egin, alde batera gari garaua geratzen zen, bestera azaua (galtzua egiteko). Garau eta azauaz aparte gelditzen zenari deitzen zitzaion honela, hau da, galburua. (Azk. Tsibo)

Mend.: neguen da txibue edarto jate ben beiyek be!"
Form. land.: neguan eta txibue edarto jaten eben behiak be!

TXIDER/txiderrá: Izen arrunta. Ganaduari ematen zaion belar mota bat. (Azk. Tsidar).

Mend.: "txider apur baten bille joan bide orroa baten daus beiyek eta!"
Form. land.: txider apur baten bila joan behar da orroa baten dagoz behiak eta!

TXIKOLDU/txikoldú: Aditza. Lehortu, sikatu. (Azk. Tsikortu, 1^a).

Mend.: "daben siketiegas bedar gustiyek be txikoldute daus!"
Form. land.: dagoen siketeagaz bedar guztiak be txikoldute dagoz!

TXILIÑ/txiliñe: 1^a Izen arrunta. Kanpai txikia. (Azk. Tsilin, 1^a). 2^a Adjetiboa. Eten gabe berriketan dagoenaz esaten da. (Azk. Tsilin, 2^a).

Mend.: "abendue kantetan goas da txiliñe ipin bitzet makillieri!"
Form. land.: abendua kantetan goaz da txiliñe ipini behar dautset makileari!

TXINGOR/txíngorra: Izen arrunta. Hotzaren hotzez izoztuta erortzen den euri tanta gogortua. (Azk. Tsingor, 1^a).

Mend.: "dauen otzagas esiñ lei euririk eiñ txingorra baño!"
Form. land.: dagoen hotzagaz ezin leike euririk ein txingorra baino!

TXINTXERRA/txintxerrié: Izen arrunta. Txerriaren urdia urtu ondoren, koipeaz aparte gelditzen denari deitzen zaio. (Azk. Tsintsorta).

Mend.: "urtero eitten dies gurien oniño txintxerrak txarriye illten gunien!"
Form. land.: urtero egiten dira gurean oraindik txintxerrak txarria hiltzen dogunean!

TXINTXA/txintxié: Izen arrunta. Asto, zaldiei *trakulua* (ikus. Trakulu) jarri aurretik minik ez hartzeko *txalma* jartzen zaie, hori gorputzera ondo lotzeko animalari tripepetik, alde batetik bestera jartzen zaion gerriko zabala. Oihal sendoz eginiko gerrikoa izaten da eta alderdi batean burdinazko belarri bat izaten du, hobeto lotzeko. (Azk. Tsintsa, 6^a).

Mend.: "txintxie solteu yako astoari da erremolatxa karga osoa bera jeusi de!"
Form. land.: txintxie soltau jako astoari eta erremolatxa karga osoa behera jausi da!

TXINYOR/txínyorra: Izen arrunta. Txantxangorria, papargorria, txoritxo oso kantaria. (Azk. Tsintsort).

Mend.: "txinyorrek be asi die etorten da badator udaberriye be!"
Form. land.: txinyorrek ere hasi dira etorten eta badator udaberria be!

TXINYURRI/txinyúrriye: Izen arrunta. Inurria, intsektu mota. (Azk. Tsindurri).

Mend.: "txinyurri batek pikeuste da itzelesko granoak urtestie!"
Form. land.: txinyurri batek pikatu daust eta itzalezko granoak urten daustie!

TXIPRISTIÑ/txipristiñé: Izen arrunta. Edozein likido mota erortzean jalgitzen diren tantak. (Azk. Tsipristin, 1^a).

Mend.: "mai ganeraño bota sus esne txipristiñek da kontuz!"
Form. land.: mahai gaineraino bota dozuz esne txipristiñek eta kontuz!

TXIRINGORDEU/txiringórdeu: Aditza. Txirikordatu, kirimildu. (Azk. Tsirikordau)

Mend.: "sokie dana txiringordeta dau te ipiñi ondo!"
Form. land.: sokea dana txiringordeta dago eta ipini ondo!

TXIRKO/txírkoa: Adjetiboa. Oinetako askok izaten duten takoi fin eta altua. (Azk.-).

Mend.: "orrek andriek dekosan sapata txirkoakin ni laster jeusiko nintzeke!"
Form. land.: horrek andreak daukozan zapata txirkoakin ni laister jeusiko nintzateke!

TXIRRIBORRO/txirríborroa: Adjetiboa. Hitz egitea izugarri gustatzen zaion pertsona. (Azk.-).

Mend.: "apurtxu bet edaten dabeniñen ori be apur bet txirriborrotute pantetan da!"
Form. land.: apurtxu bat edaten dabenean hori be apur bat txirriborrotute pantetan da!

TXIRRINTXOI-BEDAR/txirrintxoi-bédarra: Izen arrunta. Belar mota bat da, soroetan landare artean eta ateratzen dena. (Azk.-)

Mend.: "ider artien be mañabat txirrintxoi bedar dekeu ta kendu biko dabe!"
Form. land.: ider artean be makina bat txirrintxoi bedar daukagu eta kendu beharko dira!

TXIRRIÑA/txirriñie: 1^a Izen arrunta. Atarietan deitzeko balio duen seinale akustikoa. (Azk.-).
2^a Izen arrunta. Antzinako behiek, zaldiek... erabiltzen zituzten gurdien burdinazko erroberak.

(Azk. Tsirringa, 1^a).

Mend.: "txirriñie jo dabe ta baten bat badau or etartien ba!"

Form. land.: txirriñie jo dabe eta bateren bat dabago hor etartean ba!

TXIRRISTADA/txirristadié: Izen arrunta. Txist egin, pss pst! eginaz norbaiti deitu. (Azk. Tsistada, 2^a).

Mend.: "txirristada bat eitten batzesu laster etorko yatzu ori katutxue!"

Form. land.: txirristada bat eiten badautsazu laister etorriko jatzu hori katutxue!

TXIRUELATIK/txiruélatik egon: Adberbioa. Burutik ondo ez egotea. (Azk. -)

Mend.: "ori txiruelatik dabela esan leike!"

Form. land.: hori txiruelatik dagoela esan leike!

TXITXIBURDUNTZI/txitxiburdúntziye: Izen arrunta. Basoan sua eginez, burduntzi baten puntan txorizoa edo lukainka prestatu. Euskal Herri osoko ohitura bat dugu eta ihauteri aurreko igandean ospatzen da. (Azk. Tsitsi-burduntzi).

Mend.: "eurton danok batera joan bieu txitxiburduntzi eitten!"

Form. land.: aurton danok batera joan behar dogu txitxiburduntzi eiten!

TXITXIMURKADA/txitximurkadié: Izen arrunta. Norbaiti atzamarren artean bere haragi zatitxo bat hartu eta gogor estutuz bihurtu. (Azk. Tsitsimurkada).

Mend.: "niri urrengo txitximurkadié eittestenak belarriondoko bat deko!"

Form. land.: niri hurrengo txitximurkadié eiten daustenak belarriondoko bat dauka!

TXOLET/txoletá: Izen arrunta. Latorrizko potoa. (Azk. Tsolet, 1^a).

Mend.: "kontus orregas txoletas atzamarrak ebaikotzus de!"

Form. land.: kontuz horregaz txoletas atzamarrak ebagiko dautsuz eta!

TXOPIKE/txópíke ibili: 1^a Aditza. Jatorduetatik kanpo jaten ibiltzeari esaten zaio. (Azk.-). 2^a Aditza . Ingurokoei zirikatzen eta adarra jotzen ibiltzea. (Azk.-).

Mend.: "oiñ be txopike basabis gero beskaritten se jango su?"

Form. land.: orain be txopike bazabiltza gero bazkaritan zer jango dozu?

TXORROTXAILLE/txorrotxailié: 1^a Izen arrunta. Etxerik etxe laban eta artaziak zorrozten ibiltzen dena. (Azk.-). 2^a Adjetiboa. Berba ugari egiten duen pertsonaz esaten da. (Azk.-).

Mend.: "geur goixien etor de txorrotxailie da sorrostu deus geuse gustiyek!"

Form. land.: gaur goizean etorri da txorrotxailie eta zorroztu ditu gauza guztiak!

TXORTA/txortié: 1^a Izen arrunta. Lore zein beste landare mota batzuen erramuak. Edozein landararekin egin daitezkeen pilatxoak ere badira, normalean ehunekoetan. (Azk.-). 2^a Izen arrunta. Neskatoei eta ilea koleta batekin jartzen zaienean. (Azk.-).

Mend.: "ule lusieiye deko ta txorta bat ein biko yako!"

Form. land.: ule luzeegia dauka eta txorta bat ein beharko yako!

TXOTATU/txótatu: Aditza. Zoratu. (Azk.-).

Mend.: "esisais egon telebisinoan orremeste denpora ostantzien txotatuko sara ta!"

Form. land.: ez zaitex egon telebisinoan horrenbeste denpora ostantzean txotatuko zara eta!

TXOTA/txotié: 1^a Izen arrunta. Esate baterako kipula batzuei ateratzen zaien gogortasuna, behin hori atera ezkerro kipulak ez du balio. (Azk.-). 2^a Izen arrunta. *Sekula belarrak* eta *Prantses bedarrak* hazia halako leka baten izaten dute, hasi hori gordetzen duen lekari deitzen zaio honela. (Azk.-).

Mend.: "orrek kipuliek txotie deko ta esteu baliyo!"

Form. land.: horrek kipuleak txotie dauka eta ez dau balio!

U

UGEL/ugelá: Izen arrunta. Gauzak gogorki lotzeko hede. (Azk. Ugel, 1^a).

Mend.: txakurreri ugela apurtu yako ta barriye ekar biko yako!

Form. land.: txakurrari ugela apurtu zaio eta barria ekarri beharko jako!

UI/uíyek: Izen arrunta. Hortzak eusten dituen kolore gorriko haragia. (Azk. Ui, 2^a).

Mend.: "atzo agiñe atarata geur uiyetako miñ itzelagas nau!"

Form. land.: atzo hagina atara eta gaur uiyetako min itzelagaz nau!

UKETU/uketú: 1^a Aditza. Ezetz esan, ezeztu. (Azk. Ukatu, 1^a). 2^a Aditza. Leher eginda geratu, indarge, ahul. (Azk. Ukatu, 1^a).

Mend.: "idi probetan idi bat sietz uketute geratu de!"

Form. land.: idi probetan idi bat guztiz uketute geratu da!

UKUBILLKADA/ukubillkadié: Izen arrunta. Ukabila zerratuz norbaiti edo zerbaiti jotea. (Azk. Ukabillkada).

Mend.: "ixilik espasaus neuk emongotzut ukubillkadie!"

Form. land.: ixilik ez bazagoz nik emongo dautsut ukubillkadea!

UKUBILL/ukubillé: Izen arrunta. Ukabila. (Azk. Ukabil).

Mend.: "orrek dekon ukubillegas emongoaleke belarriondoko bat...!"

Form. land.: horrek deukan ukubillegas emango baleke belarriondoko bat...!

UKUNDO/ukúndoa: 1^a Izen arrunta. Besoak eta besagainak egiten duten hezur jokoaren kanpokaldea. (Azk. Ukondo, 1^a). 2^a Izen arrunta. Ukundoa eduki esaten da zerbait egiteko edo nonbaitera joateko... gaur egun esaten den moduan entxufea eduki. (Azk.-).

Mend.: "orrek be or bierrien sartzeko euko ban ukundoa edo seuser!"

Form. land.: horrek be hor beharrean sartzeko eukiko eban ukundoa edo zeozer!

ULDU/uldú: Aditza. Urrutu. (Azk.-).

Mend.: "uldu eiñ yot besoa sasi bategas!"

Form. land.: uldu ein dot besoa sasi betegaz!

ULE/úlie: 1^a Izen arrunta. Plastikuko gisako mantela edo zamaua. (Azk.-). 2^a Izen arrunta. Lehenago baserrietan behearen gainean jartzen den sintasola. (Azk.-).

Mend.: "ori maiye sikinttu eitten da ta ulie edo seuser ipiñi biko yako!"

Form. land.: hori mahaia zikindu eiten da eta ulie edo zeozer ipini beharko jako!

UNADA/unadié: Izen arrunta. Lekua, tokia adierazteko erabiltzen da. (Azk. Une, 2^a). 2^a Izen arrunta. Denboraldia. (Azk. Une, 4^a).

Mend.: "onexek umiek be esteu unada ona paseu baya oiñ badoa mejoretan!"

Form. land.: honexek umeak be ez dau unada ona pasau baina orain badoa mejoretan!

UNTURA/unturié: Izen arrunta. Pomada, ukendua. (Azk.-)

Mend.: "oriyoak erretzun lekuen unturie emon bikosu!"

Form. land.: olioak erre dautsun lekuan unturie emon beharko dozu!

UNTZE/untzié: Izen arrunta. Itzea. (Azk. Untze, 1^a). 2^a Izen arrunta. Idi, asto probetako distantzi medida bat. (Azk. Untze, 3^a).

*Mend.: "ainbet **untze** biko da onek olak danak josteko!"*

*Form. land.: hainbat **untze** beharko da honek oholak danak josteko!*

UNTZUGITTU/untzugittú: Aditza. Mehetu, eskastu, txikiagotu. (Azk.-).

*Mend.: "okelie sartenien prijidu tanién total **untzugittute** geratu de gero!"*

*Form. land.: okelea sartenean prijidu dodanean guztiz **untzugittute** geratu da gero!*

UNTZURRI/untzurriyé: Izen arrunta. Etxeetan, zein zuhaitzetan aurki dezakegun hosto zabaleko landare gorakaria. (Azk. Untzorri, 1^a).

*Mend.: "etzeko orma gustiyek **untzurris** jositte dekeuz!"*

*Form. land.: etzeko horma guztiak **untzurris** josita daukaguz!*

UPE/upié: Izen arrunta. Errotak artoa zein garia ehotzeko uraren indarra behar izaten du, errotara bertara ura sartu eta ateratzeko zuloei deitzen zaie honela. (Azk. Upazulo)

*Mend.: "**upe** bata sikiñyute dau te garbittu biko da urek ondo urten deiyen!"*

*Form. land.: **upe** bata zikinduta dago eta garbitu beharko da urak ondo urten dagian!*

URDIÑE/urdiñé: Izen arrunta. Perretxiko mota bat. (Azk. Perretsiko, 1^a, Urdinperretsiko).

*Mend.: "geur iya topetan batas **urdiñ** batzuk aparitterako!"*

*Form. land.: gaur ia topetan badodaz **urdiñ** batzuk aparitarako!*

URDIN-SAGAR/urdín-ságarra: Izen arrunta. Hemengo paraje hauetatik lehenago asko hedatuta zegoen sagar mota bat. (Azk. Sagar: urdinsagar)

*Mend.: "**urdiñ-sagarrik** estot pentzetan oiñ leku askotan dauenik be!"*

*Form. land.: **urdin-sagarrik** ez dot pentsetan orain leku askotan dagoanik be!*

URKO/urkoá: Izen arrunta. Erlazio edo harreman oso ona duten auzokoetaz esaten da. (Azk. Urko, 5^a).

*Mend.: "sarritten familiko bategas baño **urko** bategas geiyau tratetan da!"*

*Form. land.: sarritan familiako bategaz baino **urko** bategaz gehiago tratetan da!*

URKUEK/urkúek: Izen arrunta. Senitartekoa edo familiakoa. (Azk.-).

*Mend.: "**urkoari** abixeu eiñ biko yakie selan biyer dan mesie!"*

*Form. land.: **urkoari** abisatu ein beharko jake zelan bihar dan mezea!*

URKULA/urkúlie: Izen arrunta. Puntan triangelu itxuran hortz bi dituen egurra edo palua... (Azk.-).

*Mend.: " orrek derdamiék pixu andiye deko ta **urkulen** bat ipiñi biko yako!"*

*Form. land.: horrek derdameak pisu handia dauka eta **urkulen** bat ipini beharko jako!*

URKULDU/urkuldú: Aditza. Esate baterako lekei, egosten hasi aurretik, izan ditzaketen hariak kentzen dizkiegu eta zati txikiagoetan ebagi, lan horri deitzen zaio honela. (Azk.-).

*Mend.: "orrek baiñek **urkuldu** bidabe biyer eberdireko beskaritterako!"*

*Form. land.: horrek bainak **urkuldu** behar dira bihar eguerdireko bazkaritarako!*

URRESA/urresié: Izen arrunta. Bildots emea. (Azk. Urrusa)

Mend.: "ardiyek kune bi eiñ yeus de biyek urresak!"

Form. land.: ardiak kuma bi ein ditu eta biak urresak!

URRUKOTOI/urrukotoyé: 1^a Izen arrunta. Kotoi itxura duen lora zuria. (Azk.-).

Mend.: "su seu esara kejeuko urrukotoyen artien asinikoa sara ta!"

Form. land.: zu zeu ez zara kejatuko urrukotoyen artean hasitakoa zara eta!

URRUSA/urruusié: Izen arrunta. Abereen munduan emeari deitzen zaio honela. (Azk. Urruza, 1^a).

Mend.: "iges geuri be beiyek urrusie eiskun baya eurton iskoa eiñ yeu!"

Form. land.: iaz geuri be behiak urrusie ein euskun baina aurton idiskoa egin dau!

URRUTU/urrutú: Aditza. Norberen gorputzeko zein beste zerbaiten gainazala tresna zorrotzen batekin urratu. (Azk. Urrutu).

Mend.: "sasiyek urrutute dekot bernie!"

Form. land.: sasiak urrutute daukat berna!

URRUTXA/urrutxié: 1^a Izen arunta. Perretxiko mota bat. (Azk.-). 2^a Izen arrunta. Urritza, fruitu lehorra. (Azk. Urruts, 1^a).

Mend.: "arbolie bete beterik dau te batu bikeus urrutxak!"

Form. land.: arbolea bete beterik dago eta batu beharko doguz urrutxak!

URTEBETA/urtebétié: 1^a Izen arrunta. Norbait hil eta handik eta urte betera egiten den oroimenezko meza. (Azk. Urtebete, 1^a). 2^a Izen arrunta. Sagar mota bat. (Azk. Urtebete, 2^a).

Mend.: "biyer dekeu aman urtebetie... denporie igerri be eiñ barik paseu de!"

Form. land.: bihar daukagu amaren urtebetie... denbora igarri be egin barik pasau da!

URTENTXA/urtentxié: Adjetiboa. Parrandaz parranda eta erromeriz erromeri oso gazte hasten dena. (Azk.-).

Mend.: "ondo urtentxie da ori suen semie be e!"

Form. land.: ondo urtentxie da hori zuen semea be e!

USEN/usená: Izen arrunta. Soroan egoten diren intsektuak. Antzinako denboretan pertsona zein animaliei sukarra jaisteko erabiltzen zituzten. Gorputzean jartzen zituzten intsektuok eta hauek odola xurgatuz sukarra bajatzen zien. (Azk. Uzan).

Mend.: "antziñe kalenturie da bajatzeko usenak ipiñtten sien gaixoaren gorputzien!"

Form. land.: antzina kalenturea eta bajatzeko usenak ipintzen ziran gaixoaren gorputzean!

USKERI/uskeriyé: Izen arrunta. Baliorik gabeko ekintza edo garrantzi txikiko gauza, txikikeria. (Azk. Uskeri, 1^a).

Mend.: "or kamaran dekeun uskeri pilloa... siñistu be esiñ lei eiñ!"

Form. land.: hor kamaran daukagun uskeri piloa... sinistu be ezin leike ein!

USKIÑ/uskiñé: Adjetiboa. Bizlotsua, txarrerako joera duena. (Azk. Uskin).

Mend.: "ori baño persona uskiñaurik topetako be!"

Form. land.: hori baino persona uskiñaurik topatzeko be!

USKI/úskiyé: Izen arrunta. Ipurdiko zuloa. (Azk. Uzki, 1^a).

Mend.: "nik lagundu baño ariñau uskiyen urtego jatzus perretxikoak!"
Form. land.: nik lagundu baino arinago uskiyen urtego jatzuz perretxikoak!

USOTXA/usotxié: Adjetiboa. Izaera beldurtia eta izukorra duenaz esaten da. (Azk.-).

Mend.: "ori neskatotxua be ondo usotxie da ba e...!"
Form. land.: hori neskatotxua be ondo usotxie da ba e ...!

USTELASI/ustélasiye: Izen arrunta. Sagarra, madaria zein beste frutan batek izan dezakeen ustel motatxoa edo pikatxoa. (Azk.Ustel, 1^a).

Mend.: "kamaran patata artien be ainbet ustelasi dau!"
Form. land.: kamaran patata artean be hainbat ustelasi dago!

USTELKA/ustelkié: Izen arrunta. Ia guztiz hondatuta, ustelduta dagoen fruta edo janaria. (Azk. Ustel, 1^a).

Mend.: "orrek sagar ustelkak ere bota biko dies nonora!"
Form. land.: horrek sagar ustelkak be bota beharko dira nonbaitera!

UXANDERA/uxanderié: Adjetiboa. Beti hara eta hona gelditu gabe dabilenaz esaten da. (Azk.-).

Mend.: "ori be bada uxanderie gero, ude gustiyen ibili de ara eta ona!"
Form. land.: hori be bada uxanderie gero, uda guztian ibili da hara eta hona!

UXUEN/úxuen: Adberbioa. Zerbaiten atzetik edo afanean ibiltzea. (Azk. Uzu, 2^a)

Mend.: "jaiyen uxuen da jente asko dabil Gerniken egunokas!"
Form. land.: jaien uxuen eta jente asko dabil Gerniken egunokas!

X

XAXARO/xaxároa: Izen arrunta. Norbaitek izan dezakeen ganora edo fundamentua. (Azk.-).

Mend.: "suk seuk dekosun xaxaroas estakitt nosko prepareuko sun beskariye!"

Form. land.: zuk zeuk daukazun xaxaroas ez dakit noizko preparatuko dozun bazkaria!

XERA/xérie: Izen arrunta. Pertsoneri zein animaliei erakusten zaien eztikeria, maitasuna zein afektua adieraziz. (Azk.-).

Mend.: "xerak eitten ibil nas txakur batari ta bestiek aiñke eiste!"

Form. land.: xerak egiten ibili naz txakur batari eta besteak haginka egin daust!

Y

YIBITTE/yiguttié: Izen arrunta. Puntal ugel tirak dituen makila, indabak garantzeko zein artzaiek ardizain dabilzanean erabilitakoa.(Azk.-)

Mend.: "iñyabak garantzeko **yibitte** berri bet be eiñ biko da au apurtute dau te!"

Form. land.: indabak garantzeko **yibitte** bberri bat ein beharko da hau apurtuta dau eta!

YIGUTIÑE/yigutiñie: Izen arrunta. Astinaldia, paliza.(Azk.-)

Mend.: "geldi espasaus **yigutiñie** emon bitzut ba!"

Form. land.: geldí ez bazagoz **yigutiñie** emon behar deusut ba!

Informazio gehiagorako:

MENDATA GURE GEUREA DANENTZAT

Idoia Mallea Lamikiz

Mendatako Udala

Bilbo 2002